XII-21	BERNEDO LAKA TOMAS	Baldomero Ignazio-M <sup>o</sup> Zipriana Justa
XII-21	URRESTI GALLASTEGI PIA	Raimundo (Mutriku)-Elena
XII-22	GARMENDIA ZAIZAR FRANTZISKO	Ignazio (Getaria)-Agustina Frantziska (Berriatua)
XII-24	LEKUE ARZUAGA FRANTZISKO	Jose Ignazio-Gillermo
XII-27	ARAKISTAIN ETXABURU IGNAZIO	Fernando Silberio-M <sup>o</sup> Kontzepzio
XII-31	BADIOLA ARRIZBALAGA MIREN SORKUNDE	Juan Tomas-Alpina Margarita

**AITAREN GURASOAK**

J. Manuel Demeitrio Anjora Azuola (Mitr.)-Buenaventura Antonia Inurrotegi Arrizabalaga
Simeon Antonio Urristi Alegria-Rufina Lezoala Bikandi
Ildelfonso Bilbao Aldekoa (Lumo)-Zelesina Aramaio Santiso
Polikarpo Bergara Galdox-M <sup>o</sup> Josefa Korpion Abaroa (Leketio)
Sotero Bakertza Dulanto-niuz-Balbina Etxano Otxoa
Jose Ventura Badiola Alegria-M <sup>o</sup> Kristina Zarraga Goiozana
Rufino Belausteigotia Arakistain (Zomotza)-Trifona Garramiola Berriñi
Rufo Jose Carramiola Berriñi-M <sup>o</sup> Josefa Unamuno Olabe (Zortza)
Domingo Gumerindo Badiola Alegria-Manuela Antonia Eizagirre Anakabe (Berriatua)
Jose M <sup>o</sup> Zelaia Olabarria-Antonia Petra Kastillo Arze (Xemein)
Biktor Urresti Arambarri-Mikaela Bustindui Urrea (Berriatua)
Esteban Burgoa Arantzamendi-Agripita Etxaburu Gaiña
Genaro Felipe Osa Urtiza-Toribia Ibezeta
Pedro Manuel Arantzamendi Agirretxea-Nikanora Bilbao Arostegi (Mundaka)
Anizeto Ramon Goiozana Zubika-Elena Laka Badiola
Sotero Laka Badiola-Juana M <sup>o</sup> Eskizabal Aldasoro (Aiaun)
Kosme-Abadia Badiola-Josefa Patrizia Xemein (Xemein)
Ignazio Arantzamendi-Eduarda Agirretxea
Jose Jahier Iruarte Goitia-M <sup>o</sup> Dominga Aristi Egurola
Sotero Laka Badiola-Juana M <sup>o</sup> Eskizabal Aldasoro (Aiaun)
Juan M <sup>o</sup> Bernardo Makazaga (Mende-xa)-Salustiana Beretkua Etxaburu
Jose Ignazio Urristi-M <sup>o</sup> Kruz Ozkorta (Mutrikuakoak)
Frantzisko Garmendia-Balbina Berasaluze (Getariakoak)
Sebastian Lekue Bengoetxea-Balbina Ukiola Landaribar
Martin Arakistain Bengoetxea-M <sup>o</sup> Josefa Egurola Arias (Berriatua)
Domingo Deozgrazas Badiola Arrizabalaga-Josefa Ignazia Aulestiarre Beretku

**AMAREN GURASOAK**

Matias Juan Agustin Ansola Ulazia-Juana Angela Idiakez Onederra
Jose M <sup>o</sup> Aranbarri Urtiza (Berriatua)-M <sup>o</sup> Ignazia Argotia Olasolo
Ezekiel Osa Zubikarai-M <sup>o</sup> Madalena Ibezeta Pagate
Lino Arostegi Zularika-M <sup>o</sup> Ignazia Ansola Ulazia
Marin Solabarrieta Burgoa-Agustina Azpiri Ugartetxea
Fernando Badiola Etxaburu-M <sup>o</sup> Jesus Aramaio Arantzamendi
Alejandro Etxaburu Ibezeta-Nikolasa Bengoetxea Gaiña
Epifanio Etxaniz Beogoña-Ana Josefa Mearria (Elantxobe)
Ignazio Caspar Larrinaga Alegria-Praxedes Antonia Gazaga-etxebarra Otxoa-antezana
Juan Tomas Urresti Aulestiarre-M <sup>o</sup> Merzades Kasillio Arze (Riba-Santander)
Pio Andres Sajarrista Ibezeta-Ana M <sup>o</sup> Egurola Pagoga
Leon Olan Arambarri (Durango)-Antonina Bizenta Iramategi Txakartegi
Jose M <sup>o</sup> Iain Bilbao (Arbazegi)-Martina Mendibe Zubimendi (Markina)
Pedro Manuel Burgoa Aramaio-Manuel Pegate Basterretxea
Eusebio Norberto Arretumandia Basterretxea-M <sup>o</sup> Salome Gazaga-etxebarra Pedura
Pedro Frantzisko Elustondo Badiola-M <sup>o</sup> Andres Ibezeta Azpiazu
Domingo Jose Juaristi Plaza-Juana Krisostoma Berriñain Pagoga
Gregorio Gorostola-Manuela Plaza (Berriatua)
Anton M <sup>o</sup> Arriola Otxoa-antezana-M <sup>o</sup> Trini Agirre Walt
Pedro Frantzisko Elustondo Badiola-M <sup>o</sup> Andres Ibezeta Azpiazu
Juan de Dios Laka Arakistain-Petra Zelaia Abaroa
Benigno Romualdo Gallastegi Egiuren-Beatriz Abdonia Ibezeta Zubizarreta
Antonio Zazar (Mendaro)-Genara Ureta (Aribe-Vafarroa)
Aureliano Arzuaga Zabala (Azpeitia)-Balentina Bidasoro Erkizia (Zumaiia)
Estanislao Etxaburu Ibezeta-Brigida Angela Garamiola Berriñi
Migel Geronimo Arrizabalaga Etxaburu-Frantziska Egurola Iramategi



# 1912ko GERTAERA BI

Ondarroako Historia Zaleak

1912.08.12:

Galarrena

Kantauri itsasoan.

- Itsasoan galdu ziren arrantza-ontzien artean zegoen «Virgen del Puerto». Ondarroakoa izan arren, Bermeoko portutik lan egiten zuen. Zorionez, Ondarroako beste arrantza-ontziak herrian zeuden besperatik, Santa Klara jaia ospatzeko.

Hiru ondarroar itto ziren: Isidor Etxaburu patroia eta Kandido Etxaburu bere semea eta Simon Bilbao. Biok «Virgen del Puerto»ko mariñelak.

- Toki askotatik iritsi zen elkertasuna Ondarroara. Hara nolako gutuna igorri zion Bilboko «Centro Vasco» elkarteak Ondarroako Santa Klara kofradiari 1912ko abuztuaren 28an:

*«La Junta Directiva del Centro Vasco, al tener conocimiento de la horrorosa catástrofe acaecida en nuestra costa últimamente y el gran número de víctimas que había ocasionado, se reunió en sesión extraordinaria el día 15 de los corrientes, y acordó abrir un suscripción para aliviar en parte la angustiosa situación de las desgraciadas familias de las víctimas, encabezando la Junta Directiva y la Sociedad, cuyo resultado hasta la fecha es de pesetas 47.103'30.*

*Igualmente acordó izar la bandera a media asta y enlutar sus balcones durante varios días en demostración de dolor y comunicar de oficio a los Sres. Alcaldes de los puertos y a los Presidentes de las Cofradías el sentimiento de profundo pesar que embargaba esta Sociedad por esa terrible catástrofe que tan hermosas vidas ha arrebatado.*

*Lo que, en vista de lo acordado, tengo el honor de comunicárselo. Dios guarde a UD, muchos años.*

*Bilbao, a 18 de Agosto de 1912.*

*El Presidente en funciones, Ceferino Salaberri.*

*Sr. Presidente de la Cofradía de Mareantes Santa Clara de Ondárroa»*

[Gutun hau Ondarroako Arrantzaleen Santa Klara kofradiatik jaso dugu Zuzendaritza Batzordearen Komunikapenen Liburutik (1910-1920) 31-32. or.].

## Telefonoko kable baten behaztopatu eta Antonio Beristainen zaldi bi hil.

Orain dela 100 urte, oraindik ez egoan autobus zerbitzurik Ondarroan. Herri batetik besterako komunikazioak zaldiek tiratutako orga bidez burutzen ziren.

Zerbitzu hau Ondarroan eskaintzen zuen bat Antonio Beristain izan zen. Geroago, «La Esperanza» delako autobusak jarriko zituen.


1912. urtean istripu larria gertatu zitzaion A. Beristainen zaldiei. Santa Klara Kofradiako egoitzatik Santa Klarako talaiaraino jarrita zegoen telefonoko kablea lurrera erorita zegoen, antza, eta bertan behaztopatu ondoren, hil ziren bi zaldiak.

A. Beristain, zaldien jabeak, 1.000 pezeta eskatu zizkion Ondarroako Udalari kalte-ordain gisa. Eta, Udalaren erabakia betez, Jose Maria Goitia alkateak, bere aldetik, gutuna igorri zion 1912ko urriaren 25an Santa Klara kofradiari, galdetuz ea prest zegoen ordaintzeko 1.000 pezeta haiek eta «si correrán en adelante con todos los gastos de sostenimiento y reparación y con las responsabilidades que del referido servicio se deriven de conformidad a lo acordado cuando se procedió por el municipio de esta villa a la instalación del referido teléfono».

Udalaren gutunaren berri eman zen Santa Klara kofradiak azaroaren 2an egin zuen Urteko Ohiko Batzar Orokorrean. Bertan, aho batez, erabaki zen «que esta Cofradía no está conforme a abonar a D. Antonio Veristain ninguna indemnización por la muerte de sus dos caballos». (ikus Santa Klara Kofradiako komunikapen liburua, 38-39. or.) Eta udalari eskatu zion bera egiteko herriko telefono zerbitzu guztiaren arduradun.



Galarrena. Madrileko Mundo Grafico aldizkariaren fotomuntaketa.  
Itsas Marruma liburutik. 166 orr.





ONGI ETORRI  
ONDARRA

08 0

3<sup>A</sup> ST-2416



ONDARROA,  
ARRANTZA HERRIA

# BAXURAKO ARRANTZA-ONTZIAK 2.011n

Patxi Etxaburu Ajarrista

Arranontzia	Jabegoa	Folioa	Tona	Z.P.	Urtea
ARLANPI	Arlanpi Elkarte	BI-4-1-99	65,07	365	1999
BETI OITZ	Jose Beitia Goikoetxea	BI-4-2-02	18,72	88	2002
GURE LEIRE	Jose Luis Ouviaña Crujeiras	CT-1-5-98	34,95	GT 108,5220	1999
ITOITZ	Arlanpi Elkarte	BI-4-1-02	64,92	259	2002
LAU ANAIK	Eusebio Arantzamendi eta besteak	ST-2-5-96	99,9	402	1996
ONGI ETORRI	Ondarkide Elkarte	BI-4-1-04	149	1000	2004
TONIÑO SEGUNDO	Jose Luis Ouviaña Crujeiras	CO-7-3571	43,68	GT 81 360	1986

# OPPAO ARRANTZA-ONTZIAK 2.011n

Patxi Etxaburu Ajarrista



IZENA	JABEGOA	ARRANTZA	BANDERA
AKETXE	Aketxe Elkarte	Arrastea	
AKILLAMENDI BERRIA	Akillamendi Elkarte	Korda	
ANDREKALA BERRIA	Andrekala Elkarte	Arrastea	
ANTIUKO AMA	Gaztiak Elkarte	Arrastea	
ARIN	Arin E.U.R.L.	Korda	Frantsesa
ARRETXU BERRIA	Arretxu Berría Elkarte	Arrastea	
BIKAIN	Galdonamendi Elkarte	Arrastea	Frantsesa
EGUZKI LORE	Aketxe Elkarte	Arrastea	Frantsesa
ESKAMI	Badigara Elkarte	Arrastea	Frantsesa
ESKARDI	Badigara Elkarte	Arrastea	
GAZTELUGATXE	Aketxe Elkarte	Arrastea	
GURE GASKUÑA	Astiola Elkarte	Arrastea	
GURE KANTABRIKO	Astiola Elkarte	Arrastea	
HODEIERTZA	P <sup>a</sup> . Zozuak Elkarte	Arrastea	
IDURRE BERRIA	Idurre Elkarte	Korda	
INTXORTA MENDI	S. Agirregomezkorta eta besteak	Arrastea	
IZOARD	Galdonamendi Elkarte	Arrastea	Frantsesa
JOSE KALAMENDI	Larrasmendi Bi, Elkarte	Arrastea	
KARRAMARRU	Lagun Talde Elkarte	Arrastea	
KAXARRA	Chemaypa Elkarte	Arrastea	
KAXU	Chemaypa Elkarte	Arrastea	
KEROLAN	Armament Keroulan Elkarte	Korda	Frantsesa
KIRRIXKI	Lagun Talde Elkarte	Arrastea	Frantsesa
LIORAN	Itxas Zabal Elkarte	Arrastea	Frantsesa
MAR DE MARES	Lagun Talde Elkarte	Arrastea	
MIREN	Armament Keroulan Elkarte	Korda	Frantsesa
UR ERTZA	Urondo Elkarte	Arrastea	
URONDO	Urondo Elkarte	Arrastea	





Donostia, 1952ko neguan. Sagasta Ondarroako arrantza-ontzia txitxarro handiz beteta Donostiako kaian sartzean arrain-salmentarako. Ezker-eskuin, aurretik atzera; Jose Badiola *Napoliue*, Jose Mari Burgoa, Andres Etxaburu, Benigno *Papardo* Bedialauneta, Josu Pagate eta Jazinto Pello Azpiri.

Potin handia XIX. mendeko azken hamarkadan.



# HONDORATZEA 1902an

Patxi Etxaburu Ajarrista


*2012ko abenduaren 29an betetzen da zorigaiztoko hondoratze baten 110. urtebetetzea.*

**G**arai hartan; negua, itsasoan giro hotza, galarrena, eta hondorioz eguraldi txarra. Ondarroan beste hainbat herri arrantzaleetan bezala arrantza-ontziak arrantzara. Txalupa handiagoak gaueko urdu txikietan irten ziren Ondarroatik Ipar-Ekialdeko Ikkote kalara bisigutarako arrantzara.

## **ARRANTZAN ORDUAK IGARO OSTEAN, HERRIKO BANDAN, EGURALDI TXARRETAN.**

Hainbat txalupa Donostiara porturatu ziren, Donostiako kaia bait zen kalatik gertuen zegoena. Beste txalupak beren portuetarako bidean. Horietako bat Ondarroako Nuestra Señora de Itziar deituriko potin handiak lortu zuen Ondarroara gerturatzera. Gaueko iluntasuna batetik eta itsasoaren egoera txarra bestetik, ez zen iruditzen Ondarroako sarreraren arriskuari (une hartan) aurrera egitea eta Mutrikurako norabidea hartu zuen, azkenik. Mutrikuko porturako sarreran (uneko baldintzak ezegokiak nagusi), olatu handi baten eraginez moila jo zuen potin handiak eta bertan hondoratu zen, ondoren, 19 arrantzaleko eskifaiatik 10 izanik bizia galdu zutenak eta 9 bizirik irten zirenak, 20 umezurtz eta sei alargun utzirik. Jarraian denen zerrenda:





Galarrena, XIX. mendeko azken hamarkadako marraskia.

## HILDAKOAK

*Agirretxea Zelaia Jose M<sup>a</sup>*  
*Aulestiarte Zaldunbide Jose M<sup>a</sup>*  
*Burgoa Aretxabaleta Kristobal*  
*Egaña Olasolo Jorge*  
*Elu Bedialauneta Isidoro, patroia*  
*Elu Lezaola Pedro*  
*(goiko Isidororen semea)*  
*Garalde Ibarloza Konstanzio*  
*Landaribar Burgoa Prudentzio*  
*Landaribar Solabarrieta Angel*  
*(goiko Prudentzioren semea)*  
*Zelaia Bedialauneta Polikarpo*

## SALBATUAK

*Agirretxea Ibazeta Ambrosio*  
*Agirretxea Ibazeta Domingo*  
*Agirretxea Ibazeta Juan Bautista*  
*Arrizabalaga Muxika Jose M<sup>a</sup>*  
*Aulestiarte Laka Jose Felipe*  
*Egia Arantzamendi Simon*  
*Landaribar Aulestiarte Bernardo*  
*Santiso Idoeta Jose Luis*  
*Solabarrieta Arkotxa Pedro M<sup>a</sup>*





Ezkerrean, Santa Klara kofradia. Eskuman, San Pedro Kofradia 1927a baino lehen.

# SANTA KLARA ETA SAN PEDRO KOFRADIEK BAT EGIN ZUTENEKOA

## 85. URTEURRENA

Imanol Oruemazaga Baseta

*Duela hiru urte, Ondarroako Santa Klara kofradian gertatu zen banaketaren ehun urteurrena zela-eta, «Kofradien banaketa: gertaera eta ondorioak» artikulua argitaratu genuen («Ondarroa, 2009», 14-29 or.).*

*Artikuluaren egileak ohartarazten gintuen argitaratutako artikulua idazlanaren lehen atala besterik ez zela. Izan ere, banaketa hura, zorionez, 1927. urtean bukatu zen, urte horretan Santa Klara eta San Pedro bi kofradiak elkartu baitziren, betiko Santa Klara kofradia berrosatuz.*

*Berradiskidetze horren 85. urteurrena 2012. urte honetan gogoratzen dugunez, idazlanaren bigarren atala eskaintzen dizuegu «Hondarroa, 2012» honetan.*

Ondarroako Historia Zaleak





## I.- 1909. URTEKO APURKETAREN TAMAINA

**1** 927. urtearen hasieran batu ziren Ondarroako Santa Klara eta San Pedro kofradiak 18 urte banatuta egon ondoren. Egun pozgarri hark Ondarroako herriari zer ekarri zion jabetu gaitez, lagungarri izango zaigula deritzat 1909. urtean Santa Klara kofradian gertatu zen apurketaren tamainaz sakontzea.

Halaber, «Ondarroa 2009» urtekariko artikuluan eskainitako datuak osotuko ditut, datu berriak azalduz. Urte haietan ondarroarrek jasan behar izan zuten tragediaz jabetzeko lagungarri izan ditugula uste baitut.

Izan ere, 1909. urtean Santa Klara kofradian gertatu zen apurketa ez zen bat-batekoa izan. Aurreko urteetatik poliki-poliki egosten ari zen.

Honela adierazten digute garai hartako Santa Klara kofradiako Agiri Liburuek eurek ere.

Adibidez, Santa Klara kofradiako Bilera Orokorretako Agiriak biltzen dituen Liburuari hasiera ematen zaio 1909ko maiatzaren 14an, San Pedro arrantzale kofradia berria sortu eta bihamunean.

Are esanguratsua dugu Ondarroako Santa Klara kofradiako 1900.11.12tik 1912.10.15ra bitarteko Zuzendaritza Batzordearen Bilera Agiriaren Liburuan gertatzen dena <sup>(1)</sup>

Liburuari hasiera ematen zaio 1901ko azaroaren 12ko bilera agiriarekin. Eta eten bat gertatzen da 1905eko apirilaren 28ko bilera agiria geroztik. Liburuan bi orrialde hutsik utzi eta gero, 1910eko azaroaren 11ko batzarraren agiriarekin jarraitzen du.

Zer gertatu ote zen 1905eko apirilaren 28tik 1910eko azaroaren 12ra bitartean? Ziur dakigun gauza bakarra zera da: 1909eko maiatzaren 13an Arrantzale Kofradia berria sortu zela Ondarroan.

Halaber, Santa Klara kofradiatik alde egindako arrantzaleek elkarte berri baten bildu ziren, elkarte honi kofradia baten izena eta izaera eman ziotelarik. Hala nola, bere arrantza-ontzi, bere bazkide, bere zuzendaritza, bere langileak («talaxeru» eta «seiñeru»-propioak, besteak beste)...

Erabateko apurketa, beraz.

Ez daukat zehazterik zenbat arrantzalek alde egin zuten Santa Klara kofradiatik apurketa gertatu zenean.

Bai ziurtatu dezaket, 1913. urtean, Santa Klara kofradiak 598 bazkide zituela; 302 bazkide, ordea, San Pedro kofradiak <sup>(2)</sup>.

5.000 biztanle inguru zituen Ondarroa arrantza herri baten, elkarren ondoan bi Arrantzale Kofradia jarduteak - elkarren lehian eta kontra ere zenbait kasutan- arazo franko sortzen zuen herritarren eguneroko bizimoduan. Goian aipatu dudana «talaxeruen» eta «seiñeruen» kasua dugu, besteak beste, kofradia baten eta besteraren erabaki ezberdinek herritarren artean sortzen zituzten arazoek lekuko.

(1) Deigarria Liburu honen izenburua: «*Libro de Acuerdos adoptados por los Sres. Comisionados de esta Cofradía de mareantes pescadores de este puerto de Ondárroa.*»

(2) Kofradia bakoitzaren bazkide kopuruaren arabera lortu zuten bi Kofradiek «talaxeru» eta «seiñeru» berdinak ordaintzeko akordioa. SKOAKBOA, 1913.01.14. SKOAKBOAL (1909-1922), 152. or.



Hona hemen, adibidez, Santa Klara Kofradiak Bilboko Itsas Komandantziari 1910eko azaroaren 11an igorri zion gutuna:

«(...) *Que desde hace poco tiempo se ha constituido en esta villa otra sociedad de pescadores denominada San Pedro, cuyos asociados con independencia absoluta de las indicaciones y consejos de los Sres. Atalayeros que la antigua Cofradía tiene nombrados, se dedican a las peligrosas faenas de la pesca.*

*De este orden de cosas y de no Reglamentarse, como se han hecho en otros puntos de esta provincia<sup>(3)</sup>, pueden originarse graves contratiempos, y aún desgracias irreparables a la gente del mar, que muchas veces por verdadero pugilato y mal entendido amor propio, se arriesga á salir a la pesca, no obstante las indicaciones contrarias que los señeros de la Cofradía de Santa Clara les hacen.»<sup>(4)</sup>*

Bi kofradien artean hain beharrezko zen akordio puntual hura lortzeko bi urte (!) behar izan zituzten. Honek adierazten digu noraino iristen zen kofradia bien arteko etendura.

Kofradia bien arteko konponezinak herritarren egunoroko bizimoduan ere eragin zuzena eta mingarriak izango zituen

1910. urteko gertaera bat aipatuko dut soilik.



## SANTA KLARA KOFRADIAKO «ZOR HISTORIKOAK»: SANTA KLARA ETA SAN PEDRO KOFRADIEN ARTEKO LISKAR GUNEA.

Santa Klara kofradia, bere ekonomia arazoei aurre agiteko, herritar dirudunek emandako maileguez baliatzen zen. Mailegu eta hauen interesak urtean zehar ordaindu ohi zituen, arrantzak Santa Klara kofradiari ematen zizkion etekin ekonomikoekin. Mailegua itzul ezina edo urteko korrituak ordaindu ezina gertatzen zenean, «Hartzekodunak» atalean pilatzen zen. Honez gain Santa Klara kofradiak beste zor batzuk ere bazituen «Censos Antiguos» deitzen zirenak<sup>(5)</sup>.

Dirukontu berezi hauen, eta urteko beste dirukontu arruntren kontu-arrazoi zehatza eman ohi zen, urtero, azaroaren bian edo hurrengo egunetan Santa Klara kofradiak urtero egin ohi zuen Batzar Orokorrean.

1909ko Batzar Nagusiaren agirian, esateko, zera irakurtzen da:

«(..) *Inmediatamente el Secretario Contador, D. Blas Iturriza Badiola dió cuenta de las seis cancelaciones practicadas, durante el año de 1908 a 1909 con el Mayordomo de la Cofradía D. Laureano Bilbao, resultando en éllas un saldo a favor de la Asociación (Santa Klara kofradia) y en contra del Señor Mayordomo la cantidad de cuatro mil trescientas setenta y seis pesetas y treinta y ocho céntimos.*

*Así mismo el mismo Secretario Contador dió cuenta de la situación en la que se encuentra en la actualidad esta Cofradía, dando conocimiento de las cantidades recibidas a préstamo para el reparto verificado el día nueve del corriente año, resultando en este día que la Cofradía de Santa Klara tiene una deuda de ciento cinco mil ciento veinticinco pesetas de Capital de Acreedores y nueve mil quinientos ochenta y cuatro pesetas con setenta y cinco céntimos de Capital de Censos Antiguos del dos y tres por ciento<sup>(6)</sup>.*

Diru-kontu hauek 1908/1909 urte ekonomikoari zegozkion<sup>(7)</sup>. Beraz, diru-kontu horretan agertzen ziren zorrak San Pedro kofradiako bazkideei ere zegozkien, hein baten, behintzat, Santa Klara kofradiako bazkide izan zirenetan 1909ko maiatzaren 13ra arte.

(3) Hemen aipatzen diren portuen artean zegoen Bermeokoa. Portu honetan ere, garai hartan, baziren bi kofradia. Elkarri mokoka ibili arren, akordioa lortua zeukaten «seiñeru» eta «talaxeru»-en gaian.

(4) SKOAKGKL (1910.11.02/1920.11.17), 1-2. or. Gutun honen berri eman zien Segundo Ibaibarriagak, Santa Klara kofradiako lehendakariak, Santa Klara kofradiako «comisionados» delakoei (Santa Klara kofradiako Zuzendaritza Batzordeari) 1910eko azaroaren 22an elgin zuten bileran. IKus SKOAKZBAL (1910/1926). 61. or.

(5) Ikus datu gehiago «Kofradien banaketa: Gertaerak eta ondorioak» artikuluan. «Hondarroa 2009» urtekaria, «Santa Klara Kofradiaren «Zor historikoak» atala, 24-25. or.)

(6) SKOAKBOAL (1909.05.14-1922.03.27), 72.or.

(7) Santa Klara kofradiaren administrazioan urtea azaroaren bian egin ohi zen Urteko Bilera Orokorrean hasi eta hurrengo urteko Batzar Orokorrean arte luzatzen zen. Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria eta beste kideak ere azaroaren biko Bilera Orokorrean hautatzen ziren eta agintean jarraitzen zuten hurrengo urteko Batzar Orokorrean arte.



Aurrerantzean zor hauek izango ziren, hein handi batean, Kofradia bien artean sortuko ziren eztabaida eta lis-karren iturburu. Halaber, zor horiei erantzutea soilik San Klara kofradiaren gain geratu zen, San Pedro kofradiakoek lepoa jasotzen zuten-eta.

Egoera honek haserre bizian jarri zituen Santa Klara kofradiako arduradunak, zor haiek Santa Klara kofradian apurketa gertatu aurretikoak ziren eta.

## II.- SANTA KLARA KOFRADIAREN ESTRATEGIA MALTZURRA SAN PEDRO KOFRADIA MAKURTARAZTEKO «ZOR HISTORIKO»N ARAZOAN (1910eko azaroaren 2ko Urteko Ohiko Bileran Orokorra). ETA ESTRATEGIA HONEN EMAITZAK.

Haserre hura lehertu egin zen 1910eko azaroaren 2an, Urteko Ohiko Batzar Orkorrean. Bilduek <sup>(8)</sup> aho batez agindu zioten Batzordeari ahalegin berezia jar zezala San Pedro kofradiarekin konponketa lehenbailehen lortzeko. Honetarako, estrategia berezia erabaki zen, hots, inolako ordaintaririk ez egitea hartzekodunei, ezta kofradiako osagileei eta botikarioari, ezta Ondarroako parrokiari <sup>(9)</sup>.

### Ondarroako parrokiarekin harremanak.

Batzar Orokorra egin zen egun berean, -konplikazio gutxien ekarriko zuena edo bi kofradiak bat egiteko eragin handiena izan zezakelakoan, agian-, Segundo Ibaibarriaga Santa Klara Kofradiako lehendakariak honako gutuna igorri zion Ondarroako parrokiako maiordomoari, Eujenio Usobiaga apaizari:

*«Tengo el honor de poner en conocimiento que en sesión celebrada el día 2 de Noviembre proximo pasado entre los señores representantes de este gremio de mareantes pescadores de Santa Clara que tengo el honor de presidir, acordaron por unanimidad, que, mientras no se practique la liquidación de créditos y deberes que tiene pendientes esta Cofradía con los disidentes de la misma, hoy asociados en la nueva Cofradía titulada San Pedro, no se abone ninguna cantidad de los fondos comunes de esta Cofradía para cuenta y pago de sus derechos que durante el año presenta a esta misma Cofradía, por honorarios de misas, salves, etc., correspon-*

*dientes al año de 1909 a 1910. Lo que participo a U. para su gobierno lo acordado por los dichos Sres. Representantes de este grémio. Dios guarde a Ud. muchos años» <sup>(10)</sup>.*

Gutun honek, egia esan, izan zuen bere eragina. Santa Klara kofradia berak onartu zuen Ondarroako Parrokiak, antza, egin zion proposamena Santa Klara eguneko elizkizunak soilik ordaintzeko, *en vista de la conformidad de la Cofradía de San Pedro de abonar las funciones del día de San Pedro del corriente año» <sup>(11)</sup>.*

Kofradia bien arteko konponketarako aurrepausu bat, partziala bazen ere.

### Santa Klara kofradiaren harremanak bere osagileekin eta botikariarekin.

Oso bestelako eragina izan zuten Santa Klara kofradiak Zeledonio Arriola eta Anakleto Gastañondo kofradiako osagileekin izan zituen harremanek.

Santa Klara kofradiak 1911ko urtarrilaren 26an osagileei igorri zien komunikapenean, Parrokiako apaizei legez, hauei ere argi eta garbi jakinarazi zien erabakiaren helburua, hots, *«mientras no se practique la liquidación de créditos y deberes que tiene pendiente esta Cofradía con los disidentes de la misma, hoy asociados en la nueva Cofradía titulada San Pedro».*

Hori bai, erabakia osagileei eurei zegokien zuzenezuzenez: *«que no se abone ninguna cantidad de los fondos comunes de esta Cofradía, para cuenta y pago de su asignación semestral que vence el 30 de abril próximo venidero» <sup>(12)</sup>.*

Kofradiako osagileek ez zuten ulertu, antza, Santa Klara kofradiaren erabakiaren helburua ez zela eurok biok zigortzea, San Pedro kofradia bera Santa Klara kofradiaren «Zor Historiko»etaz negoziatzera makurtaraztea baizik.

1911. urtean zehar izan zen komunikapen trukaketarik osagileen eta Santa Klara kofradiaren artean, baina aurrerapen handirik gabe, dirudienez.

Alberto Onaindia botikariak ere jaso zuen Santa Klara kofradiak igorritako antzeko komunikapena. Oso bestelakoa izan zen bere erantzuna.

Halaber, bera ere jabetuta zegoen Santa Klara kofradiak, eta herritar arrantzaleek bereziki, pairatzen ari ziren egoeraz, *«debido a la disgregación de algunos elementos, hace poco tiempo efectuada, de la Cofradía que U. preside tan dignamente».*

(8) Garai hartan arrantza-ontzien jabe eta patroiek soilik parte hartzen zuten Santa Klara kofradiako Batzar Orokorretan.

(9) SKOAKBOBA, 1910.11.02. SKOAKBOBAL (1900.05.14-1922.03.27), 109. or.

(10) SKOAKZBGKL (1910/1920), 4. or.

(11) Ondorio hau atera dezakegu 1911ko uztarrilaren 11ko datarekin Santa Klara kofradiako Gutun eta Komunikapenen Liburuan, 9an orrialdean, agertzen den ohar batetik.

(12) SKOAKZBGKL (1910-1920), 5. or.





XX. mendeko lehen hamarkada Zubi Zaharraren behetik.

Egoera larri honen aurrean, *«me he creído en el caso de hacer renuncia parcial de los derechos que por virtud del contrato que como Farmacéutico con tal entidad tengo convenido»*.

Santa Klara kofradiarekin zeukan kontratoaren araberak, azken sei hilebetei zegokien 2.250 pezetako soldata kobratu gabe uzteko prest zegoen. Hori bai, *«como compensación de esta renuncia y habida consideración á los dos años y medio que serví gratuitamente á la Cofradía por virtud del actual contrato, se prorrogue éste por cinco años en vez de los dos años y medio que faltan para su terminación. Puede suponer que solo el cariño á esa entidad tengo, me obliga á obrar así, ya que observará que son bien escasas las ventajas de lo que pido para la importancia de los derechos que cedo»*.

Komunikapen hau 1911ko ekainaren 27an igorri zion Santa Klara kofradiari eta honek egun berean egin zuen Ez-ohiko Batzar Orokorrean osorik irakurri zen <sup>(13)</sup>.

Gogoan izan Alberto Onaindia botikariaren zerbitzuak kontratatu zituela Santa Klara kofradiak, hainbeste urtez Santa Klara kofradiako botikaria izan zen J. A. Garramiolari kontratua berriztatu ez zitzaionean.

Alberto Onaindiaren proposamenak jokoz kanpo utzi zituen bilduta zeuden Santa Klara kofradiako kideak.

Proposamenaz informatzeko eta hurrengo bilera orokorrean gaia mahairatzeko agindu baitzieten lehendakariari.

Bai zintzo ere bete zuela agindua Segundo Ibaibarriaga lehendakariak! 2011ko azaroaren 5ean egin zen Urteko Ohiko Bilera Orokorrean lehenengo gai moduan mahairatu zen A.Onaindiaren proposamena. Beronen komunikapena osorik irakurri zen berriz ere.

Luze eta gogor ezabaidatu ondoren, isilpeko botazioa egitea erabaki zen bola beltzak eta zuriak erabiliz, isilpeko botazioetan Santa Klara kofradian ohi zenez. Osagilearen proposamena ez zen onartu. 13 lagunek bola beltza (proposamena onartzearen aldekoa) eman zuten, eta beste 38 lagunek bola zuria (proposamena onartzearen kontra) <sup>(14)</sup>

Agian, zu ere, irakurle, harrিতa geratu zera ikustean nola pausatu naizen hainbeste A. Onaindia osagileak eta Santa Klara kofradiak izan zituzten harremanen gaian.

Bada, harreman horiek, nire uste apalean, batetik, islatzen digute nola bizi izan zituzten ondarrorrek Kofradia bien apurketa eta honen ondorioak, bereziki. Bestetik, nola nabarmentzen digute «Zor Historiko»en arazoa konpontzeak Santa Klara kofradiarentzat zeukan garrantzia! Botikariaren proposamena aztertzea barik, «Zor Historiko»en arazoa konpontzeko hasita zeukan estrategia mantentzea lehenetsi baitzuen.

(13) SKOAKBOAL (1909-1922), 114-115. or.

(14) SKOAKBOAL (1909-1922), 122-123. or.





### Santa Klara kofradiaren harremanak bere «hartzekodunekin»

Batzar Orokorrean hartutako erabakiaren berri «hartzekodunei» ere eman zitzaien. Hauetariko bat zen Pedro Etxaburu herritarra.

Bere egoera honela jakinarazi zion 1911ko azaroaren 20an Santa Klara kofradiari «...cómo el Sr. Presidente de la Cofradía de Santa Clara D. Angel Aristondo nos comunicó una carta en el año 1910 en 15 de Marzo diciendo que, como no tenían esperanzas de pagar los réditos en un año y que esperaríamos que tenían que arreglar con los agremiados de San Pedro; pues le digo a Ud. que como se pasó un año y que estoy esperando y en necesidad de los réditos y que me los paguen los réditos»<sup>(15)</sup>.

Santa Klara Kofradiako Zuzendaritza Batzordeak biharamunean bertan, gutuna aztertu ondoren, erabaki zuen eta honela jakinarazi zion Pedro Etxabururi ez zuela onartzen bere eskaria, «mientras subsistan las actuales circunstancias y no se solucione de una manera clara y definitiva la cuestión, determinándose qué obligaciones alcanzan a cada una de la entidades interesadas».

Honetarako, «(...) que a pesar de los buenos deseos de la Cofradía de Santa Clara, no ha sido posible todavía llegar a un arreglo con los elementos disidentes que de ella se segregaron para formar la nueva Cofradía de San Pedro respecto a las obligaciones que sobre todos indistintamente pesaban y cuyo reconocimiento por parte de los referidos elementos aún no se ha logrado»<sup>(16)</sup>

Pedro Etxaburu «hartzekoduna» Santa Klara kofradiari egindako ekarpen ekonomikoaren errediturik kobratu gabe geratu zen.

Zoritxarrez, berea ez zen kasu bakarra. Handik bi hilabetera Santa Kkara kofradiako lehendakariak aitortzen zuen bazela Ondarroan hainbat lagun «que... se ven necesitados de mutuo y común auxilio»<sup>(17)</sup>

Nortzuk ote Santa Klara eta San Pedro kofradien laguntza behar zuten herritar haiek?

1908ko uztailaren 12an itsasoan galdu ziren 27 ondarroar arrantzaleen etxeko errukarri guztietatik batzuek baino ez ziren. Egun honetako itsas-hondamendia zela-eta, diru-bilketa zabala egin zen Euskal herrian barrena. Lortutako dirulaguntzaren banaketa konfliktiboaz informazio ugari aurki dezakezu «Ondarroa 2008» urtekarian, 55-61. orrialdeetan.

Itsasoan galdutako arrantzaleen etxeko haiek urtero aurkeztu ohi zioten Santa Klara kofradiari eurei zegokien laguntzaren eskaria. Eta urtero ez zitzaien eskaria onartzen arrazoi berdinetatik. Adibide gisa, hona 1911ko arazoaren 5ean egin zen Urteko Batzar Orokorrean eman zitzaien ezeztaren arrazoia, hots, «toda vez que los hijos y parientes más cercanos de los referidos naufragos dejaron de pertenecer a esta Asociación y forman parte de la nueva Cofradía de San Pedro, no pudiendo, por lo tanto, resolver la cuestión, mientras no se practique la liquidación de las cantidades que en las distintas deudas de esta Cofradía corresponde abonar a la misma y a los ex-agremiados que en aquella época pertenecían a esta Cofradía de Santa Clara»<sup>(18)</sup>.

Berriz ere Santa Klara kofradiako «Zor Historiken» mamuaren itzal madarikatua, herritarrak izorratzen!

### San Pedro Kofradiarekin harremanak.

1910eko azaroaren 2ko Urteko Ohiko Bilera Orokorrean onartutako estrategia berriaren helburua, zeharka bada ere, San Pedro kofradia bera makurtaraztea izan zen, zalantzarik gabe. Ea lortzen zen «Zor Historiko»en arazoaz konponketa batera iristea kofradia biak.

Baina helburu hori ez zen lortu. Ondorio honetara iristen zara, Santa Klara kofradiako Zuzendaritza Batzordearen 1911ko Bilera Agiriak eta urte bereko Gutun-Komunikapenen Liburua irakurritz gero. Izan ere, 1911. urtean Kofradia bien artean egon ziren harremam urrien artean, behin ere ez aipatzen da «Zor Historiko»en gaia.

Estrategiaren porrot nabarmena, beraz.

Porrot honen ondorioz -eta geroago ikusiko dugun beste arrazoi batzuk ere bultzatuta-, Santa Klara kofradiak erabat aldatu zuen bere estrategia. 1911ko azaroaren 5ean egin zuen Urteko Ohiko Batzar Orokorrean, hain zuzen, erabaki zuen aurrerantzean Santa Klara kofradia bera zuzenean jarriko zela harremanetan San Pedro kofradiarekin, bien artean zeuden arazoak bideratzeko. Honetarako, Kofradia bakoitzak bere komisio propioa izendatuko zuen. Komisio bakoitzak kalkulatu beharko zuen San Pedro kofradiak Santa Klarari ordaindu behar zion diru-kopurua. Santa Klara kofradiak ez zuen besterik nahi: «para que ... dé fin a este enojoso asunto»<sup>(19)</sup>.

(15) SKOAKZBGKL (1910/1920), 20. or.

(16) Segundo Ibaibarriagaren gutuna Pedro Etxabururi (1911ko azaroaren 21ean). SKOAKZBGKL (1910/1920), 21. or.

(17) 1912ko urtarrilaren 20an Felix Lekuona San Pedro kofradiako lehendakariari igorritako gutunetik jasotako datuak. SKOAKZBGKL (1910/1920), 22. or.

(18) SKOAKBOAL (1909-1922), 124-125. or.

(19) SKOAKBOAL (1909-1922), 127-128. or.



Bide berri honetan lehen urratsa izan zen, lehentxoago aipatu dutan Segundo Ibaibarriaga Santa Klara Kofradiako lehendakariak 1912ko urtarrilaren 20an Felix Lekuona San Pedro kofradiako lehendakariari igorri zion gutuna.

Komunikapen honetaz eta geroztik Kofradia bien artean eman ziren harremanetaz luze eta zabal jardungo naiz «III. Kofradia biak bat egiteko bidean, ondarrorrek igotzen saiatu ziren «ALDAPAK» kapituluak, «2. Santa Klara kofradiak, bere kabuz egindako saiakerak 1911ko azaroaren 5eko Batzar Nagusia geroztik» atalean.

Kapitulu honetan ikusi dugu Santa Klara kofradiak ZEHARKAKO estrategia erabili zuela, Kofradia biak bat egitea lotzeko asmoz.

Baina baziren uste zutenak Kofradien banaketa hark herritarren eguneroko bizimodua hondamendira zeramala. Beraz, kofradia biak bat egitearen arazoari adarretatik heldu behar zitzaiola.

Hauen ustez, arazoa bera gordin-gordin planteiatu behar zitzairen Kofradia bie. Beste hitz batzuetan, Kofradia biak bat egitea mendi tontor garai batetara igotzea zen, eta merezi zuen bertara igotzen saiatzea bide zuzenetik. Aldapan gora, hain zuzen.

### III.- KOFRADIA BIAK BAT EGITEKO ASMOZ ONDARROARRAK ALDAPAN GORA

Atal honetan aipatuko ditudan saiakera batzuk duela hiru urte idatzi nuen «ARRANTZALEEN KOFRADIA BI ONDARROAN (1909-1927). Lehen atala: Kofradien banaketa: gertaera eta ondorioak» artikuluan ere azaldu nituen. Kofradia bien arteko apurketaren gaia azaltzeko lagungarri izan zitzaidan <sup>(20)</sup>.

Baina, artikulua hartan azalduko saiakera haiek berriz aipatzea lagungarri izango zaigula uste dut Kofradien elkartzeko prozesuaz ikuspegi orokor bat izan dezagun.

Aurrera azaldu dut nola San Pedro kofradia sortu eta urte berean hasi zirela kofradia biak elkartzeko saiakerak.

Bizkaiko Gobernari Zibila bera izan zen lehen saiakerak bultzatu zituen.

## 1. Bizkaiko Gobernari Zibilak bultzatutako saiakerak.

Bizkaiko Gobernari Zibila bera ere pertsonalki saiatu zen Kofradia biak elkartu zitezela. Bi saiakera egin zituen. Bata, 1909. urtean, apurketaren urte berean. 1910. urtean, bestea.

### • Bizkaiko Gobernari Zibilaren Lehenengo Saiakera (1909. ekaina)

Lehenengo saiakera 1909ko maiatzaren 24an Ondarroan gertatu zen itsas hondamendiaren kariatara egin zuen. Hondamendi hartan galdu ziren 13 ondarror errukarrien etxekoei <sup>(21)</sup> Espainiako Erregearen izenean dolumina ematera eta Espainiako Gobernuaren dirulaguntza heleraztera etorri zen Ondarroara

Bidaia honek eskaintzen zion abaguneaz baliatuz, Gobernari Zibilak arren erregutu zien Kofradia bietako lehendakariari ahalegin berezia egin zezatela banatu berri ziren kofradiak elkartzeko. Ondarroan ez zitezela errepika Bermeoko Arrantzaleen Kofradia bien artean gertatzen ari ziren haserre eta istiluak <sup>(22)</sup>.

Gobernari Zibilaren eskaria berehala bete zen Ondarroan. Bi kofradiek gutunak igorri baitzizkien elkarri 1909ko ekainaren 18an eta 20an. Gutun horietan, berriz elkartzeko borondatea agertu eta gero, kofradia bakoitzak bere baldintzak azaltzen zituen <sup>(23)</sup>

Kofradia biek elkarri igorritako gutunetatik zilegi bekit hemen hitzez-hitz azaltzea San Pedro Kofradiak Santa Klarari 1909ko ekainaren 20an eman zion erantzunaren pasarte bat.

San Pedro kofradiaren gutunaren pasarteak honela dio:

*«Que, en atención de las respuestas expuestas en su comunicación referida, no hay inconveniente a unirse, formando una sola asociación, siempre que por la de Santa Clara se acepten las bases siguientes: 1ª) Que, como es de justicia, se abone íntegramente al farmacéutico la cantidad que por el suministro de servicios prestados tiene demandada judicialmente. 2ª) Que los gastos originados por esa Cofradía en virtud de los litigios promovidos por la misma desde 1º de Mayo último á cargo y cuenta del peculio y cuenta particular de sus agremiados, y 3ª) Que, en lo sucesivo, la duración y gestión de la*

(20) Ikus «Ondarroa 2009», 16-22, eta 26-28. or.

(21) Hauen artean zegoen Polikarpo Ajarrista Alzibar, Patxi Etxaburu Ajarrista, Ondarroako Historia Zaleak kultur elkarteko lehendakariaren aitona.

(22) Bermeoko Arrantzaleen Kofradia bien artean gertatutako haserre eta istiluen ondorioaz, hainbat bermeotar arrantzale espetxean zeuden garai hartan.

(23) Kofradia biek elkarri igorritako gutunen eta, ondoren, bien artean izandako harremanen berri zehatza aurkituko duzu Santa Klara Kofradiako Bilera Agirien Liburuan (1909-1922), 58-59 eta 62-63. orrialdeetan.

Dagoeneko ohartu zera, irakurle, nire idazlan honetan azaltzen ditudan San Pedro kofradiari dagozkion hainbat datu Santa Klara kofradiako agiri liburuetatik jaso dirudala. Zoritxarrez, ez dut lortu San Pedro kofradiako inolako agiririk edo dokumenturik eskuratzerik, saiatu arren.



*Cofradía sea llevada por individuos que hoy forman la de San Pedro. Lo que tengo el honor de poner en su conocimiento para su resolución en el término preciso de dos días. Dios guarde a Ud. muchos años. Ondarroa, a 20 de Junio de 1909. El Presidente: Felix de Lecuona»* <sup>(24)</sup>.

Pasarte honetan San Pedro Kofradiak jartzen zituen baldintzen ondorioz etorriko zen Kodradia bien arteko harreman-negoziaketan apurketa, geroago ikusiko dugunez,

Gutun honen azken aldiak jartzen den bi eguneko epeak badu bere aurrekaria. Santa Klara kofradiak berak ere bere gutunari erantzuteko bi eguneko epea jarri zion San Pedro kofradiari.

Goiko pasarte honetan argiro nabarmentzen zaigu nolako eragina izan zuen Santa Klara Kofradian 1909ko maiatzaren 13an gertatu zen apurketan Juan Antonio Garramiola botikarioaren arazoak.

San Pedro kofradiak jartzen zituen baldintza hauek ez zituen onartu Santa Klara kofradiak. Are gehiago, San Pedro kofradiak jartzen zituen baldintzen berri eman zenean, Santa Klara kofradiak 2009ko ekainaren 21ean egin zuen Ezohiko Batzar Orokorrean, bertan zeuden bazkideak asaldatu egin ziren. Nola asaldatu ere! Euron haserrea eta ez-adostasuna «en grandes voces y gritos de sublevación» adierazi baitzuten. <sup>(25)</sup>

Nabari denez, Gobernari Zibilaren lehen saiakerak, bi kofradiak bat egitea barik, bien arteko etendura sakontzea besterik ez zuen lortu.

#### • Bizkaiko Gobernari Zibilaren Bigarren Saiakera (1910/1911).

Bizkaiko Gobernari Zibilak, hala ere, ez zuen amore eman. Urtebete geroago, 1910eko ekainaren 2an, Bizkaiko Gobernari Zibilak deituta, Kofradia bien lehendakariak eta hauen abokatuak Bilbon bildu ziren Bizkaiko Gobernari Zibilarekin.

Bilera honen helburu eta erabakiak ezagutzen ditugu Santa Klara kofradiak 1910eko ekainaren lauan egin zuen ezohiko bileraren bidez. Anjel Aristondo Egaña izan zen bilera honen buru. Baina bilera hura egitan zuzendu zuena Segundo Ibaibarriaga Zelaia izan zen. Beronek irakurri baitzuen bi egun lehenago Ondarroako Kofradiek Bizkaiko Gobernari Zibilarekin egindako batzarraren berri ematen zuen agiria <sup>(26)</sup>.

Segundo Ibaibarriaga Zelaia irakurritako agiriak honela zioen hitzez hitz:

*«En la reunión tenida por los Señores Presidentes de ambas Cofradías, ante el Sr. Gobernador, y los Abogados de dichas entidades, abundando todos en los mejores deseos de llegar á una concordia que para siempre evite las discusiones entre convecinos, se acordó: que se convoque á la mayor brevedad posible á Junta General a todos los asociados de ambas entidades, con objeto de recabar de éstas se autorice a sus respectivos Letrados Señores Ocio y Tejero, para que solucionen las cuestiones que actualmente existen entre las dos Cofradías, y al propio tiempo se invite á los farmacéuticos Señores Garramiola y Onaindía, por parte de la Cofradía de San Pedro y Santa Clara respectivamente, para que autoricen también a los mencionados Letrados, para que resuelvan á la par lo que á ellos pueda afectar en esta solución que amistosamente se intenta en lo referente á cuestiones que podían suscitarse sobre asuntos de los Boticarios»* <sup>(27)</sup>.

Bilera agiri honek argi eta garbi adierazten digu Bilbon bildu ziren Gobernari Zibilarentzat eta Santa Klara eta San Pedro kofradietako lehendakariarentzat, kofradia biak elkartzeko, nahitaezkoa zela botikarioen arazoa konpontzea, honetarako kofradia bietako abokatuei podere guztiak emanaz.

Bilboko bileran hartutako erabakiak betez, berehala hasi ziren Kofradia bien arteko negoziaketak Ocio eta Tejero abokatuen bitartez. Ocio jauna izan zen San Pedro kofradiako abokatua. Santa Klarakoa, Manuel Tejero.

Bi abokatuen bidez burutu ziren negoziaketa haiek 1910ean hasi eta 1911 ia urte osoan luzatu ziren. Epe honetan Segundo Ibaibarriaga Zelaia bera izan zen Santa Klara kofradiako lehendakaria <sup>(28)</sup>.

Kofradia bien arteko harreman-negoziaketa haiek porrot egin zuten zoritxarrez. M. Tejero abokatuak berak honela jakinarazi zien bere jostioaren porrota Santa Klara kofradiako arduradunei 1911ko urriaren 31n igorri zien gutunean:

*«Gestioné, como alguno de Uds. no ignora, que la Cofradía de San Pedro diera una contestación categórica a la proposición que últimamente les hacíamos para solucionar las diferencias existentes entre ambas entidades; mas á pesar de mi*

(24) SKOAKBOAL (1909-1922), 63. or.

(25) SKOAKBOA, 1909.06.21. SKOAKBOAL (1909-1922), 64. or.

(26) Bizkaiko Gobernari Zibilak Santa Klara kofradiaren ezhokiko bilera hura deitzeko ahalmena ere eman zion Segundo Ibaibarriaga Zelaia berari. IKus SKOAKBOAL (1909-1922), 91. or.

(27) SKOAKBOAL (1909-1922), 92-93. or.

(28) 1910eko azaroaren bian Santa Klara kofradiak egin zuen Urteko Batzar Orokorrean aukeratu zuten Kofradiako lehendakariatzat Segundo Ibaibarriaga Zelaia.





Potinak 1917an. Barreanean Haitz Nagusia

*insistencia cerca del Sr. Ocio, representante aquí de la de San Pedro, no he conseguido que dicha Cofradía contestase ni en pró ni en contra de nuestra proposición».*

Gutun hau Santa Klara kofradiak 1911ko azaroaren 5ean egin zuen Urteko Batzar Orokorrean irakurri zen <sup>(29)</sup>.

Batzar Orokor berean M. Tejero abokatuak Santa Klara Kofradiari itzuli zizkion honek emandako podere-agiriak. Honela amaitutzat eman zen Santa Klara Kofradia eta M. Tejero abokatuaren artean zegoen kontratua.

Egoera honen aurrean, Batzar Orokorrek erabaki zuen Santa Klara Kofradia bera, zuzenean, jarriko zela San Pedro Kofradiarekin harremanetan, bien artean zeuden arazoak bideratzeko.

Honetarako, bilera berean erabaki zen Kofradia bakoitzak komisio bat izendatuko zuela. Komisio bakoitzak kalkulatu zuen zenbat ordaindu behar zion San Pedro Kofradiak Santa Klara bion atean zeuden arazo ekonomikoak konpontzeko. Santa Klara kofradiak ez zuen besterik nahi: «... se dé fin a este enojoso asunto» <sup>(30)</sup>

### Arazo politikoak Santa Klara kofradia eta J. A. Garramiolaren arteko auzian

1903. urtean, «Euskal Lagun-Artea Elkarte» izenarekin ireki zen Ondarroako Batzokiak eragin zuzena izan zuen Ondarroako Udalean. Geroztik, Ondarroako Udalean nabarmenduko zen abertzaleen eta tradizionalisten arteko jarkiera giroa. Datu bat soilik.

1905eko azaroaren 11n egin ziren udal hauteskundeetan hautatuak izan ziran bi zinetotzi tradizionalistek, euren jarrera politikoa azaltzeko, maiz erabili zituzten «Concejal ... de la cuerda y significación españolista», «Concejal Españolista», «Concejal de la Minoría Españolista» esaldiak <sup>(31)</sup>. Ordura arte Ondarroako Udalean inoiz erabili ez ziren esaldi hauek, zoritxarrez, hurrengo urteetan Ondarroako Udalaren eguneroko gestioan abertzale eta tradizionalisten artean gertatuko ziren jarkiera gogorak iragartzen zizkiguten. Halaber, 1906/1909. urteetan zenbat aldiz aurrez-aurre aurkitu ziren -zenbait kasutan bortizki ere J. A. Garramiolaren aldetik-, Segundo Ibaibarriaga alkate abertzalea eta J. A. Garramiola zinetotzi tradizionalista. Urte hauetako hainbat udal bilera dira honen lekuko.

Udalan bizi zen alderdi politiko abertzale eta tradizionalistaren arteko jarkiera-giroa herrira ere hedatu zen. Nola ez, bada! Santa Klara Kofradia bera dugu kasurik nabarmenena.

Hara zer dioskun Jose Maria Etxaburu «Belero» ondarroar idazleak.

*«Eztabaida ta asarreak arrantzaleengan sortu zituan auziak ez eukan politikeagaz zer ikusirik. Baiña gerora kofradia biak politikatu egin ziran. Santa Klara'koak eusko abertzaleak ziran; eta espainiar eta errege-zaleak San Pedro'koak» <sup>(32)</sup>.*

Izan ere, Kofradia biak 1909. urtean banatu aurretik ere, arrantza-ontzi jabe abertzaleek Zubi Zaharraren inguruan lotzen zituzten bitartean, tradizionalistenak, ordea, Artibai ibaian bertan baina Kantoipe eta Kafeko Atze aldean lotzen hasiak ziren.

Baina, 1909-1910. urte haietan herrian gertatu ziren jazoera batzuk sakondu egingo zuten apurketa hura.

**Bizkaiko Gobernari Zibilaren Bigarren Saiakera (1910/1911)** atalean azaldu dudanez, Bizkaiko Gobernari Zibilak deituta, 1910eko ekainaren 2an Bilbon bildu ziren Bizkaiko Gobernari Zibila bera eta Ondarroako Kofradia bietako ordezkariak. Bileran Kofradia biak bat egiteko zenbait erabaki ere hartu zen. Batzuk, J. A. Garramiola botikariari zegozkionak.

(29) SKOAKBOAL (1909-1922), 125-126. or.

(30) SKOAKBOAL (1909-1922), 127-128. or.

(31) Ikus OUOBAL (1903-1906), 308., 313. eta 326. orrialdeak eta OUBBAL (1890-1914), 147/148. or.

(32) Jose Maria Etxaburu Etxaburu, *Ondarroako kontuak*, Auspoa Liburutegia, 106. zkia. 103. or. Jose Maria Etxaburu Etxaburuk, mutikotxoia izan arren, Kofradien apurketa gertatu zen urte haietan, oso gertutik jarraitu zuen Kofradia bien arteko prozesu guztia, arrantza-ontzientzat belak edo oihalak egin eta konpontzen zituen-eta bere familiak. Hau dela-eta, «Belero» edo «Beleroneku» deitzen zitzaion Ondarroan.



Gobernari Zibilak nori emango erabaki haiek bideratzeko ardura?

Nori? Bada, Segundo Ibaibarriagari. Urte batzuk aurrera, Ondarroako kontzejuan J. A. Garramiolarekin hainbeste eztabaida eta borroka izen zuen alkate-ohiari berari.

Are, 1910. urte berean, azaroaren bian egindako Ohiko Batzar Nagusian Santa Klara Kofradiako lehendakari hautatua izan zen Segundo Ibaibarriaga Zelaia bera. Baita berhautatua beste urtebeterako hurrengo urteko Batzar Nagusian.

Hura koinzidentzia deigarria! Hura lehegailua!

Ondarroako Udaleko enfrontamenduetan protagonista izan ziren pertsona berdinak, biok aurrez-aurre, Santa Klara eta San Pedro kofradiak elkartzeko harremanak hasi ziren urteetan.

Koinzidentzia honek noraino ez ote zituen nahastuko eta aldrebestuko Kofradia biak bat egiteko hurrengo urtetan gerta ziren harremanak!

Segundo Ibaibarriaga Zelaiak, behintzat, Bilboko bilera egin eta bigarren egunean, 1910eko ekainaren 4an, bete zuen Bizkaiko Gobernari Zibilak emandako eginkizuna. Santa Klara kofradiako Batzar Orokorrean irakurri zuen Bilboko batzarreko agiria. (ikus 35. orrialdea)

## 2. Santa Klara kofradiak, bere kabuz egindako saiakerak 1911ko azaroaren 5eko Batzar Nagusia geroztik.

33. orrialdean azaldu dudanez, Santa Klara kofradiak 2011ko azaroaren 5ean egin zuen Batzar Nagusian erabaki zuen San Pedro kofradiarekin ordura arte zeraman estrategia aldatzea. Aurrerantzean, Santa Klara kofradiak berak, zuzenean, aurrera eramango zituen San Pedro kofradiarekin harremanak, bien artean zeuden arazoak bideratzeko<sup>(33)</sup>.

Bide berri honetan lehen urratsa izan zen, lehenago ere aipatu dutan Segundo Ibaibarriaga Santa Klara Kofradiako lehendakariak 1912ko urtarrilaren 20an Felix Lekuona San Pedro kofradiako lehendakariari igorri zion komunikazioa.

Komunikazio honek zera zioen hitzez-hitz:

*«Muy señor mio: En vista de que, a pesar del tiempo transcurrido, nada práctico se ha conseguido al consabido fin de ultimar las diferencias que con motivo de las deudas pendientes contraídas por elementos de ambas Cofradías y se hallan subsistentes, me permito dirigirme a V. por la presente y con el más saludable y propósito de aunar dificultades que podrían acarrear entre gente que constantemente se ven necesitados de mutuo y común auxilio;*

*para manifestarle que; es de todo punto necesario el que, de una vez para siempre se proceda a practicar la consabida liquidación, para así poder dar a cada uno lo suyo, evitando contiendas y gastos judiciales que consecuentemente repercuten en animosidades personales estas que, se hallan en pugna con la razón y la equidad, como debe U. comprender.*

*Así que, no es de dudar el que, dados los buenos propósitos que nos animan, y debe animar a toda persona honrada para conseguir cosa tan justa y equitativa, mereceré de V. una contestación satisfactoria al consabido fin, indicándome al mismo tiempo si para el día 30 ó 31 de este mes de Enero podemos celebrar una reunión en un local independiente de nuestras Cofradías.*

*Esperando me acuse recibo de esta carta la envío duplicado.*

*De V, su affmo S. S. Q. B. S. M.*

*El Presidente de Santa Clara.*

*Segundo Ibaibarriaga».*

*Hay un sello que dice Cofradía de Mareantes de Ondárroa.*

*Recibí la duplicada: Ondárroa, 19 de Enero de 1911. El presidente de la Cofradía de San Pedro. Felix Lekuona».*

Bost egunera erantzun zion Felix Lekuona, San Pedro kofradiako lehendakariak:

*«En contestación a su atta fecha de 20 del actual tengo el honor de manifestarle que, reunida la Comisión Administrativa de esta Asociación, ha acordado expresar a V, que esta entidad no se halla ligada en lo más mínimo con la de su digna Presidencia, ni pesa sobre la misma ninguna de las obligaciones que V. indica, siendo por tanto improcedente su proposición. Lo que le comunico a los efectos oportunos. Dios guarde a Ud. muchos años.*

*Ondárroa, 25 de Enero de 1912.*

*El Presidente de la Cofradía de San Pedro.*

*Felix Lekuona.*

*Sr. Presidente de la Cofradía de Santa Clara de Ondárroa.*

*Hay un sello que dice: Nueva Cofradía de Mareantes de San Pedro de Ondárroa»<sup>(34)</sup>*

Formalismoz beteriko komunikapenak bata zein bestea. Hein berean, Kofradia bien artean zegoen apurketaren lekuko nabarmenak ere, biak.

(33) SKOAKBOAL (1909-1922), 126-128. or.

(34) Komunikapen bi hauek aurki dezakezu SKOAKZBGKL (1910/1920), 22-23. or. eta 24. or. hurrenez hurren.



Hala ere, komunikapen horiek dira, batetik, bi kofradiek bat egiteaz elkarri zuzentzen zizkien lehenak, eta, bestetik, gai horri buruz bakoitzak zuen jarrera nabarmentzen digutenak.

Arrazoi honengatik, hain zuzen, komunikapen biak oso-osorik jarri ditut hemen.

San Pedro kofradiak bere komunikapenean agertzen zuen jarreraren aurrean, Santa Klara Kofradiaren Zuzendaritza Batzordea bildu zen otsailaren 21ean. Arrantzaleek pairatzen ari ziren egoera larria zela-eta, arrantzaile familiariek «diru-partiu» eskatzen ari ziren <sup>(35)</sup>.

Baina ezinezkoa egiten zitzaion Santa Klara kofradiari, «...en vista de la negativa contestación que habían dado los agremiados de San Pedro», Santa Klara kofradiako lehendakariak jakinarazi zienez <sup>(36)</sup>.

Egoera honen aurrean, eta kofradiako «Hartzekodunek» errediturik jaso gabe jada bi urte zeramatela kontuan hartuz, «hartzekodun»en batzarra berehala deitzea erabaki zen. Baita, bilera honetarako deiak biharamunean bertan banatzea erabaki ere.

«Hartzekodun»en bilera hau hurrengo larunbatean bertan, otsailaren 24an, egin zen Ondarroako Ualetxean. Bertan, «proposamen» batzuk onartu ziren «para llegar a solucionar satisfactoriamente las diferencias existentes respecto al reconocimiento de las deudas pendientes de pago el día 13 de Mayo de 1909». Baita «hartzekodunen» komisiio bat ere izendatu zen. <sup>(37)</sup>

Bilera honekin fronte berri bat martxan jarri zen kofradia biak bat egitearen aldeko ahaleginetan. «Hartzekodun»en komisiio hau, hain zuzen, protagonista bilakatuko zen hurrengo egunetan Kofradia biak harremantetan jartzeko egin ziren jesticioetan.

Honela ondorioztatzen da, nire ustez, Santa Klara kofradiako Lehendakariak martxoaren 20an Manuel Telleriari igorritako gutunetik jaso ditudan lerro hauek: «*Enterada la Comisión de Administración de la Cofradía de Santa Clara.... de las bases presentadas por Ud. en nombre y representación de los elementos disgregados de aquella el día 13 de mayo de 1909 a la Comisión de Acreedores*». <sup>(38)</sup>

Izan ere, martxoaren lehen hamabostaldian urrats sendoak eman zituzten Kofradia bien ordezkariak biltzeko.

«Hartzekodun»en komisiioaren laguntzarekin lortu zen bi kofradiek onartzea balizko bileraren lan ildo eta kofradia bakoitzak bilera horretan parte hartuko zuten ordezkariak izendatzea.

Bakarrik falta zen bilera horren eguna, ordua eta tokia izendatzea. Eta hau ere berehala egin zen. Martxoaren 28an Santa Klara kofradiak jakinarazten zion San Pedrokoari «... no tiene inconveniente alguno en acudir el sábado a las dos horas de la tarde a los salones de la Casa Consistorial de esta villa, en donde contamos con un salón amplio y podemos celebrar esa reunión con absoluta independencia».

Hau guztia islatzen zaigu Santa Klara kofradiak San Pedrokoari martxoaren 20an eta 28an igorri zizkion komunikazioetan. <sup>(39)</sup>

Martxoaren 30erako berbatuta zegoen eta hain amesten zen Kofradia bien ordezkarien bilera hura ez zen gauzatu. Honen ordeztu, «en un sitio de Arta» elkarrizketatu ziren Segundo Ibaibarriaga eta Jose Maria Goitia (Santa Klara kofradiako ordezkariak) eta Manuel Telleria eta Fernando Badiola (San Pedro kofradiako ordezkariak). Paulino Urresti, «Hartzekodun» ordezkaria ere han zen.

Elkarrizketa hark inolako aurrerapiderik ez zuen ekarri kofradia biak bat egiteko bidean «por motivo de haber manifestado los de San Pedro la reclamación del pago del Sr. Garramiola». <sup>(40)</sup>

San Pedro kofradiako ordezkariak lotsagabeki atzera egin zuten, aurreko urtean mahaiaratu zuten arazo bera berriz planteiatu baitzuten.

Biharamunean, Santa Klara kofradiako «hartzekodun»en bilera egin zen, bezperan gertatuaren berri emateko. Ordura arte egindako ahaleginen porrotaren aurrean, «hartzekodun»ek ez zuten amore eman. Alderantziz. Bide berean jarraitzeko hainbat erabaki hartu baitzituzten.

Hartutako erabakien artean zegoen, dudarrik gabe, betiko bideari jarraituz, San Pedro kofradiari behin eta berriz gogoratzea «la conveniencia de que sean reintegradas en su parte proporcional, a la entidad que tengo el honor de presidir; las cantidades que en distintos conceptos tiene abonadas a Médicos, señoero, atalayero y clero parroquial desde el día de la constitución de la Nueva Cofradía de San Pedro hasta la fecha». <sup>(41)</sup>

(35) «Diru-partiuk» sarritan egin ohi ziren Santa Klara kofradian neguan eta arrantza gabeziak gertatzen ziren garaietan.

(36) SKOAKZBBAL (1900-1912), 80. or.

(37) SKOAKZBBAL (1900-1912), 25. or.

(38) SKOAKZBGKL (1910/1920), 26. or.

(39) SKOAKZBGKL (1910/1920), 26. eta 27. or.

(40) SKOAKZBBAL (1900/1812), 85. or.

(41) SKOAKZBGKL (1910/1920), 30. or. Bertan aurkituko duzu Santa Klara kofradiak 1912ko maiatzaren 13an San Pedro kofradiari igorri zion komunikapena.





Kordako baporeak arrantzatik heltzear 1910ean.

Are gehiago, Lekeitioko Itsas Aiudantearen itzalaz baliatzeko inolako eragozpenik ez zuen izan. Honela, Lekeitio Itsas Aiudanteak 1912ko uztailaren 1ean eginiko ohar bati jarraituz, uztailaren 2an bertan Segundo Ibaibarriaga lehendakariak igorri zion San Pedro kofradiari *«la nota de la cuenta de lo satisfecho esta Cofradia de Santa Clara que tengo el honor de presidir, en los conceptos que en élla se expresan, correspondientes desde 3 de Noviembre de 1908 hasta 30 de Junio inclusive del año 1912»* <sup>(42)</sup>.

Santa Klara kofradiako arduradunek, etsi gabe, beti irmo San Pedro kofradiakoei gogorazten Santa Klara kofradia zela euren oinetxea, eta oinetxe honek bazituela hainbat zor ekonomiko, San Pedroko kideek ere hauen erantzule zirelarik, euri zegokien neurrian behintzat.

Azkenean, 1912ko irailaren 28an egin zen kofradia bietako ordezkarien bilera Ondarroako «Comercio» jate-txean. Bertan zen Lekeitioko Itsas Aiudante militarra bera ere, batzarraren gidari lanetan. Bilerako agiria ere beronek jaso eta Santa Klara kofradiari behintzat igorri ziola ziurta dezaket. San Pedro kofradiari ere igorriko zion, kontizu. Santa Klara kofradiak onartu zuen bilera agiria, eta bere onarpenaren berri ere eman zien San Pedro kofradiako arduradunei. <sup>(43)</sup>

Santa Klara kofradiak 1912ko azaroaren 2an eta 13an egin zen Urteko Ohiko Bilera Orokorretan kontu-arrazoiz zehatza eman zuen eginiko gestio hauetaz. <sup>(44)</sup>

Hainbeste gaien artean, azaldu zen irailaren 28an Santa Klara eta San Pedro kofradietako ordezkariak «Comercio» ostatuan egin zuten bilera, Lekeitioko Itsas Aiudante Militarrak jaso zuen bileraren agiria irakurri eta onartu baitzen.

Aipagarri deritzat Bilera Orokorrak erabaki zuela San Pedro kofradiari esijitzea, azaroaren 10a baino lehen, ordain iezaiola Santa Klara kofradiari *«el importe de la cuenta que le tiene presentada por anticipos hechos en concepto de abono de atalayero y señeros, la cantidad de 1.213 pesetas y 80 céntimos»* <sup>(45)</sup>.

Dirukontua hau, urte berean, otsailean, aurkeztuta zeukan Santa Klara Kofradiak San Pedrokoari.

«Hartzekodunak» eta «Censos Historicos» izenekin ezaguna zaigun gaiak, -bilerako gai nagusiaz-, ordea, inolako erabakirik ez zen hartu bileran.

Egia esan, Batzar Nagusi horretan irakurri zen Santa Klara kofradiako bapore jabeen proposamena zor horien amortizaziorako, hain zuzen. <sup>(46)</sup>

(42) SKOAKZBGKL (1910/1920), 29. or.

(43) IKus Santa Klara kofradiak Lekeitioko Itsas Aiudante Militarrari 1912ko azaroaren 13an igorri zion agiria. SKOAKZBGKL (1910/1920), 42. or.

(44) Urteko Bilera Orokorra azaroaren 2an eta 13an egiteak badu bere historia. Azaroaren 2ko bileran 19 gai ezberdin erabili arren, beste hainbat gai erabili gabe geratu zen. Honelakoetan egin ohi zenez, bilera azaroaren 12an jarraitzea erabaki zen. Baina egun honetan behar adina bazkiderik bildu ez zenez, hurrengo egunera atzeratu zen.

(45) SKOAKBOA, 2012.11.02. SKOAKBOAL (1909-1922), 136. or.

(46) Proposamen hau bapore jabeek adostu zuten Santa Klara kofradiako saltokian urriaren 27an egin zuten bileran. Proposamena osorik irakur dezakezu SKOAKBOAL, 1909-1922, 138-139. or.

Bapore jabeen proposamenak, egia esan, bazeukan izan be loturarik «Hartzekodunak» eta «Censos Historicos» delako «Zor Historikoen» gaiarekin, gai honek urteak bazeraman ataskatuta.

Eta Santa Klara kofradiako bapore jabeek -bazkide aberatsenak, jakina,- arazoari irtenbidea aurkitu nahi izan zioten. Azken batean, eurak ere, pertsonalki, pairatzen ari ziren, zegur aski, gaia ataskatutata egotearen ondorioak. Ez ote zeuden eurotariko batzuek une hartan Santa Klara Kofradiak zituen 34 hartzekodunen artean?

Beste kontu bat da baporeen jabeek egindako proposamenak ba ote zeukan loturarik irailaren 28an «Comercio» ostatuan egin zuten bilerarekin. Datu bat. Proposamen hau ez zen aurkeztu Bilera Orokorrean «Comercio» ostatuan egindako bileraren agiriaren barruan edo agiriaren osagarri legez. Are, «Comercio» ostatuan egin zen bileraren agiriaren irakurketa Bilera Orokorrean erabili ziren gaien artean zazpigarren agertzen zaigu, bapore jabeen proposamena, ostera. hamalagarren.

Edonola, Batzar Orokorrek ez zuen onartu bapore jabeen proposamena.

Hor gelditzen da, beraz, oraingoz erantzunik gabe, nire barruan, daukadan galdera: Zer gertatu ote zen «Zor Historiko»en gaiaz «Comercio» ostatuan egin zen bileran? Aurreko lerroetan ikusi dugunez, bilera hura antolatzeke arrazoi eta helburu nagusiak «Zor Historiko»en arazoa konpontzea izan ziren, hain zuzen.

Egia esan, «Hartzekodunak» eta «Censos Historicos» izenekin ezagutzen ziren «zor historiko»en gaia erabili zen Batzar Orokorrean. Halaber, «*Se dio lectura a las cuentas de la situación de esta Asociación, em el día de la fecha, resultando que la deuda que pesa sobre la misma correspondiente a los treinta y tres acreedores asciende a la cantidad de ciento un mil y seiscientos veinticinco pesetas; y de los cuatro zensalistas la suma de nueve mil quinientas ochenta y cuatro pesetas y setenta y cinco céntimos*»<sup>(47)</sup>

Gaurko bileran, beraz, Kofradiako «Zor Historikoen» kontu arazoia eman zen. Are, 1912. urteko «Zor historikoen» kopurua eta 1909. urtekoa ia-ia berdinak ziren. Honek guztiak argi nabarmentzen digu 1912. urtean amaieran, oraindik, bizirik irauten zuela arazoak.

Are gehiago, Bilera Orokor honetan ere irakurri zen jada ezaguna zaigun (ikus 33. or.) 1908ko uztailaren 12ko itxasondamendian galdu ziren arrantzaleen etxeko dirulaguntza eskaria. Familia horiek dirulaguntza horren premian egon arren, mahai gainean geratu zen gaia. Izan ere, familia gaixo haiek bazekiten euren eskariak aurrera ez zutela egiten «zor historiko»en arazoa konpontzeke zegoelako oraindik.<sup>(48)</sup>

Ez da, beraz, harritzeko, Santa Klara kofradiako arduradunek «Zor Historikoak» delako gai hau San Pedro Kofradiako arduradunekin lehenik eta berehala konpondu behar zen arazo larrizat hartzea.

Izan ere, «Zor Historiko» haiek herritarrek, Santa Klara kofradia apurtu baino aurrerago, emandako maileguak ziren.

#### IV.- KOFRADIA BIAK BAT EGITEKO AHALEGINEAN, ONDARROARREK ERABILI ZITUZTEN BIDE ZIDORRAK.

Kapitulu honetan bi eratako «Bide Zidorrak» aipatuko ditut.

Batetik, Kofradia biek eurek, egunerokotasunean sortzen zitzaizkien arazo puntualak konpontzeke egindako bilera eta saiakerak.

Bestetik, herritarren zenbait ekimen eta ekintza.

Azaldu ditzadan biak.

##### 1. Kofradia bien arteko bilera eta saiakera puntualak.

III. kapituluan ikusi dugu nola Santa Klara eta San Pedro kofradiek zenbait saiakera egin zituzten kofradia biak bat egiteko. Baina, kofradia biak bat egitea helburu zuten bilera eta saiakera haiek guztiak porrot egin zuten edo ezerezean geratu ziren.

Baina, herri baten arrantzaleen kofradia bi egoteak, normala denez, arazo franko sortzen zuen eguneroko bizi-moduan.

Batzuek, larriak. Hauetarikoa izan zen jada ezaguna zaigun Kofradia bakoitzak bere «talaxeru» eta «señeru» propioak edukitzeak sortzen zituenak<sup>(49)</sup>.

Besteak, ostera, arazo puntualak ziren. Baina hauek ere euren garrantzia zeukaten.

Arazo puntual hauek konpontzeke asmoz, Santa Klara eta San Pedro kofradietako ordezkariak 17 bilera egin zituzten 1913/1917 urte bitartean (biak barne).

Geroago ere izan zen antzeko bilera eta harremanik, baina maiztasun gutxiagorekin. Aipa ditzadan hemen, kofradia biak bat egin zuten 1920. hamarkadaren lehen urteetan izan ziren batzuk:

• **1920.11.15ean** Santa Klara kofradiak erabaki zuen; «*Segun era el deseo de la Cofradia San Pedro de este puerto, prohibir salir a la pesca del Besugo, toda vez que los señeros no daban llamada*».<sup>(50)</sup>

(47) SKOAKBOAL, 1909-1922, 135. or.

(48) SKOAKBOAL, 1909-1922, 140. or.

(49) IKUS «I.- 1909. urteko apurketaren tamaina» gaia (ikus 29-30 orrialdeak).

(50) SKOAKBAL (1910-1926), 107. or.





• **1921. urtean**, marrokiarren kontra Marrokan gerran ari ziren espainiar soldaduentzat diru-bilketa antolatu zuen Espainiako Armadak. Diru-bilketa horren berri iritsi zen Ondarroako Kofradia bietara. Santa Klara kofradiak zera erabaki zuen: «... *facultar al Sr. Presidente para que, después de consultar con el Sr. Presidente de La Cofradía «San Pedro» consigne la cantidad que crea prudente.*»<sup>(51)</sup>

• **1922.08.17an** Santa Klara kofradiak erabaki zuen: «*Comunicar a la Cofradía San Pedro la determinación tomada por esta Cofradía respecto a Veristain, y rogándole que, atendiendo al acuerdo mutuo de la dos Cofradías sobre estos casos, le suspendan la bola hasta tanto liquide dicha cuenta.*»

Bilera berean beste erabaki hau ere hartu zuen: «*Suscribir con la cantidad de 1.000 pesetas a la suscripción abierta por el Ayuntamiento de esta villa, en beneficio de los familiares de los desgraciados tripulantes que fueron de la lancha San Pedro de este puerto, pertenecientes a la Cofradía San Pedro del mismo puerto.*»<sup>(52)</sup>

• **1925. urtean**, Ondarroa arrantza herria erabat murgilduta zegoen Artapeko paduran kai berria egiteko gestioetan. Ondarroako Udalak aspalditik zeukan Madrilen aurkeztua barran moila berriak egiteko proiektua. Baina onartu gabe zegoen.

Egoera honen aurrean, Ondarroako Udala bera aztertzen ari zen komisioa bialtzea Madrilera. Udalean bertan planteiatu zen egoki litzakeela Kofradia bietako ordeakariak ere parte hartzea komisio horretan.

Udalaren asmo hauen berri eman zuen Paskual Santiso lehendakariak Santa Klarako Zuzendaritza Batzordeak 1925eko urtarrilaren 14an egin zuen bileran. Bilduek aho batez izendatu zuten Paskual Santiso lehendakaria bera, San Pedro kofradiako ordezkariarekin batera, komisio horretan parte har zezan<sup>(53)</sup>.

Santa Klara kofradiaren erabaki hauek irakurritz gero, badirudi kofradia bien arteko harremanak elkartasun giroan bideratzen zirela. Hala nola, bata besteari jakinarazten zizkieten arrantzari zegozkion hartutako erabakiak, arau berdinak ere onartuz zenbait kasutan; kofradia biak elkarrekin parte hartzen zuten zenbait jectiotan; solidaritatea itsas ezbeharretan, nola ez; etabar...

Goian aipaturiko agiri horiek irakurri eta gero, nork esango luke bertan aipatzen diren Santa Klara eta San Pedro kofradia biak aurrez-aurre eta eztabaida bizietan ere murgiltzen zirela zenbait kasutan?

1922. urtean, adibidez, portuko faroleroa, seiñeroa eta talaxeroen arazoa berpiztu egin zen. Nola berpiztu ere! Horren lekuko dugu Paskual Santisok, Santa Klara Kofradiako lehendakariak, San Pedro Kofradiakoari igorri zion gutuna:

«*En contestación al atento oficio de Ud. de 20 de los corrientes, tengo el honor de manifestarle, que esta Cofradía, respetando las medidas de régimen que la de su digna presidencia adopte, vería con la mayor complacencia que los faroleros y señeros de ambas se pusieran en comunicación y acuerdo para que, como hasta aquí, las medidas que se adopten como más convenientes, tengan carácter general y sean obligatorias para todos, ya que los intereses de todos los mareantes, pertenezcan á una ú otra Cofradía, son idénticos, y de la dualidad de órdenes solo confusión y conflictos pueden derivarse.*»

*Y por lo que se refiere al nombramiento del atalayero, aunque esta Cofradía podría alegar fundados motivos de preferencia por sus derechos sobre el edificio de la Atalaya, está conforme en nombrar la comisión que la de su digna presidencia propone, para que las dos representaciones de las dos cofradías resuelvan lo más acertado. Pero no hay que dejar se olvide que la faéna aún muy reciente realizó la Cofradía de San Pedro y se conformó con la pretensión la de Santa Clara, que el pago de los gastos de las Comisiones se hiciera en proporción de los asociados de cada Cofradía y no a medias, como se venía haciendo; y es natural que la misma proporción que para las cargas se guarde también para los derechos, y por tanto para el número de comisionados y votos.*

*Dios guarde á U. muchos años.*

*Ondárroa, 22 de Noviembre de 1922.*

*El Presidente Pascual Santiso.*

*Sr. Presidente de la Cofradía de San Pedro.*

*Ondárroa.*<sup>(54)</sup>

Liskar hau -faroleroena, konkretuki-, Bizkaiko Arrantzaleen Kofradien Federazioaraino ere iritsi zen, Federazioko bilera baten aztertu zelarik gaia. Honen lekuko dugu Pedro Zufia, Santa Klara kofradiako lehendakariak Bizkaiko Kofradien lehendakariari igorritako gutuna:

*18 de Diciembre de 1922.*

*Sr. D. Pedro Zufia*

*Bilbao.*

*Muy señor mio y amigo: El asunto de faroleros de estas Cofradías que había motivado la última reunión de la federación, ha quedado solucionado... Esta Cofradía, poniendo por encima de sus intereses económicos, la defensa de las vidas de los marine-*

(51) SKOAKZBBA 1921.11.16. SKOAKZBBAL (1910-1926), 125. or.

(52) SKOAKZBBAL (1910-1926), 145-146. or.

(53) SKOAKZBBAL (1910-1926), 193. or.

(54) SKOAKZBGKL (1920/1926), 55. or.



*ros, que á su juicio peligran con el desorden que hoy reina en las entradas y salidas en este puerto, ha resuelto suspender por ahora el sobre de la cuota que se ha tomado como pretexto para promover este conflicto; pero con el convencimiento de que se somete a una decisión totalmente abusiva é injusta para evitar mayores males; y haciendo constar que, lejos de enajenar el derecho de la Cofradía de Santa Clara á regularse dentro de las leyes con absoluta independencia, se lo reserva integramente, y de modo especial, el que le asiste para imponer cuotas a sus asociados cuando la Junta General lo crea conveniente.*

*Es cuanto le debo manifestar:*

*Suyo affmo s.s.q.e.s.m.*

*El Presidente. Pascual Santiso* <sup>(55)</sup>,

Kofradia bien artean sortu zen liskar honen hasieran omen zegoen «el sobre de la cuota» delakoaren edukia. «El sobre de la cuota» hau ez ote dago lotuta San Pedro Kofradiak 1922ko azaroaren lehen egunetan Santa Klara kofradiari igorri zion komunikapenarekin?

Halaber, komunikapen honetan San Pedro kofradiak hiru proposamen egiten zizkion Santa Klara kofradiari:

*«1º Notificar mutuamente ambas Cofradías las altas y bajas de sus agremiados, con el fin de llevar un registro fijo de socios de cada Cofradía. 2ª Que por esa Cofradía (Santa Klaraz ari da) sea suprimida la cuota mensual que a los socios ausentes viene cobrando y que sean devueltas las cobradas hasta la fecha a los mismos, y 3º. Que en lo sucesivo los gastos devengados mancomunadamente por las dos Cofradías se liquiden en proporción al número de sus agremiados»* <sup>(56)</sup>.

Santa Klara kofradiako Zuzendaritza Batzordea ados agertu zen 1. eta 3. proposamenekin. 2. proposamenari dagokionez, ordea, «*acuerdan no tomar en consideración, alegando que esta Cofradía tiene establecida la cuota no solamente para los que no prestan sus servicios en embarcaciones de la misma Sociedad, sino para todos los socios en general, hasta para los que trabajan en tierra; pues era lo más justo para toda la Sociedad tener una cuota determinada para todo socio ausente, siendo ésta la forma más adecuada para saber el número fijo de los socios que tiene cada Sociedad*» <sup>(57)</sup>.

Badirudi San Pedro Kofradiako arduradunek ez zute-  
la ondo hartu Santa Klara kofradiakoek euren proposamena ez onartzea. Are, hain asaldatu ziren non, talaxeruen eta seiñeruen arazoa konpontzeko, 1912. urtean, bi urte luzatu ziren negoziaketan ondoren sinatu zen akordioa bera ere <sup>(58)</sup> ainkaz gora jartzeraino iritsi ziren.

Gertaera honek argi eta garbi nabaritzen digu Santa Klara eta San Pedro kofradia biak, 1920ko hamarkadaren lehen urteetan, elkarrenganako begirunez eta, zenbait kasutan, elkarlanean ere jardun arren, edozein unetan gerrako aizkora eskuetan hartu eta gerrarako prest zeudela.

Bake itxura azalean, baina mesfidantza sakonean, beraz.

Hara, adibidez, nolako erabakia hartu zuen Santa Klara kofradiak 1923ko maiatzaren 25eko bileran:

*«Acuerdan dirigir a la Cofradía de Fuenterrabía pidiendo informes a cerca de los rumores que existen de que la Cofradía de San Pedro de este puerto les ofreció a aquella Cofradía ciertas ventajas a las embarcaciones que arribasen a éste a vender pesca».* <sup>(59)</sup>

1920ko hamarkadaren lehen urte haietan Santa Klara eta San Pedro kofradien arteko harremanak, ur-gaínean, nolabaiteko normalkuntzarako bidean zihoazela zirudien arren, ur-sakonetan, ordea, bazebilen bi kofradiak astintzen zuen olatu zakar eta maltzurrik.

## 2. 1925. eta 1926. urteetako Estropadak. <sup>(60)</sup>

XIX. gizaaldaren bigarren zatian hainbat estropadetan parte hartu zuen Ondarroako traineruak. Baita garaipen entzute-  
tsuak lortu ere. Honen lekuko ditugu estropada haietan irabazitako hainbat bandera. Bandera hauek, egun, Santa Klara kofradian gordetzen dira.

Bazirudien Ondarroako traineruak 1902. urtean Bilbon irabazi zuen estropadarekin amaitu zela Ondarroako arraunlarien ibilbide arrakastatsua. Baina...

### 1925eko Estropadak.

Estropadaren gaian sartu aurretik, interesgarri deriztat aipatzea Augustin Zubikarai herriko historiaren iker-  
tzaile eta idazle opetsuak 1925. urteko Ondarroaz eskaintzen dizkigun zenbait jakingarri <sup>(61)</sup>.

(55) SKOAKZBGKL (1920/1926), 60. or.

(56) SKOAKZBBAL (1910/1926), 157. or.

(57) SKOAKZBBA, 1922.11.10. SKOAKZBBAL (1910/1926), 157/158. or.

(58) IKus artíkulu honen «1. 1909. urteko Apurketaren Tamaina» atala, azken aldera.

(59) SKOAKZBBAL (1910-1926), 168. or.

(60) Nire idazlanaren atal honetan, sarrítan emango diot ahotsa Jose Maria Etxaburu Etxaburu «Kamiñazpi», ondarroar idaz-  
leari. Lanbidez kontserba-lantegiko «latero»a izan zen bitzta guztian. Hala ere, historialari ikasketarik egin gabe, bere herriko historia idatzita utzi zigun bere eskuetan zituen agiriak eta bere eta herritarren oroitzapenak tartekatuz. Agur eta ohore zuri, «Kamiñazpi». Ondarroako historia zaleok AITZINDARI zaitugu.

(61) A. Zubikarai, *Egutegia 1976*, Ondarroa.





**Portugalete, 1925.** Estriborrear: Salvador Aldanondo, Manuel Osa, Kasimiro Burgoa, Isidro Osa, Lorenzo Uribe, Angel Aulestia, Modesto Arakistain. Aborrear: Agustin Arantzamendi, Bixente Akarregi, Jazinto Pello Azpiri, Alejandro Urrosolo, Jose Maria Iturriza eta Jose Beitia. Patroi: Junbaiste Beitia.

• «1925 urteko ikasaldietan (inkestetan) ikusten denez, Ondarroan ez egoan arrantzalerik bere etxe-jaube zanik» (Ekainak 7)

• «Arrantzalietan etxe errentak, 1925'n, batez beste 200 pezeta ordaintzen ziran urteko» (Ekainak 8)

• «1925'n Santa Klara kofradian 560 lagun egozan eta San Pedro'n 390» (Apirilak 19)

• «1925'n hemen saldutako arrantzuak: Santa Klara kofradian 2.717.704 kilo eta San Pedro'n 1.507.930 kilo» (Apirilak 22).

• «1925 urtean, milla bizilaguneko ogei ilten ziran gure errian» (Maiatzak 21).

Honelakoa zan Ondarroa Arrantza Herria 1925. urtean, Aurrera kirol klubak estropadetan berriz parte hartzeko trainerua prestatzea erabaki zuenean.

Eman diezaiodan hitza Jose Maria Etxaburu «Kamifiazpi»ri:

«1925'garren urtean, «Club Deportivo Aurrera» sortu ta laster, Portugalete'n estropadak zirala-ta, arako gertuten asi zan.

Ondarroan kirola indartzeko ipiñi zan bazkuan. Aurrera'ko bazkide ziran arrantzaleak, orduan esku bateko atzaparrakaz errez zenbatzeko ainbat ziran; eta treiñeruan asi ziran geienak, erramua bein be eskuetan artu bakoak.

Lenengoan jendeak aintzat be ez zituan artu, laster geratuko zirala ta. Baiña, benetan ziarduela konturatu zanean, estutu egin zan arrantzake jendea, estropada kontuan ain kondaira ona eukan erria lotsagarri lagako ebela liortar areik eta. Ta

Kofradia arazoan sartu zan, eta arrantzaleekaz talde bat egin eban. Ez zan orduan errian egin eitekean talderik onena. Baiña astirik be ez egoan eta estropadea irabazteko naikoa zan. Zazpi segundogaz irabazi eban lenengo estropadea.

Lenengo estropadea irailaren 20an jokatu zan, eta olan geratu ziran: Ondarroa, 14'56; Zierbana, 15'03; Sestao, 15'10; Portugalete, 15'20; Santoña, 15'25.

Ondarrutarrak, lenengo tandan, azken geratu ziran biakaz jokatu eban. Orregatik, egin ebanak balio andiagoa eukan.

Orduan, bigarren igandean, lenen gertatutako biak jokatzin eban bakarrik. Beraz, Ondarroa ta Zierbana ziran jokatzekoak. Baiña onek zerbait atxaki edo errezoi atara eban eta ez eban jokatu nai izan edo kanpora jaurti eban. Beintzat, bigarren igandean Sestao izan zan Ondarroa'ren aurka jokatutako ebana. Ta bigarren igandeko estropadeak olan emon eban: Ondarroa: 15:00; Sestao: 15'15.

Oneik erri biok adiskide geratu ziran; eta ordutik aste betera-edo, Sestaoko erramulariak Ondarru'ra etorri ziren ixistu ta guzti, gure erriko erramulariakaz egun eder bat igarotera; ta an ibilli ziran kalerik-kale zarataka, gazte jendea atzetik ebela.

Estropadako saria, kontizu, diru apurren bat be izango zan; baiña Bizkai'ko Aldundiak ipiñitako kopa eder bat zan. Iru urtean jarraian, edo jarraian izan ezik ez dakit lau bidar-edo irabazi bear zan. Eta an egon zan, «Club Deportivo'n, hurrengo urteko estropadak jokatu arte»<sup>(62)</sup>.

(62) Jose Maria Etxaburu, *Ondarroako Kontuak*, Auspoa Liburutegia, 226, 152-153. or.



Jose Maria Etxabururen aipamen luze hau nahita egin dut. Bertan nabarmentzen zaigu garai hartako ondarrorak berriz estropadetan parte hartzera kirol-arrazoiek bultzatu zituztela. Beste inolako helbururik gabe.

Nire egiaztapen hau baieztatu egiten digu Jose Maria Etxaburuk berak ere hurrengo lerroan egiten digun balorapenean:

*«Ondarrutarrak orduan egin ebena inok ez dau egin: arrantzako itsasontzi guztiak makiñaz ebiltzanak izanik, erramutea oso-osorik lagata egoan denboran, ogetiru urte estropadetara joan barik egon arren, egun gutxiko saiokaz irabazle urten»<sup>(63)</sup>.*

Orain arte esandakoaren arabera, beraz, argi dago kirol-arrazoiek bultzatu zituztela ondarrorak euren traine-ruarekin berriz estropadetan parte hartzera. Eta garaiko ondarrorrek eurek ere kirol garaipentzat hartu zutela estropada hura, beste inolako konnotaziorik gabe.

Baina badago datu bat zer pentsa eman didana. Halaber, Ondarroako Aurrera Kirol Kluba izan zen Bilboko estropadetan parte hartzeko arraunlariak bildu eta prestatu zituena.

Aurrera kirol elkarte 1921 urtean sortu zen. «*Los partidos jugadores de un deporte conocido entonces como «football» marcan los orígenes del Club Deportivo Aurrera. La afición por la práctica de esta disciplina unía a las jóvenes cuadrillas ondarresas que en 1921 decidieron formar una sociedad que ha sobrevivido al paso de los años para llegar hasta nuestros días*»<sup>(64)</sup>

Elkarte berri honen Estatutoak 1924ko maiatzaren 28ra arte ez ziren onartu. Bilboko estropaden aurreko urtean, hain zuzen ere.

Bere Estatutoen 1. kapituluan, honela dio: «*El Club Deportivo Aurrera (...) tiene por objeto fomentar y desarrollar por cuantos medios a su alcance, la educación y desarrollo físico e intelectual mediante la práctica de los deportes en sus variadas manifestaciones*».<sup>(65)</sup>

Artikulu honek nabarmentzen digu Aurrera Elkartek, bere helburuen artean, kirola egiterakoan, bazituela beste helburu batzuk ere. Hala nola, hezkuntza, kultura...

Interesgarria izango litzake jakitea, zergatik Aurrera elkarteak, bere Estatutoak onartu ondoren, futbolaz gain, antolatatu zuen lehen ekimena izan zen estropadetan parte hartzeko trainerua prestatzea. Nola prestatu ere! Santa Klara eta San Pedro kofradia BIETAKO mariñelak hautatu baitzituzten traineruan arraunean jarduteko.

Estatuto hauek prestatu zituen Aurrera Kirol Elkartearen lehen Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria Alberto Irazabal osagilea bera izan zen. Alberto Irazabalek ez ote zituen ezagutzen Kofradia biak bat egitearen alde herritarren artean garai hartan egiten ziren komentarioak? Edota, agian, ez ote zen izan Kofradia biak bat egiteko prozesua bizkortzea, traineru hura presta eta estropadetan parte hartzera bultzatu zituen sakoneko arrazoia?

Galdera hauei erantzun diezaioketen Alberto Irazabal eta bere lagunek aspalditikan alde egin zuten gure arteak, zoritxarrez.

Baina, hor geratzen zaigu galdera, hipotesi gisa, behintzat; funtsezko hipotesi gisa geratu ere, nire iritziz apa-lean.

Bestalde, Bilbon irabazitako estropadak, kirol garaiz handia izanez gain, haize berriak ekarri zizkion Ondarroako herriari.

Bilboko estropadan Ondarroako eta Sestaoko traine-ruiek gogor borrokatu zuten estropada irabazteko. Estropadan Ondarroako trainerua atera bazen ere irabazle, estropada amaitu eta gero, adiskidetasuna atera zen garaile, Jose Maria Etxaburu «Kamiñapzi» gure lagunak dioskunez:

*«Oneik herri biok adiskide geratu ziran; eta, ordutik aste betera-edo, Sestao'ko erramulariak Ondarru'ra etorri ziran txistu eta guzti, gure erriko erramulariakaz egun eder bat igarotera; ta an ibilli ziran kalerik-kale zarataka, gazte jendea atzetik ebela».*<sup>(66)</sup>

Ondarroako eta Sestaoko arraunlariek, herriko gazteak atzean zituztela, Ondarroako kaleetan zehar, erromeria giroan egin zuten kalejira hark adiskidetze mezua zabaldu zuten ondarrorren artean.

Kalejira hark garai berriak iragarri zizkion Ondarroako herriari. Are, ondarror izatearen harrotasuna ere berpiztu zuen herritar askorengan.

Geroago, Jose Burgoa herritar bertsolariak ere, bere aldetik, egin zuen bere ekarpena:

*«Azkenengo estropada emen egin zan ogetairu urte da jokatu zala, asaba zarretatik datorren itzala, dantzatu ederki arraunaren pala, jakin zazu oraindik lenguak garala.*

*Estropada aurretik jokatu onduan desafiorik asko aditu genduan, premiak atera dituzte kasuan, Errege jauna kopa orra nun daguan Club Deportivo Aurrera Ondarroa'kuan.*

(63) Jose Maria Etxaburu «Kamiñapzi», *Ondarroa'ko kontuak*, Sendoa, Auspoa Liburutegia, 226, 153-154. or.

(64) C.D. Aurrera. *Ondarroa, 1921-1996* liburua, 17. or. Liburu hau, Aurrera kirol elkartearen 75. urteurrenaren karietara argitaratu zen 1997. urtean.

(65) C.D. Aurrera. *Ondarroa, 1921-1996* liburua, 17. or.

(66) Jose Maria Etxaburu, *Ondarroa'ko kontuak*, Sendoa, Auspoa Liburutegia, 226, 153. or.



Estiborra: Salvador Aldarondo  
Manuel Osa  
Casimiro Burgoa  
Isidro Osa  
Lorenzo Uribe  
Angel Aulestia  
Modesto Arakistain



Aborra: Agustin Arantzamendi  
Vicente Akarregui  
Jacinto Pello  
Alejandro Urrasolo  
José M.<sup>a</sup> Iturriza  
José Beitia  
Juan Bautista-Beitia (Atzeku)



## Cantabriako Txapeldun 1.925

*Kopa gurekin dago aurtengo urtian  
ta ondo gordetzera saiatu gaitian,  
okerrik ez badegu bien bitartian,  
allegatuko gara alako batian,  
agur adiskideak urrengo artian»<sup>(67)</sup>*

J. Burgoaren bertso hauek ondarrarren artean bizi zen garaile- harrotasuna islatzen digute, dudarik gabe. Baina ezin inola ere ukatu, hurrengo urtean Donostiako estropadetan parte hartzeko albo herrietatik iristen ari ziren desapioei ere erantzuten zietela.

Beraz, hurrengo urteko estropadetak ongi prestatzeko, Bilboko estropadetan parte hartzeko egin ziren ga-tuak ordaintzeari ekin behar zitzaion lehenik.

Honetarako, diru-bilketa herrikoia antolatu zuen Bilboko estropadetan parte hartzeko arraunlariak bildu eta prestatu zituen Club Deportivo elkarteak berak.

Santa Klara kofradiak berak ere 150 pezeta eman zituen<sup>(68)</sup>.

Ondarroan bizi zen giro baikor honen baitan, lehertu zen Ondarroako kaleetan herritar askoren ametsa zen albiste-a. Kale Handiko balkoi eta lehioetatik elkarrekin kontu-kontari ari ziren emakumeen artean ere ez zen besterik entzuten:

- «Zu, emakumi, badakixu kofrai bixak, bixak bat eitteko alkarregaz batzarrak eitten hasi dille?

- Bai, emakumi! Ordu zan zeoze eitteko. Neu be ondo kantsata na gure etxin pasaten danaz. Bata, San Pedro kofraixako barkun, besti Santa Klarakun..

- Hori ba! Ederra nasti, etxin eta kalin..

Emakume haiek elkarri kontzatzten ari zirena ez zen merkatu plazan jasotako bulo bat, egi borobila baizik. Santa Klara eta San Pedro kofradiak bat egiteko asmoz, harremantetan jarriak zeuden jada 1925. urteko Eguberri aurretxoan.

Oraingo honetan bazirudien gauzak serio zihozazela.

(67) «1925'garrengo Bilbo'ko Estropadak» Jose Burgoak jarritako bertsoak. Jose Maria Etxaburu «Kamiñazpi»-ren *Ondarru'ko Abestiak* liburuaren 104. orrialdetik jaso ditut. *Ondarru'ko Abestiak* liburuan bildu zituen Jose Maria Etxaburu ondarror idazleak hainbat bertso. Baita bere garaian Ondarroako kontserba-lantegietan abesten ziren hainbat kanta ere. Bilduma 1981. urtean J. M. Etxaburuk berak oparitu zion Ondarroako Udalari eta Ondarroako Historia Zaleak kultur elkarteak argitaratu 2008. urtean. Idazlan honetan geroztik agertuko diren bertso guztiak liburu honetatik hartu ditut.

(68) SKOAKZBBBA, 1925.11.01. SKOAKZBBBAL (1910/1926), 202. or.



Halaber, Kofradia bien arteko akordioz, komisiorez bidez sortu zen. Bere eginkizuna, oso zehatza: «...estudiar las causas de la separación y dificultades para la unión».

Komisio hau osotzeko, Kofradia bakoitzak bere ordezkariak izendatuko zituen, aholkularien laguntza izango zutelarik.

Santa Klara kofradiari dagokionez, Guillermo Morillo, Paskual Santiso, garaian kofradiako lehendakaria eta Martin Etxaburu lehendakari-ohia izan ziren izendatutako ordezkariak. Santa Klara kofradiak berak komisiorearen eskuetan utziko zituen kofradiako agiri eta liburu guztiak.

Datu hauek eskuratu ditut Santa Klara kofradiako Zuzendaritza Batzordearen «Gutun eta Komunikapenak» (1920/1926) liburutik. Bere 120. orrialdean gordetzen da komisiorearen parte hartzeko 1925ko abenduaren 29an herritar batzuei egindako gutunaren kopia. Gutun honen arabera, 1925ko abenduaren 29an hasita zeuden jada «las gestiones para la unión de las Cofradías».

## 1926. urteko Donostiako estropadak.

«Jakiña, -jarraitzen du J. M. Etxaburuk <sup>(69)</sup>- behin Bilbo'koa irabazi ezker, Donostia'ra be joan egin behar zen, orain lez orduan be estropalaririk onenak batzen ziran da, hurrengo urtean Brontxe'k atara eban bertsoak esaten daben lez:

*Estropadea irabazita  
jendia asi zan esaten:  
Bilbo'ko galderetuari  
errez zala irabazten.  
Orren abilla izanda, zetan  
Donostira etzera etortzen?  
Gipuzkoa'ko mekanikuak  
probatu ditugu aurten.*

Bai; 1926'garren urtean Donostia'ko estropadetara joan bear zan. Eta gauzak astiro artu eta buruagaz egin ziran.»

Bai ondo prestatu ere!

Arraunlariak eurak lehenik

«Orduan, eta ia beti lez, San Pedroak igarotakoan, egaluzetara joaten ziran, dagonilleko Andra Mariak arte, Santander eta Asturias'ko itxasoetara. Eta amazortzi inguru mutil gazte aukeratu eta errian geratu ziran, beste egiteko barik estropadarako gertuten. Erdi inguru-edo, aurreko urteko erramulariak ziran, eta gaiñontzekoak barriak.»

«Milanton-Txiki» esaten jakona geratu zan irakasten; eta beste antxiñako arraunlari bi be bai, arduradun lez: Markue'tar Jesus eta Etxaburu'tar Iñazio.

Egunean jatordu bat, eguerdikoa, «Aurrera»'n egiten eben, orretarako sukaldari andra bat bere laguntzailleagaz eroanda.

Bazkari hau, jakiña, Kofradiaren edo estropadarako batu zan diruaren konturakoa da. Ederto jaten eben, okelea nai beste. Bearbada, orretan gaur beste jakin izan ba'litz, ez eben egingo ainbesteko betekadarik.

Dana dala, mutillak gogoz alegintzen ziran: itxasoan arraunean bear zan bestean jarduten eben; mendian be ibiltzen ziran eta sendo egozan.»

Bi traineru berri ere egin ziran Ondarroako ontzitegietan.

«Ondarroa'ko ontzitegi edo astilleruak kostako entzutetsuenak ziran orduan. Baiña estropadarako ontzirik egin barik egozan urte askoan, eta orduko treñneruak zelakoak ziran ondo ez ekien. Orregatik, treñneruak egiteko oiturea egoan tokian egitea ohea izango zan, baiña errian bertan egin ziran bi: «Ama Antiguakua n° 1» eta «Ama Antiguakua n° 2». Astunak zirala esaten zan. Pixaterik iñori ez jakon bururatu, ta ez dakigu egia zan ala ez esaten zana. Baiña, beintzat, bietatik bat ondarrutar taldeagaz lenen eldu zan, jokatu eban bietan. Beraz, ez zan esaten zan besteko astuna.»

Jakingarri eta esanguratsu deritzat Jose Maria Etxaburuk azaltzen digun 1926ko udaran Ondarroan bizi zen baikortasun eta euforia giroa.

«Uda aretan Ondarroa'n ez egoan beste konturik: estropadea gora ta estropadea bera. Irabazle urtengo genduan ziurtasun osoa egoan, ta alantxe egin ziran posturak.»

(...)


«Andra Mari jaietan arrantzaleak etxeratu ziranean, orduko giroak eraginda, diruz be ez ebilzan eskax, eta bigarren treñnerua bialtzea erabagi zan. Alako burubakokeriarik!»

Heldu zan estropadako eguna. Irailaren 5a zan.

Han joan ziran goizetik Donostira arraunlariak. Itsasoz joan ere. Horretarako, Bilbora eta beste portuetara garraio-lanak egiten zituen Jesus Mari balandra prestatu zen, «bertan etzinda joateko, oe antzekoak ipini eutsezan. Ta an joan ziran, ta beste itxasontzi naikoa be bai, jendez beteta.»

(69) Aipatutako liburuan, 154. orrialdean.





1926ko irailean Donostiako Kontxako estropadan.

A nolako eguerdia bizi izan zuten herrian gelditu ziren ondarroarrak! Denak Donostian zer gertatzen ari zenaren jakin minez!

«Eguardian, estropadako ordua eltzean, an egoan erria nundik zer entzungo. Orduan ez zan irratirik, eta urrutizkiña be ez asko, aurreko urtean ipiñi zan zentraletik kanpora ziran erriko urrutizkin apurak. Ta ez ori bakarrik; diktadurea zan eta egun aretan, ain zuzen, zerbait «mobimentu» izan eta urrutizkiñagaz agintariak jabetu ziran Espaiña'n. Olan, urrutizkiñez be ez egoan berba egiterik.

Ta orduan txirringa-zale zan Urresti'tar Ildepontso gazteak, Saturrararen gaiñeko Katei mikelteen etxera joan eta an jakin eban estropadea nork irabazi eban; eta Arrigorri'tik Alameda'ra didarka edo seiñaka asi eta alantxe jendeak jakin edo konturatu zan Ondarroa'k irabazi ebala estropadea, ta an jagi zan zaratea!» (Oraindik Plaiko zubia egiteko egoan).

Ondarroako **Antiguako Ama n°1** traineruko arraunlariek. Juan Bautista Beitiai lemazain zutela, Pasai Donibane'ko «**Sanjuandarra**» traineruko arraunlariei - Frantsizko Laboa, euron lemazaina- atera zien bederatzi segundoko aldeak herritarren ikusmina eta euforia gorengo mailara jaso zituen.

Honen lekuko, hurrengo igandean Donostian egin zen bigarren estropada ikustera joateko animatu ziren beste hainbat eta hainbat herritar. Hauen artean, 13 edo 14 urteko mutikotxoak ere. Hauetariko bat, Jose Maria Etxaburu, gure kronikaria bera <sup>(70)</sup>.

#### Donostiako bigarren estropada: Irailak 12.

«Urrengo igandean, neuk be joan nai neban Donostia'ra, ta Kepa lagunarenean joateko berbatuta nengoan. Ta, lo asko egin barik, goizaldean Kepa'nera joan nintzan. Biok Ipar Kalean bizi giñan. Baiña kubierta edo solairu bako zortzi zaldiko ontzitxuarentzat eguraldi txarra egoan. Euri apur bat be ba egoan, eta Kepa'ren aitak, Paulo «Soxua»k -nire aitaren lengusuak- ez giñoiazala esan euskun. Orduko nire atsekabea!

Baiña, ez; konponduko giñan. Lurruntzi ta txikiagoak, itxasontzi asko joiazan Donostia'ra; eta gu, mutil txikiok be, norbaitek eroango ginduzan. Eta kaian «San Agustin» izeneko lurruntzian sartu giñan. Keparen lengusua zan jaubea.

Estropada ordua baiño asko lenago eldu giñan Donostia'ra; baiña ez genduan liorrera urten orduan.

(...)

Gu an egon giñan kexu-kexu estropadea ikusten. Eguraldia be ez egoan argia; ta asieran gure aurretik igaroten ikusi genduzan treiñeruak, biak bardin samar, baiña gero ez genkian ezer ganoraz. Alako baten, gure ondoan egoan ondarrutar erre-mularia, Donostia'ra eroandako «Jesus Maria» itxasontziko palo musturrera igon da egoan bat -makiñaz eta aize oialez ibilten ziran zamako ontzietakoa zan- zarataka ta besoakaz seiñaka asi zan, eta guretzat gauzak ondo etozala igarri geuntsan. Eta alantxe zan. Treiñeruak urreratu ziranean, ondarrutarra naikoa aldegaz aurretik etorrela agirian

(70) Jose Maria Etxaburu Etxaburu, 1913ko irailaren 23an jaio zen Ondarroan, Ipar Kalean.





Donostian 1926an estropadak irabazi ondoren Ondarroako agintari eta besteak herrirako bidean.

*egoan. Eta, alantxe, bat be estutasun barik, amasei segundogaz irabazi eben.*

*An, «Jesus Maria»ko palo muzturrean, zoro baten gisan ibili zan gizona, ordurarte ez neban eza-gutzen. Baiña bai gero! Bakeriza'tar Sebastian donostiar arrantzale entzutetsua zan»<sup>(71)</sup>.*

### **Ondarroa Donostiako estropada irabazi eta gero.**

Donostiako estropadaren aurretik hain handia izan bazen ondarroarrek bizi zuten euforia, noraino ez ote zen iritsiko Kontxako garaileak Ondarroako portuan *Facun-tusin* Espainiako Erregearen yatean sartzen ikusi zituztenean!

*«Ai zer pozikan artu dituen erriak eta auzoak; oientzako izandu dira txalo ugari gozuak, bolanderaren tiruak eta musika soñu ta ojuak. Aurten geiago merezi dute mutil indartsu brabuak».*

*«Etzait aztuko neri sekula mutil oien etorrera, ikusgarria izan zalako egin zioten arrera; Gipuzkoa'ko matrikulakin ekarri dute bandera; Beste danakin batian orain gordeta daukagu bera.»*

Jose Burgoa herritarrak 1926. urtean jarritako bertsoak <sup>(72)</sup>.

Arraunlariei egin zitzaien harrera hunkigarria izan bazen, zer esan ondoren Ondarroa osoan lehertu zen jaiaz!

Jose «Brontxe» ondarroar bertsolariak ere, «*Kalandi'ko Erregiñe Dienesi*» izenarekin 1926. urtean prestatu eta geroztik hain entzutetsuak egin diren 15 bertso bidez betirako azalduta utzi zigun nolakoa izan zen ondarroar arraunlarien eta hauekin Donostira joandako guztien itzulera:

*«Bertso berriak jartzera nua, gusto duenak erosi. Fiestak nola pasatu ditugun nai nuke adierazi,*

(71) Sebastian Bakeriza pertsona eraginkorra izango zen handik urte gutxira Ondarroako «Artape»-ko paduran gaur egun «Juan Egidazu» kaia izenarekin ezagutzen dugun portua eraikitzeko gestioetan. Ondarroako Udalak, portu berriaren proiektuaren tramitazioa lo-zorrotik atera nahirik, komisioa bidali zuen Madrilera 1932. urtean. Komisio honetan parte hartzeko deitu zion Sebastian Bakeriza arrantzaleari.

Hain argi eta zur jokatu zuen Udalak, non, Herri-Lanetako Ministeriora heldu eta Indalezio Prietok jakin zuenean Sebastian Bakeriza bere bulegoko ate aurrean zegoela, berehala Ministerioko ate guztiak ireki zitzaizkion Ondarroako Komisioari. Hura bidaia arrakastatsua! Hurrengo urtean, 1933ko apirilaren 10ean, Ondarroako portu berriaren lehen harria jarriko zuten Manuel Azana Espainako Gobernu Buruak eta Indalezio Prieto eta Marzelino Domingo ministroek.

(72) Jose Maria Etxaburu, *Ondarru'ko Abestiak*, 117. or,







Donostian 1926an estropadak irabazi ondoren Ondarroako agintari eta besteak herrirako bidean.

*musika eta tanbarrarekin,  
gañera orfeoi ta guzi,  
Donostia'ko etorreria  
esan bear det lenbizi».*

Deban eta Mutrikun jaso zuten harrera beroaren berri eman eta gero, Ondarroako harrera eta ondoren lehertu zen jaia plasmatusa utzi zigun bere hurrengo bertsoetan. A nolako festa ospatu zen Ondarroan gau hartan, bertan bildu baitziren Debako Musika Banda, Mutrikuko Danborrada, eta ... Durangoko Orfeoia ere.

*«Beko fiestak akabatuta,  
Kale Andira giñan jaso;  
ezin emanik egondu giñan  
ordu betian lau pauso;  
erregiña zan Dienesi ta  
tanboliñakin Damaso.  
Obiagorik egongo ete da  
mundu onetan akaso!»<sup>(73)</sup>*

Hurrengo egunetan, luzaro batean, ondarroarrak nirvana goxo eta handiuste baten bizi izan ziren. Harroko ere, agian, Jose «Brontxek» garai hartan jarri zuen beste bertso honi kasu eginaz gero:

*«Bizkaya eta gipuzkuarrak  
konbensitu al zera on;  
ondarrutarrak baldin badatoz*

*berriz ere listo egon.  
Orregaitikan musikak ere  
gaur joten digu aliron.  
Nai eztuenak aditu bear:  
Ondarrutarrak kanpeon»<sup>(74)</sup>*

Baina baziren ondarroarrak ohartzen zirenak, Donostian irabazitako estropadak bandera preziatua eman bazion ere Ondarroari, beste ekarpen askoz baliotsuagoa egin zigula herri osoari: Ondarroarren artean azken urteetan galduta zegoen bakea itzuli zigula, alegia. Horrela aldarrikatuko zuen Domingo «Gorra» herriko bertsolariak garai berean jarri zuen bertso honetan:

*«Gora Ondarru! Gora Beitia!  
gora kuadrilla guzia!  
pozez beterik ipiñi dezu  
erriko jende guzia,  
eta gañera ipiñi dezu  
urte askorako bakia;  
nai nuke aurrera erriko denok  
adiskide izatia.»<sup>(75)</sup>*

Are, ondarroar askorek amesten zuten Santa Klara eta San Pedro kofradiak bat egiteko urrats sendo bat emateko aukera ere eman zuen Donostian irabazitako estropada hark. Hara zer dioskun Jose Maria Etxaburu «Kamiñazpi»k, Donostiako estropadetan irabazitako banderaz ari dela:

(73) J. M. Etxaburu, *Ondarru'ko Abestiak*, 118-119. or.

(74) J. M. Etxaburu, *Ondarru'ko Abestiak*, 106. or.

(75) J. M. Etxaburu, *Ondarru'ko Abestiak*, 108. or.





Ondarroako arraunlariek Antiguako Amari eraman zioten oroigarria (1926. urtea)

«... 1926'garren urtean, Donostia'ko estropadetan irabazi zana be Santa Klara'ra eroan zan, an, oiturea zan jai andietan, beste ikurriñakaz batera, leioetan eskegita ipinteko. Treiñeruko erramulariak, Beitia lemazaiña tarteaz zala, erdi inguru Kofradia Barrikoak (San Pedrokoak) izan arren, ikurrin tokitzak, bat be ezpai barik eta eztabaida barik, Santa Klara kofradia aukeratu zan, gutxienez bosteun urte eukazan Ondarroa'ko arrantzaleen betiko elkarte»

(76)

Aurrepauzu garrantzitsua! Halaber, 1925. urtean Billboko estropadetan irabazitako kopa Club Deportibon gorde zen hurrengo urtera arte. 1926. urteko estropadetako bandera, ostera, Santa Klara kofradiara eroan zen.

Are, J. M. Etxaburuk azpimarratu digunez, erabaki hura inolako EZBAIRIK ETA EZTABAIDARIK GABE hartu zen, nahiz eta bandera hura irabazi zuten arraunlarien erdi inguru eta lemazaina bera ere San Pedro kofradiakoak izan.

Dударик gabe, 1925. urtearen amaieran Kofradia biak bat egiteko sortu zen komisia bere lana egiten ari zen, batetik. Eta, bestetik, 1926ko estropaden eraginez ere, bake eta elkartasun haize goxo eta leuna nagusitzen ari zen ondarroarren artean!

Are gehiago, askoren ustez, elkartasun giro honek ekarri zuen Santa Klara eta San Pedro kofradiak bat egitea 1927. urtean. Iritzi honetakoa zen Jose Maria Etxaburu gure laguna: «Nire ustez, estropadetan egon zan alkartasunak ezek baiño geiago hori lortu eban» (77).

Iritzi berdina behin baino gehiagotan entzun izan diot Domeka Markuerkiaga Aranbarri «Tobaneku»ri, 90 urteko patroikoari:

«Egixe da. 1926. urtin, Donostiko estropadak irabazi zinin, herri guzti bolka zan arraunlarixan ingurun. A zelako fiestak eñ zin Ondarrun! Neuk be pentsaten dot, estropada ostin herrixan sortu zan giruk asko lagundu ebala kofrai bixak bat eitteko»

Bere iritzi hau eman ondoren beste datu interesgarri bat entzun izan diot Domekari Kofradia bien bat egiteaz.

«Beste gauza bat pe kontun eukitteku de. Ordun, Primo Riveraren diktaduri euan» (78). Eta preso sartu zittuen Santa Klara kofraixako pertsona sinifikatibuk... Jose Miel «Gatzatu», Martin «Ederra» gure osaba...

Honek pe lagunduko eban kofrai bixak bat eitti, kontixu. Badakixu, ba, San Pedro kofraixakuk karlistak edo tradizionalistak zin ba...»

Horrela, 1926ko azaroaren 6an Santa Klara kofradia egin zuen Ohiko Urteko Bilera Orokorrean, mahai gainean jarri zenean kofradia biak bat egitearen egokitasuna, inork ez zuen zalantzan jarri bi kofradiak bat egitea, nolako baldintzetan bat egin behar zen baizik.

Halaber, bildutakoaren artean gogor eztabaidatu ondoren, «se ha puesto a votación decidir si conviene dicha unión después de vista la situación de la Cofradía San Pedro ó hacer sin condiciones. Verificado el sorteo (botazioaz ari da, dudarik gabe) resulta: 29 votos a favor de hacer la unión después de vista la situación (de la Cofradía San Pedro) y 52 a favor de sin condiciones» (79).

Aurreko botazioaren emaitzei begiratu, deigarria egiten zait kofradia biak bat egin aurretik, San Pedro Kofradiako diru-kontuak alde aurretik aztertu behar zirela esaten eta baldintza moduan jartzen zuten Santa Klara Kofradiako bazkideen kopurua.



1926ko Kontxako Bandera, Ondarroako arraunlariek Donostian irabazi zutena.

(76) Jose Maria Etxaburu, *Ondarroa'ko kontuak*, Auspoa Liburutegia, 226, 104-105. or.

(77) Jose Maria Etxaburu, *Ondarroa'ko kontuak*, Sendoa, Auspoa Liburutegia, 226, 104. or.

(78) Primo de Riveraren diktadurak 1923. urtetik 1930. urtera arte iraun zuen.

(79) Santa Klara kofradia San Pedrokoari 1926ko azaroaren zazpian egorri zion gutunetik jasotako datuak. IKus SKO-AKZBGKL (1920/1926), 125. or.





**Ondarroako Frontoian, 1925eko irailaren 27an**, Portugaleteko estropadak irabazi ostean, Kantauriko txapeldunak. (Hurrengo urtean, Kontxakoa irabaziko zuten). Tente ezkerretik eskumara: Urrosolo Alejandro «Atxazpi», Osa Manuel «Iharra», Azpiri Larrinaga Jazinto «Pello», Aldarondo Salvador, Beitia Arrizabalaga Juan Bautista «Junbaiste», Arantzamendi Mugartegi Agustin, Zubikarai Urresti Sebero «Alli», Akarregi Etxebarria Bixente «Zentollos», Arantzamendi Luis «Atanasio», Uribe Lorenzo «Sandia». Makurtuta edo jarrita, ezkerretik eskumara: Aulestia Jauregi Angel «Danbala», Iturriza Jose Mari «Txikito de Ondarroa» (aita lau aldiz eskondutakoaren semea), Arakistain Modesto «Trotixe», Bakeriza Ituarte Sotero, Burgoa Arrizabalaga Kasimiro «Oiloneku», Osa Gatzagaetxebarria Isidro «Txomin Astilleroneku» eta Beitia Arrizabalaga Jose.

Batzarrean botoa eman zuten 81 bazkideetatik HOGEITA BEDERATZIK zalantza handiak zituzten San Pedro kofradiaren egoera ekonomikoaz. Horregatik San Pedro kofradiaren ekonomia-egoera alde aurretik begiratzeari exijitzen zuten.

Bazkide hauen iritziz, San Pedro kofradiakoek Santa Klara kofradia zorretan itxi eta alde egin zuten, eta, gero, Santa Klara kofradiak zorrik ez eukanean, euren zorrekin itzuli nahi zuten.

Iritzi hau zeukan 1925/1926 urtean Santa Klara kofradiako lehendakaria izan zen Martin Etxaburu «Martin Ederra» berak ere.

Santa Klara kofradiako bazkide hauek ahaztu gabe zeuzkaten 1909. urtean Santa Klara kofradiatik alde egin zutenek apurketa garaian eta hurrengo urte batzuetan esandakoak eta egindakoak.

Dena den, honela pentsatzen zutenak gutxiengoa ziren Santa Klara kofradiako bazkideen artean ere. Eta Donostiako estropadaren ondoren, Domingo «Gorra» herri-

ko bertsolariak aldarrikatu zuen mezua, «aurrera erriko denok adiskide izatia», alegia, ondo barneratuta zeukan Santa Klara Kofradiako gehiengo handi batek.

Kapitulu honetan honaino azaldu ditudan datuek argi eta garbi nabaritzen digute, nire uste apalean, «ALDAPAN GORA» barik, «BIDEZIDORRETATIK IGOZ» lortu zela Ondarroako Santa Klara eta San Pedro kofradiak bat egitea.

## V.- SANTA KLARA ETA SAN PEDRO KOFRADEK LORTZEN DUTE BAT EGITEAREN GAILURRERA IRISTEA,

Horrela, 1926ko azaroaren seian Santa Klara kofradiak egin zuen Bilera Orokorren ondoren, berehala urrats sendoak eman ziren Ondarroan kofradia biak bat egiteko bidean.



### 1926ko azaroaren 11a: Data Historikoa.

Augustin Zubikaraik dioskunez, egun honetan elkarrekin bildu ziren Santa Klara eta San Pedro kofradietako ordezkariak <sup>(80)</sup>.

Urrats garrantzitsua izan zen bi kofradietako ordezkariak elkarrekin biltzea. Are garrantzitsuagoak bertan hartu zituzten erabakiak. Halaber, batzartu zirenek, 18 urte irauten zuen Kofradien arteko apurketa mingarriari amaiera emateko, ateak diren bestean zabaldu zituzten.

Lehendabiziko lana Santa Klara kofradiaren Estatuto Berriak prestatzea izan zen. Lan zinez zaila, apurketak utzitako zauriak haragi bizian baitzeuden alde batean zein bestean. Baina ez zegoen hesirik geldituko zuenik garai hartan Ondarroako Kofradia bietako arduradunen eta kideen artean nabarmentzen ziren kofradiak bat eginda ikusteko amets bizia eta gogo sendoa.

Horrela, egun gutxitan lortu zuten elkar lanean adostea eta idaztea Santa Klara kofradiaren Estatuto berriak. Eta, 1927ko urtarrilaren 5ean Bizkaiko Gobernu Zibilean aurkeztu zituzten.

Estatuto Berri hauen 1. artikulua honela dio hitzez-hitz:

*«ARTIKULO 1º. La Cofradía de Mareantes de Santa Clara de Ondárroa, de fundación inmemorial, y que, por circunstancias lamentables, venía, desde hace algunos años, estando divididas en dos Cofradías, vuelve por la unión acordada de estas a ser una sola con la denominación de Cofradía de Santa Clara de Ondárroa, y con domicilio en esta villa en la casa social número 9, de la calle de la Rivera».*

Estatuto berri hauek sinatu zituzten Pedro Arantzamendik lehendakari legez, Juan Bta. Beitia lehendakari-orde moduan, eta Sabas Bedialaunetak, José J. Arrizabalagak, Migel A. Arrizabalagak, Bartolomé Badiolak, Domingo Beitiak eta Frantzisko Aristondok.

Sinatzaile hauei dagokionez, datu bat azpimarratu nahi nuke.

Halaber, Estatuto berriak ez zituen edonork sinatu. Bat egin zuten bi Kofradien ordezkariak izendatzean, bata eta bestearen ordezkariak parekatua bilatzen ahalegindu ziren. Bai lortu ere.

Eta hara non, San Pedro kofradia ordezkaturik, lehendakari-orde legez agertzen den jada oso ezaguna zaigun Juan Bautista Beitia, San Pedro 1925 eta 1926ko estropadak irabazi zituen traineruaren patroia.

## ESTATUTOS DE LA COFRADIA DE SANTA CLARA DE ONDARROA



VERGARA  
TIP. «EL SANTÍSIMO ROSARIO»  
1927

Zerk bultzatu ote zituen Estatuto Berriak prestatzen ari ziren ondarroar haiek Juan Bautista Beitia San Pedro Kofradiaren ordezkari legez izendatzeko?

Agian, argibideren bat eman lezake 1926ko azaroaren 23an, Santa Klara kofradiak Aurrera Kirol Klubari igorri zion gutunak. Bertan, jakinarazi ondoren «*que el primer día en que quedasen todos sin salir a la mar, irán a esa Sociedad los chicos remeros a recoger la bandera, remos y demás objetos pertenecientes a la Cofradía*», Juan Bautista Beitia patroari sariren bat ematea aipatzen da <sup>(81)</sup>.

1926. urtea amaitu aurretik beste urrats garrantzitsu bat ere eman zuten Santa Klara eta San Pedro Kofradietako arduradunek. Guillermo Morilla Carreño notarioaren aurrean Eskritura Publikoa sinatu zuten 1926ko abenduaren 11n, non agertzen ziren Santa Klara zein San Pedro kofradiek, bakoitzak Santa Klara kofradia berrosatuari egiten zizkion bere ondasunen ekarpenak.

Izan ere, 1926. urtearen amaieran kofradia bakoitzak bazituen bere ondasun propioak. Besteak beste, Santa Klara zein San Pedro kofradiek, banatuta egon ziren urte haietan, eraiki zituzten euren egoitza berriak: San Pedro kofradiak 1910ean Kafeko Atzean, eta Santa Klara Kofradiak 1920an Zubi Zaharraren ondoan.

(80) A. Zubikarai, *Egutegia* 1976, 1976, (azaroak 11)

(81) SKOAKZBGL (1920-1926), 127. or.



COFRADIA SINDICAL DE PESCADORES DE "SANTA CLARA"

DE

ONDARROA } (Vizcaya)

Escritura de Declaracion de Propiedad

otorgado ante el Ilre. Notario

D. GUILLERMO MORILLA CARREÑO

Nº - 159 - Fecha 11 Dicbre. de 1.926

Corresponde a la otorgado con la  
fusión de las dos Cofradias y recoge todas  
las propiedad y pertenecidos a ella.

Santa Klara eta San Pedro Kofradiak bat egiteko Eskriturak, 1926ko abendukoak



Presentado el 20 de Dicie. 1926 a las 10.  
 N.º 159 F.º 198 T.º 1.º del Libro

Núm. 159  
 Despe. 30 de

*San J. Clara*

# Escritura

de

DECLARACION DE PROPIEDAD

---

**Otorgada por**

DON PEDRO MARIA AIZANZAMENDI HIZURIACA Y OTROS

---

**A favor de**

FRADIA DE HERRANTES DE SANTA CLARA DE OÑARRA

---

En 11 de Diciembre de 1926

**Ante**

**n Guillermo Morilla Carreño**  
 Abogado

Notario del Ilustre Colegio de Burgos

Con residencia en Oñarrea

Santa Klara eta San Pedro Kofradiak bat egiteko Eskriturak, 1926ko abenduokak






**VI- SANTA KLARA ETA SAN PEDRO  
KOFRADIEN BAT EGITEA.**

Ondarroarrek, batzutan «Aldapan gora», «Bidezidorretan zehar» bestetan, lortu zuten azkenean hain amestutako batasunaren gailurrera iristea.

1927ko urtarrilaren 5ean Bizkaiko Gobernu Zibilean aurkeztu ziren Santa Klara kofradia berriztuaren Estatuto Berriak. Eta handik hamar egunera, Batzar Orokorra deitu zituen bere bazkideak. Hona hemen Batzar Orokor honen agiria oso-osorik:



Santa Klara eta San Pedro Kofradiek bat egin eta gero Santa Klara kofradia osatuak 1927ko urtarrilaren 15ean egin zuten Bilera Orokorren Agiria.







Y no habiendo más asuntos de que tratar el Sr. Presidente declaró terminada la Junta, firmando la presente acta con los concurrentes que saben, de todo lo que yo el secretario certifico.

Pedro Aranzamendi



Angel B. L.  
Sexte

Victor Benyuechea

Marcelino Urquiola

José B. Juncos

José J. Arizabataga

José Teulica Juncos Bartra

Salas Bedialauneta

José Chabarría

Miguel A. Arizabataga

Antoni Uquedo

Lineon Aranzamendi

José Leisundi Leon Garlecho

Filipe Kardo Domingo Bartra

Bernardo Landaribes

Martin Badiola

Bartolome Badiola

Franco Aristondo

Lorenzo Bussola

Enrique Larrea

Juan José Aristondo

Juan Arago

Jaquín Aguirre

Santa Klara eta San Pedro Kofradiek bat egin eta gero Santa Klara kofradia osatuak 1927ko urtarrilaren 15ean egin zuten Bilera Orokorren Agiria.



Diligencia Libro de actas que presenta, para su legiti-  
macion Don Angel M<sup>o</sup> Leraola, Secretario Central  
de la Cofradia de mercaderes "Santa Clara de este  
puerto de Ondarroa; consta de cuatrocientos folios,  
siendo todos ellos sellados con el que se halla de  
uso en este Puerto.

Ingados Municipales de Ondarroa a once de  
Enero de mil novecientos veintisiete.

El Jefe Municipal  
Suplente en ejercicio



Pedro Cortazar

El Secretario  
Salvador Ambrosio de  
Narresa

Con esta fecha se presenta en este Gobierno para  
su legitimacion el libro de actas de la Cofra-  
dia de Mercaderes de Sta Clara, domiciliada en On-  
dorroa, el cual consta de cuatrocientos folios vitales.

Bilbao 18 Enero 1927

S. D.

Juan de Ansoategui



Santa Klara eta San Pedro Kofradiak bat egin eta gero hasi zen Lehen Agiri Liburuaren legalizazio tramiteak.

Bilera agiri hauek idazteko liburu berria ireki zen. Betebehar legal guztiak betetzen zituen liburua, alegia. Goian agertzen den agiriak adierazten digunez.

Berrikuntzak-berrikuntza, aipagarria deritzat Santa Klara Kofradiako Batzar Orokor honetan

Aipagarri deritzat Batzar Orokor honetan Santa Klara Kofradiako Zuzendaritza Batzordea edo

Administrazio Kontseilu berria osotzeko aukeratu zirela Estatuto Berriak sinatu zuten pertsona berdinak.

Pertsona hauek, kofradia biak bat egin aurretik, erdiak, Santa Klara kofradiakoak izandakoak ziren, eta San Pedrokoak, beste erdiak.

Aurrerantzean ere bide beretik jarraituko zuen Santa Klara kofradiak, inolako bereizkiarik gabe. Datu bat soilik.



1927ko maiatzaren seian Santa Klara kofradiako Zuzendaritza Batzordeak egin zuen bileran Felix Lekuona bazkidea, aurrera San Pedro Kofradiako lehen-dakaria izana bera, aukeratu zuten Santa Klara kofradia ordezkia zezan hil bereko 22an eta 23an Madrilen egingo zen Asanbladan. <sup>(83)</sup>

## VII- GEHIGARRIA

Idazlan honetan behin eta berriz erabili ditut «bat egin», «bat egitea» esaldiak. A. Zubikarai ere «kofradia biak bat egiteko» esaldia darabil bere «Egutegia 1976»an <sup>(84)</sup>

Esaldi hau ez zuen batere gogoko idazlan honetan hainbeste aldiz aipatu dutan Jose Maria Etxaburuk:

*«Kofradiak biak bat egin ebela edo batu egin zirala esatea ez dago txarto. Baiña «Kofradia Barrikoak» lengo betiko kofradiara biurtu zirala esatea obeto izango litzake. Batzuk alde egin ebenean, «Santa Klara» kofradia lengo izenez eta izatez geratu zen oso-osorik: agiri zar guztiakaz, estropadetan irabazitako ikurrin guztiakaz eta abarregaz» <sup>(85)</sup>*

Arrazoa eman behar ote diogu gure Jose Mari Etxaburu, «Kamiñazpi»ri?

ONDARROAN 2012KO URRIAN.

**Imanol**  
**Oruemazaga Baseta.**



Jose M<sup>a</sup> Etxaburu *Kamiñazpi* idazlearen *Ondarroa'ko kontuak* eta *Ondarru'ko Abestiak* liburuak, artikulua honetarako erabili ditugunak

## LABURDURAK:

**OUOBA:** Ondarroako Udal Osoko Bilera Agiria.

**OUOBAL:** Ondarroako Udal Osoko Bilera Agirien Liburua.

**SKOAKBA:** Santa Klara Ondarroako Arrantzaleen Kofradiako Bilera Agiria.

**SKOAKBAL:** Santa Klara Ondarroako Arrantzaleen Kofradiako Bilera Agirien Liburua.

**SKOAKZBBA:** Santa Klara Ondarroako Arrantzaleen Kofradiako Zuzendaritza Batzordearen Bilera Agiria.

**SKOAKZBBAL:** Santa Klara Ondarroako Arrantzaleen Kofradiako Zuzendaritza Batzordearen Bilera Agirien Liburua.

**SKOAKZBGK:** Santa Klara Ondarroako Arrantzaleen Kofradiako Zuzendaritza Batzordearen Gutun edo Komunikapena.

**SKOAKZBGKL:** Santa Klara Ondarroako Arrantzaleen Kofradiako Zuzendaritza Batzordearen Gutun edo Komunikapenen Liburua.

(83) SKOAKBAL, 1927-1940, 14. or.

(84) A. Zubikarai, *Egutegia 1976*, urtarrilak 5.

(85) Jose Maria Etxaburu, *Ondarroa'ko kontuak*, Sendoa, Auspoa Liburutegia, 226, 104. or.



# ISTINKARIA, ITSASOARI LOTUTAKO LANBIDEA KALAFATARIA



Mutrikuko portuan potinak istinkatzen, XX. mende hasieran.

**A**rrantzarako eta itsas garraiorako egurrezko ontzien eraikuntza oso jarduera garrantzitsua izan zen Euskal Herriko kostaldean, XIX. mende bukaera arte. Izan ere, handik aurrera burdinazko kroskoa zuten ontzien lehiaren eraginez zela eta garrantzia galtzen hasi zen. Hala ere, harrez geroztik mende bat baino gehiago iragan den arren bai materialetan bai produkzio teknologikoetan, aurrerakuntza handiak egin diren arren, gaur egun badaude oraindik betiko lehen gai eta sistemekin jardunean ari diren ontziolak.

Jarduera horretarako artisauek espezializatu ugari behar ziren, besteak beste mendiko eta ontziolako arotzak, ontzi errementariak, sokagileak eta itsas arotzak, baita beste hainbat lanetarako peoiak ere. Nahiko deigarria da orain dela 130 urte edo gehiago, ontziola handi batzuetako pertsonalean emakumezko haize-ohial josle eta jostunak azaltzea, lan bera egiten zuten gizonezkoekin batera.

Iraganean, itsas arotzek garrantzi handia izan zuten, ez ontziolako pertsonalaren gehiengoa osatzeagatik bakarrik, baita batzuetan ontzi eskifaiaren barne betetzen zuten funtzio garrantzitsuagatik ere. Luis Martinez Kleiserren arabera, Antzina, Santiagoko ermitak zerbitzu oso prezia- tuak eman zituen: 1577an, Zumaian hondartzan ontziak istinkatzen zituen artisauari baimena eman zitzaion aipatu- tako tenpluko mojaren etxean ostatu har zezan. XVIII. mendean, Zorrotzako Errege Ontziolan guztira 240 langile zeuden, horietatik 140 itsas arotzak ziren, eta horrez gain, bi iztupa irule ere bazeuden.

Nagusiki, itsas arotzen lana ontzietako kroskoko zureriaren arteko junturak ixtea zen, ura ontzi barrura sar ez zedin. Horretarako, zirrikituetan iztupa edo kotoia sartzen zuten berriazko tresnak erabiliz, eta gero masilla, breia edo pintura erabiliz estaltzen zituzten.

Egurrezko ontzien istinkatze lana ontziaren eraikun- tza prozesuan derrigorrezkoa eta beharrezkoa zen, eta horrez gain, urtean zehar errepikatu behar zen, ontzia behar

bezala iraunarazteko. Burdinazko ontzietan ere beharrez- koa izaten zen istinkatzea, askotan ontziaren bizkarra edo kuberta egurrezkoa izaten bai zen.

Ontzietan lan hori oinarritzkoa eta erantzukizun handikoa izaten zen; izan ere, behar bezala egiten ez bazen, behin ontzia uretaratu ondoren, krosko-zuloak agertu zitez- keen, eta horren ondorioz ontzia berriz ere lehorreratu behar zen akatsak konpontzeko. Akats horiek kroskoaren hermetikotasunean ere eragina izan zezaketen, eta portutik urrun antzemanaz gero, eskifaiaren segurtasuna ere arris- kuan jar zezaketen.

Antzina, itsas arotzen lanbidea, gremioaren araudia- ren arabera zegoen antolatuta: maisu, ofizial eta ikasleetan antolatzen ziren langileak. Mailaz igotzeko beharrezko eskarmentua izateaz gain, ezarritako frogak gainditu behar ziren.

Azken hamarkadetan, ikasleek maisuen lana begira- tzen ikasten zuten, eta gehienetan gazte-gaztetatik hasten ziren lanbidea ikasten. Euskal ontziolak txiki samarrak zirenez, ez zen beti izaten istinkatu beharreko ontzirik. Horregatik, itsas arotz asko, lan horrez gain beste batzuetan ere aritzen ziren. Kasu askotan, ontziolako arotzak ere istin- katze lanetan ere aritzen ziren.

Patxi E. Ajarrista



Burdinazko ontziko egurrezko bizkarrean istinkatzen.



# ARRANTZA EGUN EGOERA

Patxi Etxaburu

*Itsasoa!*

*Urdintasun amai gabea,  
bizitza eta lana ematen dizkiguna,  
bukatzen ez diren baliabideen iturria,  
urratzailea, zaurgarria...*

*Gaur egungo kutsadurak,  
arrantzaren gain-ustiapenak,  
kostaldean egindako eraikuntza-lan ezberdinek  
eta aldaketa klimatikoek  
mehatxupean jarri digute  
itsas zelai aparta.*

**A**rrantza jarduerak, ondare publikoaren baliabide naturalak diren arrain eta itsas animaliak harrapatzea du helburu. Egun, baliagai preziatu horien biziraupena eta berreskurapena ez daude bermatuak, bereziki, erabilera komertziala duten espezieen kalen gain-ustiapenaren eraginez. Bizkaiko Golkoa, itsas korrante biziek zeharkatzen dute eta ekoizpen aberatseko eremua da.

Gainera, interes komertziala duten antxoak, atuna, berdela, sardina edo txitxarroa bezalako espezie pelagikoek dira hainbat garaitan gure kostaldera hurbiltzen direnak. Beste batzuk, esaterako legatza, oilarra, txapiroia, edo zapoa gure kostaldeko hondoetan dituzte euren bizilekuak, eta ondorioz leku horiek dira espezie horien kala (arrantza-toki) nagusiak.



Ilargia, itsasargia, arrantzalearen gaueko gidariak



Hasiera gabeko hasiera batean, Jainkoaren negar malko handiek, itsasoa sortu omen zuten

Azken hamarkadetan arrantza-ontzidiaren ustiapen ahalmena eta arrainak atzemateko teknologia oso azkar garatu izan dira. Alde batera, zenbaitetan espeziearen itzulterarik gabeko bidean, arrantza-mota trinkoaren eta epe motzeko aurreikuspen ekonomikoen eraginez. Arrantza era suntsitzaile honi, aparailu moten kontrol falta eta arrainak porturatzean harrapaketak behar bezala ez kontrolatzea, harrapaketa kopuruekin eta abar, gehitu behar zaizkio.

Ezelako kezkarik gabeko ustiapenak, zein kalak eta horietan bizi diren espezieak amaiezinak direla usteak, itsas ingurunea egoera oso larrian jartzea eragin du. Armadoreek, arrantzaleek, xehekariek, eraldaketa industria eta kontsumitzaileek... eragin dugu horretan. Gaizki antolatutako ontzidiaren eta dauden baliabideak jasan dezaketen baina ustiapen-maila handiaren eraginez, espezieak eta horien bizilekuak gelditze biologikoaren eta iraungipenaren bidean daude, aldikako balioztatze zientifikoek behin eta berriro erakusten diguten bezala.

Hauek guztiek arrantzaleen irabaziak murriztea dakarte, galera ekonomikoak izateraino.

Hauen eta beste hainbaten eraginez arrantzak gero eta errentagarritasun txikiagoa du, eta desagertze bidean egon daiteke, hainbatetan.

Ikusirik arrantzaren gain-ustiapenak, eta suntsipen ekologikoak, Kantauri itsasoan eragiten dituen itzulterarik ezinezko kalteez, ezinbestekoa litzateke Administrazio edo Institutuzio ezberdinetako arduradunek eta Gizarte eta sektore interesatuek neurriak ipintzeko berehalako esku-hartzea.



# LOS CAMBIOS EN LA CULTURA GASTRONOMICA A BORDO DE LOS BARCOS DE ARRASTRE DEL PUERTO DE ONDARROA, TRAS LA CONTRATACION DE MARINEROS SENEGALESES

Jasone Camara, José Lijó eta Eric Martínez

*Senegaldarrak Ondarroara lanera etorri direnetik herriko arrasteko txalopetan egon diren aldaketa gastronomikoak aztertzen ditu lan antropologiko honek. Autoreek aldaketa horiek negoziazioaren bidez ala inposaketaz izan diren aztertzen dute. Txalopa baten barruan gertatutakoak aztertzeak ondorio interesgarriak eskaintzen dizkigu, geure herrian bizi garen jatorri desberdineko herritarren artean bizikidetza zelan antolatu ikasteko.*



**E**l planteamiento de este trabajo se inicia con la elaboración de un esquema a partir del cual se quiere obtener información relativa a la vida de una tripulación de un buque del puerto de Ondarroa, con el objetivo de analizar los diferentes factores socioculturales que en los últimos movimientos migratorios hayan podido incidir en el cambio de los hábitos en torno a la gastronomía que se realiza en la cocina y en el comedor de una embarcación en la modalidad de arrastre, donde el cocinero realiza su función.

A modo de introducción histórica, se detalla una breve cronología de los movimientos migratorios que recibe esta localidad pesquera del litoral vizcaíno.

Durante el siglo veinte, a partir de la década de los años cincuenta, comienzan a llegar los primeros trabajadores desde la propia península, Galicia, Extremadura, Andalucía y Portugal. La siguiente corriente migratoria comienza a finales de los años ochenta, y su origen mayoritario es el de Senegal, y en menor número, de Marruecos.

Nos vamos a centrar en el colectivo de los senegaleses presuponiendo que hayan podido ejercer una mayor incidencia en el tema a investigar, debido a sus diferencias culturales y religiosas.

Su condición musulmana incide directamente en los hábitos gastronómicos como en la práctica del Ramadán, en la ingestión de carne de cerdo y en la abstinencia de alcohol.

Las características de la pesca de altura conducen a la tripulación de estas embarcaciones a convivir durante cinco o más días a la semana en alta mar, soportando duras jornadas de trabajo, con un contacto muy cercano y forzado entre la tripulación, así como unas posibilidades muy limitadas para el empleo satisfactorio de las horas de ocio y el riesgo de invadir, en su búsqueda, el espacio vital de algún compañero. (IBÁÑEZ y ERKOREKA, 2009)

En el estudio que nos ocupa observaremos las características de la tripulación en la actualidad: la procedencia de los actores así como sus costumbres gastronómicas a bordo. Nuestra hipótesis de partida es que ésta ha ido cambiando progresivamente, y como reacción a la incertidumbre de la labor marítima y a la reducción de las embarcaciones en activo, entre otros factores, que aseguraban una regular demanda de personal y que era cubierta por marineros autóctonos, en la actualidad la tripulación se ha ido configurando de tal forma que las plazas han sido ocupadas por personal inmigrante venido de regiones diversas del mismo territorio español, en algunos casos, y de fuera de él, en la mayoría de ellos.

La razón de centrarnos en el estudio concreto del impacto de la religión musulmana, es debido a la evidencia de su proliferación en el ámbito pesquero euskaldún, y en especial en la población donde arranca nuestra investigación, Ondarroa.

Veremos cómo se ha configurado la tripulación de este buque en cuestión, y de hallar entre sus miembros personas de diferente religión y costumbres gastronómicas a las cristianas (la cual anteriormente era mayoritaria, o única), y si se cumplen las conjeturas que nos conducen a sospechar que el menú de abordaje ha debido de ser transformado y adaptado a esta nueva situación de la tripulación.

De ser así, nos interesa saber si éstas han sido negociadas por los nuevos actores sociales debido a alguna restricción personal o impuesta por la religión que profesan. O si, tal vez, estas variaciones vienen impuestas desde la capitanía, y en este caso, a qué demandas atiende.

## ANÁLISIS DE DATOS

### EL PUERTO DE ONDARROA, LA PESCA DE ARRASTRE, LOS SENEGALESES Y LA INMIGRACIÓN.

La economía de Ondarroa se basa principalmente en el sector primario. La pesca es la actividad más relevante de la villa, junto a las actividades derivadas de la propia pesca: fábricas de conservas y fábricas y talleres que se han construido debido a esta actividad pesquera. El puerto de Ondarroa es por volumen de capturas el puerto pesquero más importante del Cantábrico. Actualmente cuenta con una flota de treinta embarcaciones en la modalidad de arrastre a la pareja.

Pero la crisis del sector está bien presente. Los duros recortes en los Totales Admisibles de Captura (TAC), la mínima rentabilidad en primera venta a los productos capturados, el mayor coste de explotación (subidas del gasoil, competencia en importación con distintas partes del mundo) son factores que la definen. Además, está la falta de relevo generacional en la pesca en todos los puertos vascos, el de Ondarroa incluido. Un jubilado capitán de pesca de arrastre del puerto de Ondarroa lo cuenta así: *«hoy los jóvenes no quieren ir a la mar...y gracias a los senegaleses que la flota de Ondarroa está viva...yo con catorce años ya me puse a trabajar, luego estudié tres años, y a los veintiuno ya era capitán...pero en este momento nadie de Ondarroa joven quiere ir, quieren trabajar en tierra»*.

Este último factor marcó la llegada de senegaleses a Ondarroa a principios de la década de los noventa. En el boletín número 14 de Ikuspegi (Observatorio Vasco de Inmigración) de febrero de 2007, se puede observar como la comarca de Markina-Ondarroa tiene uno de los índices más altos de porcentaje de extranjeros del País Vasco (un 4,5%), como el peso de la población africana en relación a otros grupos inmigrados es veinte puntos más alta que la media de la Comunidad Autónoma Vasca (un 37%), y su composición masculina es de las más altas (un 63%). La presencia de marineros senegaleses faenando en el puerto de Ondarroa es la explicación de estos datos.



La relación pesquera entre el País Vasco- Bizkaia con Senegal data de los años ochenta, cuando los atuneros vizcaínos llegaron a faenar a las costas senegalesas. En la actualidad, las restricciones de pesca y las limitaciones de licencias por parte del gobierno senegalés son un hecho que responde a la sobre explotación y esquilma de los recursos pesqueros de la zona. En la actualidad la tasa de desempleo en Senegal es de un 48% y la población que vive bajo umbral de la pobreza alcanza el 54%. Estos datos pueden ser explicados en parte cuando García (2006) dice que “ (...) Senegal, el país de partida de centenares de cayucos repletos de inmigrantes indocumentados. Antes, miles de senegaleses utilizaban estas embarcaciones en la pesca atlántica. Pero desde que el presidente Abdoulaye Wade firmó concesiones de pesca con diversas firmas de grandes barcos extranjeros que saquean los caladeros, los nacionales que se ven obligados a comprar una licencia de pesca que no pueden pagar, por lo que esta actividad ha dejado de ser su medio de vida. Del dinero pagado por las concesiones, nada llega a la población”

Un breve apunte sobre las causas de la inmigración en África nos la aporta García (2006): “*La explotación de recursos naturales, la falta de voluntad de las clases dirigentes para reactivar la economía, la escasa incidencia de las inversiones en la actividad productiva, así como el neocolonialismo y la corrupción han llevado a África a una situación de empobrecimiento forzoso con limitada capacidad de recuperación. El continente padece un enriquecimiento sin desarrollo que ni los gobiernos autóctonos, ni las clases dirigentes que conforman las élites políticas, ni las organizaciones internacionales han sabido o querido solventar. En semejantes circunstancias, muchos africanos optan por emigrar en busca de una vida mejor.*” Ello, junto a una demanda de mano de obra específica en destino explica en parte la presencia de marineros senegaleses en Ondarroa.

## LOS INFORMANTES

Se realizaron seis entrevistas en profundidad. A tres marineros senegaleses trabajadores de arrastre del puerto de Ondarroa, y a tres trabajadores autóctonos de barcos de arrastre del puerto de Ondarroa: a un cocinero, a un capitán de pesca y a un jefe de máquinas.

El primer senegalés se llama Muza. Tiene 41 años y llegó a Ondarroa en 1989. Fue uno de los primeros senegaleses que llegaron a este puerto para trabajar en la mar. Tenía antecedentes familiares marineros en Senegal, su tío trabajaba en la mar en un barco atunero de Bermeo en Senegal. Su profesión en Senegal era la de soldador. Trabajo durante cinco años en los barcos de arrastre de Ondarroa. En la actualidad su profesión no está relacionada con la mar.

Ousman el segundo senegalés, tiene 42 años. En la península lleva 12 años trabajando en la mar, 8 años en barcos de arrastre de Ondarroa y 4 en bajura en Hondarribia. En Senegal trabajó durante once años como marinero, solamente con barcos senegaleses, no en barcos extranjeros. Su familia es de tradición marinera.

Babaka, el tercer senegalés, tiene 32 años. Lleva más de diez años en la península y ocho años como marinero. En arrastre en el puerto de Ondarroa trabajó durante seis años, y lleva dos años faenando en bajura, en el puerto de Hondarribia. En Senegal compaginaba los estudios con la pesca.

Juan Mari Artola Arzuaga trabajó como capitán de barco de arrastre en el puerto de Ondarroa. Tiene 68 años y se jubiló a los 55 años. Comenzó a trabajar en la mar a los 14 años.

El cocinero se llama Diego y tiene 52 años. Es natural de Galicia y llegó a Ondarroa con diecisiete años a trabajar en la mar. En la actualidad faena como cocinero en un barco de arrastre.

El jefe de máquinas, Jokin, tiene 42 años, es natural de Lekeitio y tiene veintidós años de experiencia faenando en la mar, siempre relacionado con el motor y con el mantenimiento de los aparatos de a bordo. Estudió en la Escuela Náutica de Ondarroa y Pasajes.

Una de las características que se tuvo en cuenta para la selección de los marineros senegaleses fue su condición religiosa musulmana.

En relación a la selección de los informantes, hay que mencionar la dificultad para la realización de las entrevistas, debido a las características horarias que esta profesión conlleva. Los trabajadores de los barcos de arrastre hacen mareas de seis días. Suelen salir los lunes de madrugada y regresan los domingos a la mañana. Tienen veinticuatro horas de descanso. Así, los informantes senegaleses fueron seleccionados a través de dos asociaciones senegalesas ubicadas en Ondarroa y Hondarribia.

Dos de los informantes autóctonos tenían relación con el grupo de investigadores; son los únicos que en la actualidad trabajan en barcos de arrastre. El otro informante autóctono, el capitán de barco, se contactó en el Hogar del Jubilado del pueblo de Ondarroa.

También se podría hablar de carencias en cuanto a la falta de contraste entre la información verbal obtenida en las entrevistas con una información observacional, como expresan Kaplan y Carrasco (2002) “*si ya resulta cuestionable medir y caracterizar el comportamiento alimentario de la población autóctona por medio de la información verbal y las categorías de encuesta laboradas sin una investigación etnográfica previa que fundamente los diseños de obtención de datos, aún es más inadecuado pretender aplicar este tipo de técnicas a grupos que se hallan en una situación de transición desde universos culturales tan alejados*”.









Las entrevistas son la base para la construcción descriptiva del relato que permite conocer la cultura gastronómica en los barcos de arrastre y la interrelación que se produce entre los actores de las dos (o tres) etnicidades estudiadas.

## EL INICIO DE LA MAREA O EL EMBARQUE

Las mareas son semanales, y normalmente empiezan el domingo a la noche, en cuanto son avisados por el patrón, y arriban el sábado, indiferentemente de la hora, con tal de que el pescado esté en puerto el domingo, día en que la venta se cotiza a un precio más elevado.

Al empezar la marea, el cocinero, como encargado de administrar la comida, inicia también su tarea:

*«Mi primer trabajo cuando embarcamos los domingos es guardar correctamente los alimentos, que la empresa (proveedora) deposita una hora antes de partir; elementos frescos en la nevera y el resto en el congelador. El café es fundamental, después de ordenar los alimentos ya estoy preparando café».* (El cocinero)

Una empresa abastecedora de alimentos es la encargada de suministrar éstos a bordo. La explicación del jefe de máquinas es muy ilustrativa:

*«Los domingos embarcamos a una hora concertada por el patrón, previamente el provisionista de barcos, empresa especializada que actualmente nos proporciona los víveres para cada campaña semanal, una hora antes de partir transporta las provisiones hasta la misma embarcación según el pedido que ha hecho el mismo cocinero. La hoja de pedidos se hace en cada marea, el cocinero se la pasa al patrón y éste antes de llegar a puerto la envía por fax un día antes de arribar. Otras embarcaciones envían la hoja de pedido semanal a Eroski, depende de la compañía».* (Jefe de máquinas)

## LOS ALIMENTOS A BORDO

No todos los alimentos que se consumirán proceden de la remesa de la empresa proveedora:

*«el café es la única bebida que pone el barco, las bebidas alcohólicas las trae cada uno. Nosotros los gallegos, por ejemplo, tenemos orujo, lo tomamos con el café... también los portugueses, y para las comidas, vino de cartón. Los senegaleses toman mucho té».* (El cocinero).

Los alimentos propios que lleva la tripulación responden a los gustos personales:

*«Yo solía llevar galletas y leche. El barco ponía la leche, pero por si acaso está cerrado el almacén donde comes, pues tengo mi propia leche y cuando quiero cojo».* (Muza)

*«yo me llevaba galletas y chocolate, que me gustaba»* (Capitán de barco)

Estos alimentos eran administrados y respetados por cada trabajador:

*«Si tú traes comida, tu lo guardas en tu habitación o en tu taquilla, en la cocina solo tiene derecho el cocinero.»* (Ousmane)

*«Podíamos llevar comida. En ese casos se respeta ahí nadie coge nada de nadie».* (Muza)

Como ya se ha dicho, también se llevan alimentos que el barco aporta:

*«Leche, fruta y agua son los alimentos que cada miembro de la tripulación debe llevar; yo sólo llevo agua y leche como bebidas, mi trabajo exige una precisión importante, y a bordo, es decir en el trabajo no bebo alcohol, ni un trago».* (Jefe de máquinas)

Estos productos que aporta el barco suelen ser extraídos de la nómina mensual a partes iguales:

*«Los gastos de la comida, eso los marineros lo pagan. En la nómina te quitan, a todos».* (Muza)

*«El rancho se paga, se descuenta de la nómina del mes, son cuatro mareas. Esta misión la controla el patrón de costa».* (Jefe de máquinas)

## LA COCINA

Es el lugar donde se guardan los alimentos y donde trabaja el cocinero. El jefe de máquinas es el encargado del mantenimiento de las máquinas de la cocina. Todo lleva un orden establecido:

*«La cocina se encuentra junto al comedor, se trata de un espacio que tiene unos 10 metros cuadrados. En la misma se encuentra una nevera tipo industrial. Los alimentos se encuentran a 2-3 grados de temperatura y un congelador a 0 grados. En la nevera se conservan los alimentos siguientes: verduras, carne fresca, pescado del día (del barco, que se pesca a bordo), los huevos a parte y en el congelador: pan congelado, que luego se mete al horno,*





*carne congelada. En términos marinos la nevera se denomina la «gambuza». El mantenimiento de la «gambuza» me corresponde, temperatura invariable (...). En la nevera también se guardan yogures, fruta y leche. Para cocina se utiliza agua hervida».* (Jefe de máquinas)

Hay cierta permisividad en el acceso a la cocina:

*«Puedes entrar ahí (en la cocina) a calentar y en los barcos siempre hay una caldera grande con agua caliente o con leche caliente siempre hay con café también. Si quieres café solo tomas café, si quieres con leche...».* (Muza)

*«A la gente marinera le gusta cocinar, pero a bordo el cocinero hace, si te apetece pues bueno, pero normalmente donde hay cocinero no entra nadie, o igual vas a ayudar»* (Capitán de barco)

La cocina de un barco está adaptada a las condiciones del mar. Está junto al comedor:

*«La cocina del barco es poco espacio, es parecido a la de casa. La diferencia es que tiene que estar todo sujeto sino se cae pero aparte de eso es igual que la cocina de casa».* (Ousmane)

*«La cocina está separada por una puerta. Cuando hay mal tiempo entonces se cierra, cuando viene el viento. Normalmente es como cocina americana, el comedor y la cocina con una puerta, pero la puerta no se suele cerrar. Se suele cerrar la puerta que da a cubierta, pero la puerta que da al comedor no se suele cerrar nunca».* (Ousmane)

## EL COCINERO

La comida y la cena es responsabilidad del cocinero, mientras el desayuno depende de cada uno.

*«Yo me encargo de la comida para una semana que es el tiempo de cada marea, para las 6 de la mañana ya está el café de nuevo pero nunca falta. No hay un horario fijo depende de la faena»* (Cocinero)

Se valora la variedad en los menús:

*«Los cocineros saben su función y cuando estaba cada semana, cada día se hacían comidas diferentes»* (Muza)



El cocinero no tiene una formación específica, pero sí hace unos cursos relacionado con la tarea de cocinar (Manipulador de alimentos, por ejemplo). Además, de las funciones propias de cualquier cocinero, también suben a cubierta a faenar. En este aspecto no existe un acuerdo:

«El cocinero es marinero que ha aprendido a cocinar; no es de estos cocineros de primera, son buenos, que han pasado mucho tiempo ahí...a mi me ha cuadrado trabajar con cocineros pero de categoría, yo tenía un extremeño que vivía aquí en Ondarroa, pero de categoría, eh, pero cuando hay mucho trabajo de pescado y eso, trabajan igual igual, a parte del de la cocina, en la cubierta como los demás». (Capitán de barco)

«Depende de que equipo de barco, el cocinero, si es de bajura el cocinero suelo ser un marinero más. Después de hacer la comida suele ayudar en tema de labor del barco también, como arreglar pescado o a limpiar o a la bodega y si es de altura entonces es cocinar». (Muza)

«La experiencia que tengo aquí los cocineros están en la cocina, a veces si hay mucho trabajo y no hay suficiente tripulación a veces también trabajan en cubierta, pero eso no es habitual». (Ousmane)

Como ya se ha dicho, el cocinero suele ayudar-trabajar en cubierta, pero no parece que en la cocina reciba mucha colaboración:

«Mi queja que no ayudan en la cocina, pelar patatas, limpiar los platos, limpiar el pescado para comer...esto pasa en todos los barcos, algunos ayudan pero en la cocina siempre se necesita más ayuda». (Cocinero)

## LOS MENÚS HABITUALES

Existe variedad en los menús:

«Los platos habituales son legumbres, ensaladas... como primeros platos y pescados sobre todo y carne, de segundo plato. Extraordinariamente pescado a la parrilla, cuando alguien me lo pide, sino frito». (Cocinero)

«Cuando el primer plato es potaje, el segundo plato es pescado frito, por ejemplo chicharros, verdel, salmonete, faneca, anchoa etc., cuando hay pescado frito el propio cocinero trae la fuente con el pescado recién frito a la mesa del comedor y este detalle es muy agradecido por la tripulación» (Jefe de máquinas)

«Cada día cambiaba la comida, podía haber pollo frito, pollo asado, pollo al horno, pescado al horno, de todo, comen bien los marineros. De primer plato suele ser sopa de pescado, sopa de pollo,

depende qué día es, puede ser de garbanzos también, mezclado en arroz, con potaje, con carne. Ensalada se suele comer mucho los domingos». (Muza)

El café es fundamental a bordo de un barco de arrastre:

«Hay café las 24 horas, esta es la primera labor del cocinero, es imprescindible el café». (Jefe de máquinas)

## EL PESCADO CAPTURADO

Se suele comer pescado capturado en la mar, y el cocinero decide la forma de prepararlo:

«El pescado fresco es el alimento «estrella», frito como la faneca, el chicharro, el verdel, salmonete y sobre todo la anchoa, cuando viene. En cambio el rodaballo, el bonito y el lenguado tienen gran aceptación». (Jefe de máquinas)

«El pescado que se captura a bordo es lo que más nos gusta a toda la tripulación, de los siete días de campaña, tres días por lo menos hay pescado, además es un alimento fresco, cuando hay abundante lo pongo frito y si hay tiempo a la parrilla». (Cocinero)

El cocinero también elige y decide el pescado capturado para el menú. Los mandos parece que tienen posibilidad de influir:

«Se suele comer pescado que se pesca, lo elige el cocinero. Creo que el cocinero suele hablar con el contramaestre, pero ese es el cargo (decisión) del cocinero. El cocinero viene, mira el pescado, lo que le gusta, o lo que tiene para hacer y lo coge y ya está. (risas) Los marineros no decidimos nada». (Babaka)

## CELEBRACIONES Y PLATOS EXTRAORDINARIOS

Las celebraciones suelen ser escasas y muy sobrias, y no se hacen platos especiales:

«Generalmente no se celebran cumpleaños u otros eventos a bordo, la presión laboral es muy considerable y se optimiza la pesca, el rendimiento. Ocasionalmente, la boda de algún familiar, bautizo etc. unas galletas surtidas y quizá un vino dulce, pero esta celebración no es frecuente ni mucho menos». (Jefe de máquinas)

«No hay celebraciones, si alguien quiere festejar algo trae sus pastelitos o galletas especiales». (Cocinero)



## GUSTOS PERSONALES

El arroz y el pescado son dos productos alimenticios que se ingieren habitualmente en los menús en Senegal. Hay que recordar que hay poca variedad en la gastronomía del día a día en Senegal. Se puede decir, en este aspecto, que los gustos personales vienen marcados culturalmente

*«Cada uno tiene su típica comida, a mí me gusta el arroz, el macarrón también me gusta. Lo nuestro, la típica comida es arroz, arroz en salsa, arroz con pescado, arroz con carne».* (Muza)

*«A mí lo que más me gusta es el arroz con pescado, porque el pescado lo puedes comer todos los días, pero la carne si la comes todos los días no es bueno, pero pescado puedes comer todos los días, o arroz, o arroz con pollo por ejemplo, o lenteja también, es la comida tradicional de Senegal. En Senegal se come más pescado».* (Ousmane)

*«Los senegaleses traen sus infusiones y las preparan».* (Cocinero)

## EL COMEDOR Y LOS UTENSILIOS

El comedor y los utensilios están adaptados a las características del trabajo en alta mar:

*«Se utilizan cubiertos, vasos y platos especiales para navegar, que no se rompan».* (Jefe de máquinas)

*«Aquí todos utilizamos los mismos recipientes. Para comer en la mar no se utiliza vidrio pues el balanceo es constante».* (Cocinero)

## HORARIOS Y LUGAR DE COMIDA

No existen horarios en la comida a bordo, todo está supeditado a la pesca:

*«La comida del mar casi no tiene horario, eso depende de la función de la pesca, del trabajo de la cubierta, cuando hay mucha pesca pues al día puedes comer una vez solo. Pero cuando hay poco pues puedes comer los tres veces del día. El desayuno depende de cada uno, pero la comida del medio día y la cena eso es responsable el cocinero»* (Muza)

*«Ahí no hay horarios; igual largamos, echamos el aparejo, y la gente igual comiendo, en una de esas pues tenemos un enganche en el fondo, y a virar... en el arrastre por lo menos, no hay horarios».* (Capitán de barco)

Los mandos no comen en el comedor con el resto de la tripulación:

*«El patrón coge su plato y come en el puente los demás cuando podemos en el comedor, a veces no coincidimos».* (Cocinero)

*«Los mandos suelen comer arriba, y los maquinistas y los marineros suelen comer abajo, las mesas son para 5 o para 10, depende del tamaño del barco o cuanta tripulación lleva el barco».* (Muza)

Cada uno tiene su lugar en la mesa:

*«Normalmente la gente, la gente ocupa siempre el mismo lugar, normalmente cada uno en su sitio. La primera vez que llegas si llaman a comer, si hay un sitio libre te vas ahí. El contramaestre puede decirte, «oye aquí es tu sitio, si vienes nuevo», y luego tú sigues ahí para siempre. Normalmente si hay senegaleses se juntan. No, en cubierta cada uno su puesto».* (Ousmane)

El tiempo de comer lo marca también la faena

*«El tiempo para comer es el justo pues el trabajo es intenso».* (Jefe de máquinas)

Se suele comer a turnos:

*«Pues dependiendo si no hay mucho pescado puedes estar una hora comiendo, hablando pues si hay mucho trabajo hay que comer de turnos cada dos personas o cada tres tienen que ir a comer».* (Muza)

Por esa inseguridad en el horario de comer se crea una necesidad de ingerir alimentos «por si acaso».

*«Los marineros comen bien. En cada momento que levantan lo primero que hacen antes de tocar nada, a comer primero. Cualquier momento que te levantes tienes que comer algo porque no sabes cuánto tiempo vas a estar ahí trabajando puede ser 24 horas, puede ser 10 horas o puede ser 5 horas o puede ser media hora, entonces primero a tener algo en el estómago y luego ya pues».* (Muza)

## CONVERSACIONES Y COMENSALIDAD

Las conversaciones son relacionadas de cuestiones de la mar y de la familia:

*«La conversación mayoría solía ser de casa, de la pesca, también solía hablar mucho del mes y del dinero que cobráis y la familia, los que son amigos solían hablar entre ellos de temas familiares, sus hijos, sus amigos».* (Muza)

No parece que lo expresado por Homobono (2002) se refleje en los barcos de arrastre (cuando dice que «entre los compañeros de una misma embarcación existe una estrecha afinidad y vínculos propios de un grupo primario, ya que



aquella es un espacio convivencial en el que transcurre la mayor parte de su vida cotidiana, y donde se comparte colectivamente la comida elaborada a bordo. Afinidad de intereses económicos, derivada de un trabajo que se realiza en equipo y cuyo sistema de reparto del producto -a la parte- contribuye a estrechar la cohesión grupal»). La condición de emigrantes en solitario (la mayoría no tienen ningún familiar y en menor medida femenino) parece ser un factor más condicionante, y por ello, la formación de dos grupos, al menos, los autóctonos y los senegaleses.

Es en la comida en el único lugar donde los senegaleses hablan su idioma materno y se definen «los unos» y «los otros»:

*«Entre nosotros hablamos wolof, pero si estamos fuera de mesa vamos hablar en castellano, como ellos».* (Babaka)

## SENSACIONES FÍSICAS

El frío, el cansancio, el sueño, la mala mar, suelen ser factores que influyen en la ingesta de alimentos

*«Yo si estoy cansado, cansado, cansado, me quita el apetito, no tengo ganas de comer no puedo. Para mi no estoy hecho para la mar, no aguanto el ritmo, cuando uno está cansado tiene menos ganas de comer. Lo único que necesita a dormir o descansar un poquito y luego ya comerás»* (Muza)

*«Si hay buen tiempo se come más, pero si hay mal tiempo a comer muy poco. No sienta bien por el tiempo que no te deja comer, para mí depende de la mar.¿Hambre?, si hay mucho trabajo sí. Si estas muchas horas en cubierta y la hora de comer llega y no haces comida y pasas hambre».* (Babaka)

## LOS MARINEROS SENEGALESES Y SUS PECULIARIDADES CULTURALES CON RESPECTO A LA COMIDA

Las religiones son, generalmente, una de las principales fuentes de donde manan las normas y códigos dietéticos. El caso de la religión musulmana es un ejemplo de ello. Hay que tener en cuenta, que *“en una situación de migración, las prácticas alimentarias parecen ser, según diversos autores, uno de los factores cuyo cambio y/o aculturación presentan unas variaciones más lentas”* (Medina, 2002:126). Así, las prescripciones coránicas que prohíben la ingesta de cerdo, la abstinencia de alcohol y el ritual del Ramadán suelen ser prácticas mayoritariamente cumplidas por los senegaleses musulmanes a bordo de los barcos de arrastre.

## LA NO INGESTA DE CARNE DE CERDO

No se atienden ni comprenden sus particularidades alimentarias, hasta llegar al engaño, a pesar de pagar la comida como el resto de la tripulación:

*«Si a un paisano le han metido un cerdo en la comida sin que sepa que no la comes entonces lo único que tengo de ir a donde el armador y digo «esto pasa con tu barco». El tema de la comida es un conflicto si denuncias ese tipo de cosas, también al marinero, te echan, entonces la gente tiene miedo denunciar muchos casos de esos, tendrá un comentario pero solo para que sepa pero no es para denuncia»* (Muza)

*«Porque el menú comían igual igual, porque a bordo tienes que comer lo que hace el cocinero, no hay extraordinarios que, yo no quiero lentejas, y a aquél, no... si hace lentejas, lentejas, si hace alubias, alubias... a mí tampoco me gustaban las lentejas, pero tenía que comer...».* (Capitán de barco)

*«¿Cambio en el menú? no, no, no».* (Capitán de barco)

Entre los senegaleses existe el temor a ser engañados, y que los potajes se hagan con cerdo y luego se separe para su presentación. Ello ha derivado en la abstención de comer potajes y sustituirlo por una comida hecha por ellos o realizada por el cocinero:

*«Hemos tenido muchos problemas con el cocinero, porque cuando hacían potaje, lo hacían con costilla de cerdo y luego quitar los cerdos».* (Babaka)

Pero hay excepciones. Los «cocineros buenos», como los han denominado los tres senegaleses:

*«Yo hace más de 10 años que cuando hago potaje cuezo los ingredientes a parte pues los musulmanes no comen cerdo, y así todos contentos».* (Cocinero)

*«El potaje es el mismo para toda la tripulación y el chorizo y demás ingredientes procedentes del cerdo: chorizo, morcilla etc. se colocan a parte».* (Jefe de máquinas)

*«Eso depende del cocinero porque hay unos buenos y unos malos. Hay barcos que sí hacen cerdo, a los marineros de Senegal les dan pollo u otra cosa».* (Babaka)





## NO ALCOHOL

Los senegaleses no beben alcohol, pero no supone ninguna «alteración» en la cotidianidad tradicional a bordo. Incluso es bien considerada:

*«No que va...igual vino bebían un vaso...pero lo demás, eso coñac y eso, nada». (Capitán de barco)*

*«Nosotros no consumimos alcohol. Los de aquí, depende de la persona también, la mayoría lo que consume es vino, vino tinto, pero aparte alcohol fuerte no, porque el trabajo no va con esto. Hay muchos patrones también no te dejan llevar alcohol porque si tú estas borracho no vas a trabajar. Muchas veces se lleva vino, solo vino». (Babaka)*

## RAMADÁN. EL AYUNO

El ayuno o Sawm consiste en una abstinencia alimentaria observada durante un mes lunar, el «Ramadán», en cuyos días, desde el amanecer hasta el ocaso del sol, el musulmán debe ayunar totalmente. El Corán prescribe el ayuno con mucha precisión: durante el día están prohibidas la comida, la bebida y las relaciones sexuales.

No se comprende esta práctica, pero se respeta.

*«La religión en tiempo del ramadán, los musulmanes se irritan pues el trabajo es intenso y según en qué época sea, si el día es más largo, el hambre y sobre todo la sed. Cuando atardece ellos mismos se preparan su comida, pues la cocina está disponible, con sus ingredientes especiales para la ocasión». (Jefe de máquinas)*

Es una práctica comúnmente realizada por los senegaleses musulmanes:

*«Los senegaleses y también los marroquíes comen con el resto excepto en el ramadán, que no prueban ni la comida ni beben, aunque algunos no aguantan y beben pues el trabajo es duro y en este tiempo ellos preparan su potaje cuando acaba el día». (Cocinero).*

*«Respetamos el Ramadán a bordo, lo hacemos, la mayor parte lo hacemos en nuestras creencias, en nuestras costumbres, que tenemos hemos acostumbrado antes de llegar aquí, la gente les parece duro para ellos pero personalmente para nosotros no es duro, estamos acostumbrados y tenemos la mente preparada para eso. A partir de la 5 de la mañana hasta las 9 o 8:30 de la noche no puedes comer nada, ni beber nada, nada, nada. Estamos preparados mentalmente. Si no te notan en tu labor, tu función de labor, lo que haces, no creo que te van a rechazar. El problema es algunos no*



*pueden entender cómo puedes estar todo el día sin comer, es el único problema, la gente que no saben eso es muy duro para ellos entender cómo se puede hacer eso, estar todo el día sin comer y trabajando».* (Muza).

El capitán de barco fue el único informante que dijo que los senegaleses no cumplían con el Ramadán:

*«A bordo no se puede hacer, te imaginas, con lo que trabajan, y además se gasta mucho, a bordo... unos que andaron conmigo, lo hicieron dos-tres días».* (Capitán de barco).

La realización del Ramadán faenando en alta mar suele tener sus problemas añadidos, condicionados por el propio ritmo de trabajo, como la ruptura por ejemplo:

*«El Ramadán nosotros lo pasamos en el barco. Sí es duro. La gente cumple normalmente más del 90%. A la madrugada antes de que salga el sol te pones a comer a última hora para poder aguantar. En el barco también hay problemas porque a esa hora no se come. Entonces te levantas y preparas algo para comer».*

*A la hora de cortar el ayuno suele ser una fiesta, pero el problema es que aquí en el barco, por ejemplo a la hora de cortar, igual estas trabajando y tienes que seguir trabajando y no vas a ir a cortarlo, coges un poco de agua, o un poco de beber y a seguir trabajando hasta que puedas ir a comer, porque no vas a dejar el trabajo para ir a comer».* (Ousmane)

Los senegaleses quieren dejar claro que durante el Ramadán, ellos no experimentan consecuencias físicas que disminuyan su capacidad laboral:

*«Algunos piensan que te va afectar el trabajo, pero nosotros no. Piensan que si no comes igual no trabajas en condiciones, pero no nos afecta. Respeto sí, algunos sí pero algunos igual no, les molesta. Porque algunos piensan que esto es tontería, estar en un barco y no comer y seguir trabajando. Depende de la persona».* (Babaka)

## ALGUNAS CARACTERÍSTICAS CULTURALES DE LOS SENEGALESES EN LO GASTRONÓMICO

En cuanto a modos de comer:

*«Solemos repartir la comida en la misma fuente, pero aquí como no hay, cada uno come en un plato diferente y ahí en los barcos no podemos*

*elegir ir haciendo eso, entonces tenemos que hacer como la gente come aquí, tú con tu plato, yo con mi plato. Pues en Senegal comemos en la misma fuente y cada uno comemos la mayoría a mano antes pero ahora ya la gente come con cuchara. En el barco utilizamos cuchara».* (Muza)

Con el consumo de té se produce cierta interculturalidad y conexión con el «otro» grupo:

*«Nosotros siempre llevamos té, ese té es aparte para nosotros, si quieres uno también puede tomar con nosotros porque hay gente, amigos en el barco y quieren tomar. Se hacen pequeñas cantidades, como en casa. Se hace en tetera pequeña y con té verde»* (Ousmane)

La sustitución de los potajes por comida realizada por los senegaleses conlleva también que parte de «los otros» compartan ese menú, apartándose de lo reglado, comer la comida hecha por el cocinero, y generando cierto conflicto con el cocinero y que éstos decidan no permitir que los senegaleses entren en la cocina:

*«Si hay también comida senegalesa algunos se apuntan, suelen ser dos o tres personas, depende. Comida senegalesa, arroz típico de Senegal, arroz con pescado... algunos que comienzan y ya no paran. Este arroz se hace en la cocina cuando te deja el cocinero. Pero a veces si hace el cocinero potaje, tu no acostumbrado a comer potaje, un día puedes decirle «oye, vamos hacer arroz hoy», si es un cocinero bueno puede dejarte hacer para unos cuatro o cinco senegaleses. Hay unos cocineros también que hacen arroz, unos pasta, viene a comer y viene enfadado, por eso si vienen a coger muchos, mucha gente de aquí también tiene miedo para comer con nosotros, pero le gusta comer arroz, pero a veces se enfada el cocinero, porque si hace un potaje, la gente come arroz se va enfadar con todos, por eso a veces no quiere esto, muchos cocineros no quieren esto para que no dejen de comer su comida».* (Ousmane)

## REIVINDICACIONES Y PROPUESTAS DE LOS SENEGALESES CON RESPECTO AL DERECHO A UNA ALIMENTACIÓN RESPETUOSA CON SU CULTURA Y SU RELIGIÓN.

Hay que tener en cuenta que «Los comportamientos alimentarios son contemplados y valorados socio-culturalmente dentro del marco de las sociedades que los producen. Y son, así mismo, un instrumento útil y explícito con que los inmigrantes cuentan para recrear su identidad en la







*emigración (...) el comer se sitúa como un instrumento dentro del campo de la identidad colectiva y se convierte, de este modo, en una de las fronteras simbólicas a tener en cuenta entre grupos en contacto, convirtiéndose en una evidencia de la participación diferencial de los individuos en un marco socio-cultural más amplio» (Medina, 2002:124).*

Los marineros senegaleses explican las diferencias en cuanto al respeto cultural entre los barcos vascos cuando faenan en Senegal y cuando lo hacen en los puertos vascos:

*«Entre un barco de Senegal y uno de aquí hay mucha diferencia porque allí los barcos son mayoritariamente autóctonos. Aquí, saliendo de tu país somos inmigrantes entonces esa es la diferencia. Por ejemplo en Senegal un barco extranjero entra allí, tiene que entrar con una licencia y la licencia pone normas. Esas normas, los mandos de arriba cumplen ese reglamento, un convenio de la mar. En Senegal la gente que va en los barcos tiene mucho cuidado de no meterse con la gente, con su forma de ser, con su raza, con su religión, con su manera de hacer las cosas, entonces hay mucha prudencia*

*(...) cuando te ponen un convenio el cocinero primero le avisan que hay 6 o 4 marineros senegaleses, que eso es su alimento, su tema de comida es ese, no comen cerdo, no beben alcohol y muchas cosas que a nosotros la religión nos prohíbe hacer, entonces eso como lo pone el convenio lo tiene que hacer en la cocina. El cocinero respeta eso. Eso de barcos franceses y españoles en Senegal» (Muza).*

*«Si los barcos eran españoles o franceses tenían dos cocineros a bordo, si la tripulación, si hay españoles, tienen un cocinero para los españoles y otro para los senegaleses». (Ousmane)*

### **SE EXPRESAN LAS QUEJAS Y SE PLANTEAN PROPUESTAS DE MEJORA:**

*«El día que entras en un barco, avisar al cocinero que no comes cerdo, ni alcohol, pero a veces hay mucho jaleo con eso porque el cocinero no tiene que hacer dos comidas a la vez. Yo en los tres barcos que he andado, el primero no había problema porque éramos dos senegaleses y hacíamos*



comidas, pero en los dos últimos hemos tenido muchos problemas con el cocinero, porque cuando hacían potaje, lo hacían con costilla de cerdo y luego quitar los cerdos..., cuando está cocinado con cerdo ya tiene la grasa y todo dentro y siempre había jaleo (...). No hacían dos potajes, a veces también hay mucho jaleo con los cocineros porque al final de mes tienen que pagar igual, si no comes el cerdo por ejemplo ellos no te hacen otra comida y tienes que sacar de tu bolsillo para hacer eso. Pero eso no puede ser, a veces tenemos este problema, al final de mes tienes que descontar todos igual igual, si no has comido esto, en la marinera siempre llevan cerdo los barcos, sabes, nosotros no queremos alcohol, no comemos cerdo». (Babaka)

«Eso depende del cocinero porque hay unos buenos y unos malos. Hay barcos que si hacen cerdo, a los marineros de Senegal les dan pollo u otra cosa. O te hace pescado frito, eso también podrá entrar en la cabeza ¿no?. Pero si hace cerdo y dice, «oye... Voy hacer cerdo para todos». Eso no es normal, ¿no?, al final de mes vamos a pagar igual igual. Hay muchas veces también si hace cerdo tu haces un poco de arroz y te deja hacer ... hay unos cocineros también no te dejan cocinar a la cocina, no te deja porque si hace una comida va decir «ese para todos», depende del patrón. Si tienes problema con el cocinero, hay unos patrones también un poco racista, aquí este barco vamos a hacer una comida o una cena pero si hace eso tu pones de tu bolsillo y puedes hacer un arroz o lo que sea para comer, es normal ¿no?. Hay muchos barcos hay problema de esto, pero nosotros andamos aquí hacemos, sacamos del bolsillo, hacemos la comida de los senegaleses, nosotros preferimos esto, pero no se puede hacer en todos los barcos. Depende también». (Babaka)

DONOSTIA, MAYO DE 2011

## BIBLIOGRAFIA

- ALONSO, Fernando. «¿Por qué luchamos los vascos?», Txalaparta, Tafalla, 2001:216)
- BELAUSTEGI, Leo. «El futuro del sector pesquero en Euskal Herria», elcorreo.com, 13-3-11 <http://www.elcorreo.com/vizcaya/v/20110313/opinion/futuro-sector-pesquero-euskal-20110313.html> (Fecha de consulta: 14/4/2011)
- BLANCO FERNÁNDEZ DE VALDERRAMA, Cristina. «Inmigración extranjera en el País Vasco. Estrategias políticas para la gestión de la diversidad», Dialnet Unirroja. Política y Sociedad, 2008, Vol. 45 Núm. 1: 187-203
- DÍAZ MARTÍNEZ, Beatriz. «Y así nos entendemos», Likiniano Elkartea, Bilbao, 2004, pp. 191
- ETXALUZE OROZKO, Alberto. «La falta de tripulaciones en el sector pesquero», Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco, 3, Untzi Museoa- Museo Naval, Donosti-San Sebastián, 2000, pp. 593-605
- GARCÍA FERNÁNDEZ, C. «Las causas de la emigración en África». Papeles De Cuestiones Internacionales, 96,2006, 89-98.
- HOMOBOBO, Juan Ignacio. «Adaptando tradiciones y reconstruyendo identidades. La comensalidad festiva en el ámbito pesquero vasco cantábrico», en GRACIA, M (Coord). «Somos lo que comemos: estudios de alimentación y cultura en España», Ariel, Barcelona, 2002, pp. 179-208
- IBÁÑEZ, Itxaso; ERKOREKA, Anton: «Vida a bordo en los barcos de la flota de Altos Hornos de Vizcaya en la década de 1950», Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco, 6, Untzi Museoa-Museo Naval, Donostia-San Sebastián, 2009, pp. 499-520
- KAPLAN, Adriana y CARRASCO, Silvia. «Cambios y continuidades en torno a la cultura alimentaria en el proceso migratorio: de Gambia a Cataluña», en GRACIA, M (Coord). «Somos lo que comemos: estudios de alimentación y cultura en España», Ariel, Barcelona, 2002, pp. 97-123
- LÓPEZ, Sergi. «Pescadores del Cantábrico: la otra mirada del drama», AIBR, Revista de Antropología Iberoamericana, nº 26, enero 2003
- MEDINA, F. X. «Alimentación, etnicidad y migración: Ser vasco y comer vasco en Cataluña», *Somos lo que comemos: Estudios de alimentación y cultura en España* (1st ed.), 2002, Ariel, pp. 123-148
- TOLOSA BERNÁRDEZ, Maite. «La pesca en el país vasco. Un sector en graves dificultades», Euskomedia.org,
- VECIANA VIDAL, F.J. «Tipos de pesca: el arrastre», 1997, <http://www.tinet.cat/mediterranea/html/castella/pesca/tipus/arrastre/arrastre.htm> (Fecha de consulta: 3/3/2011)





Dakar (Senegal), 1957an. Arrantzale ondarrutarrak, Dakarreko portuan bertakoekin.

## ONDORIOAK: ELKARREKIN BIZITZEKO HIRU LEZIO

**L**an antropologiko honetan gatazka kulturalak azaltzen zaizkigu, jatekoaren inguruan gertatutakoak Ondarroako arrasteko txalopetan. Gatazka horietako batzuk konpondu egin dira; besteak ez. Baina protagonistek (batez ere senegaldarrek) zenbait irtenbide proposatu dituzte.

Konponbide eta irtenbide proposamen horiek oso interesgarriak zaizkigu Ondarroan gaur egun daukagun jatorri eta kultur aniztasunari probetxua ateratzeko, elkar aberasteko eta etorkizuneko gatazkek ekiditeko.

Hasteko, beste kulturek eduki ditzaketan desberdintasunak errespetatu behar ditugu, norbere ohiturak kalteztzen ez dituztenean, nahiz eta horrek esfortzu apur bat eskatu bi aldeen partetik (txalupen kasuan, ikusi dugu senegaldarrek jaten ez dituzten jakiak bananduta egosi daitezkeela, edota Ramadamean sukaldea erabiltzen laga ahal zaiela).

Kanpotik etorritakoen zenbait ohitura geure ere egin ditzakegu, bi kulturen arteko zubiak eraikitzeke, eta elkar aberasteko (txalupetan, senegaldarrek euren tea konpartitzen dute bertoko arrantzaleekin).

Amaitzeko, gatazka sortzen denean «besteen» iriztiak eta proposamenak entzun eta kontuan hartu behar ditugu, akordioetara ailegatu ahal izateko. «Bestea» ezagutu egin behar dugu (senegaldarra izan, marokiarra, hegomerikarra...). Gainera, sarritan, «bestea» ezagutzen dugunean, hain desberdina ez dela konturatzen gara, nahiz eta urrutikoa izan.

**Ibai Muñiz Etxaniz**

ONDARROA, 2012KO IRAILA








# HERRIA ETA HERRITARRAK

Ondarroako Plaza Berdura, 1996an.



**Idaho**  
PARKS & RECREATION



(eskuko argazkian)  
1994an, mollan,  
321 kiloko  
olgetako  
harriarekin  
parodia  
egiten.

# IÑAKI GOIOGANA, AMERIKETAN ARTZAIN IBILITAKOA

Ibai Muñiz Etxaniz



Goian, 1957ko arrantzale egunean. Behean, Astillerun, Frantziako Iraultza parodiatzen (1960-08-17an)

**I**ñaki Goiogana gizon ezaguna da Ondarroan, herriko animazio kulturean asko parte hartu izan duelako. Baina, horretaz gain ere, bizitza interesgarria eduki du Iñakik. Besteak beste, Amerikan artzain ibiltzeko aukera eduki zuelako.


Gazte denboretan Astillerun egon zen lanean. 20 urte egin zituen han. Tartean soldaduskara ere joan zen, 1958an. Sasoi horretan sortu zen arrantzale eguna, eta Iñaki eta bere kuadrila urtero ateratzen ziren mozorrotuta kalera. Batean, poxpolin dantzari jantzita; bestean, Frantziako iraultzaren parodia egiten. Erregeari gillotinan burua ipini, eta atun burua ateratzen zuten moztuta.

Baina lana gutxitu egin zen Astilleruko tailerretan, eta gizon batzuk etorri zitzaizkien behin Gernikatik, lana eskaintzen: «nahizue jun Ameriketa, ala?». Iñakik baiezkoa eman zien, «ba ikusi eingou han zer dan, abante berta». 1973. urtea zen, eta sekula ardirik zaindu barik zegoen.





Goian, 1959ko arrantzale egunean, Veganeko aurrean poxpolin jantzita



Ameriketean Quintanak hartu zuen berarekin lanean. Quintanatarrak Ondarroan bizitako ijito familia bat ziren, Amerikara joan eta aberastutakoak. Iñaki joan zenean, 10.000 ardiren jabe ziren. Semeak egindako kudeaketa txarraren ondorioz, botere ekonomiko hori galtzen joan ziren hurrengo urteetan.

Baina Iñaki bertan egon zenean bazegoen non lan egin. Artzain moduan hasi zen Idahon. Urtea bitan banatzen zen. Udan, mendietara joaten ziren, ardiek hango belar goxoa jateko. Neguan, oster, edur handiak hasten zirenean, menditik jaitsi egiten ziren Quionako desertura.

Mendian zeudenean kanping dendan egiten zuten lo. 15 egunerako joaten ziren. Otsoak-eta hurbiltzen ziren ardiengana, eta Iñakik eskopetaren zaratarekin beldurtzen zituen. Baina hiru egunera otsoak konturatu egiten ziren tiroak zarata hutsa zirela, eta orduan beste modu batera uxatu behar izaten zituen piztiak, oihuka-eta. Coyoteen eta halako animalien lorratzei adi egon behar izaten zuen. Beti zelatan, ardirik ez galtzeko.

Normalean bakarrik lan egiten bazuen ere, Gernika inguruko batekin ere egon zen behin mendian. Baina gizon hura txarto eroaten zen ugazabarekin, eta lana laga zuen. Beraz, Iñakik lanean bakarrik jarraitu zuen. Bakarrik bai, baina lantzean behin lagunak joaten zitzaizkion bisitan. Berak prestatutako bilotsa jaten zuten, lagunenean umeak zaldian ibiltzen zituen... Iñakik dio lana ez zela gogorra,



Iñaki Goiogana Idahon artzain. Goian, Iñaki Goiogana zaldi gainean Jose Amutxastegi eta Mari Goitiandiarekin. Behean lagunekin jokoan Idahoko Caudell herrian.





1974an Idahon.



«norbera alaxe bara...». Eguraldiak ere ederrak izaten ei ziren, eta horrek laguntzen zuen.

Neguan, basamortura jaisten ziren, mendietan elurra hasten zelako eta ardientzako jatekorik egoten ez zelako. Han zeudela, karabane-tan lo egiten zuten, eta rantxoetan. Errepide ondoetan egoten zirenean, Kaliforniatik zetozen kamioizaleak gelditzen ziren eurekin berbetan eta jaten. Tartean euskaldunak ere bai. Negua gogorra da desertuan, eta hotz asko egiten du. Ur hodiak babestuta eduki behar izaten zituzten, ardiei eman beharreko ura ez izozteko.

3 urte egin zituen ardi zaintzan Iñakik. Gero emaztea ere Amerikara joan zen bizitzera, eta orduan fabrikara aldatu ziren lanera. Patata fabrika bat zen, Caudell herrian, Idahon. Baina mendiarekin harremanik ez zuen galdu sekula, eta artzain ibilitako mendietara joaten zen, hango erreketan arrantzan-eta egitera.

Idahon euskaldun asko zeuden, eta elkarren lagunak ziren. Idahotik Nevadara ere joaten ziren hango euskal jaietara, desertuko lautada zabalak kotxean zeharkatuta. Iñakik badauka anekdota bat, Elko hiriburuan gertatutakoa. Iñaki taula gainera igo zen «Gazteri berria» abestera, eta bazekien publikoaren artean San Franciskoko kontsul espainola zegoela. Egoera aprobetxatuta, eta abestea amaitu zuenean, Iñakik oihi egin zuen: «Gora euskaldun jatorrak eta behera espainol satorrak!». Egun horretan Elkon zegoen ondarrutar bat baino gehiagok ziurta dezake hori horrela izan zela.

1980an egin zuen buelta Iñakik Ondarroara, bere familia guztia-rekin. Emaztea ez zegoen gustura Amerikan, eta hori izan zen itzultze-ko arrazoia. Eta baxurako arrantzan lanean hasi zen. Idahoko lautade-tatik itsaso zabalera. «Nahibeste antxoia atrapatzen gendun». 13 urte egin zituen horretan, eta gero jubilatuta egin zen, bertigoarekin-eta txarto zebilelako. Jubilatuta bai, baina geldirik egon ez.

Behin, semearekin Kamiñazpin zebilela, Bitxore Lakak laguntza eskatu zion, erraldoi baterako pertsona bat falta zitzaiolako. Semea etxean laga, erraldoia hartu eta hortik aurre-ra Euskal Herri guztia zeharkatu zuen Artelaneko erraldoien barruan. Bere erraldoia deitzen da *Eguzki*, «kalbo eta guzti!».

Iñaki pozik dago mundua ezagutzeko aukera eduki duela-ko, eta mundua ederra dela dio.  
«Mundu ederra da, geu gaz zatarrak!».

**Ibai Muñiz**

ONDARROAN, 2012KO URRIAN



Goian, Nevadako Elkon (1979-07-06) Euskal Jai baten. Erdian, ardiekin. Behean, Pette Etxebarriarekin Idahon. Lerro hauen azpian, Artelango *Eguzki* erraldoia.





Ondarroan, 1966 ekainaren 29an. Argazkiaren erdi-erdian, Theodoro Aramaio fraide agustino elizarako bidean bere lehen meza ematera. Bere ezker-eskumara Ama Gloria eta Pello anaia, eta senideez inguratuta



ERLIJIO ASKATASUNAREN ALDE LANEAN

# BUDISTA ERLIJIOSO BAT ONDARROAKO HILERRIAN

Pello Aramaio

*Theodoro nor izan zen? Historia hau da: Fraide Agustino izatetik Budista erlijioso izatera iritsi zen ondarrutarra. Gure anai Theodororen errautsak lehenengo egunian hilobiratu genituen Ondarroako hilerrian, ama lurperatuta dagoen toki berean.*



Lehenengo lerroan: Pello eta Theo Aramaio anaiak, Gloria Etxaburu ama (Jesus Aramaioaren alarguna) Jesus Mari eta Aintzane Aramaio anai arrebak.

**T**heodoro anaia, beste ondarrutar asko bezala hamaika urte zituela irten zen herritik, Donostian fraide Agustinoek zuten Santa Rita izeneko komentuko kolegiara barneko ikasle gisan. Peseta bateko kolegioa deitzen zioten, izan ere, garai hartan, (1950-1953) diru kopuru hori kostatzen baitzen eguneko eta ikasleko. Agustinoek, Ondarroan, propaganda handia egin zuten, eta familia askok, arrazoi

ezberdinak medio, ekonomikoak batez ere, hara bialtzera erabaki zuten bere umeak.


Ume haiek, kolegiara zertarako joan ziren kontzientziarik ez bazuten ere, jakin behar da, fraidegaitzako ikasketak zirela, beraz, heziketek bide hori zeramaten. Theodorok, urte asko eman zituen etxetik kanpo. Monachileko (Granada) komentuan ordenatu izan ondoren fraide Agustino egin zen, beraz, elizgizona.





Granadan, 1966ko otsailaren 5ean. Theodororen ordenazio eguna, Monachileko komentuan.





1980an, Theodoro bere etxean, Suedian.



Bangkoken, bere lagun monjeekin.




Bangkokeko budismoaren tenploan.

Egin zituzten ikasketen jakintzak oraindik ere gehitu nahian, Koloniako (Alemania) unibertsitatera estudiantzea joatera lortu zuen. Sikologia bukatu ondoren, Euskal Herrira itzuli zen. Franco hil osteko garai errepresibo gordinenak harrapatu zituen hemen (1976-77). Elizaren jokabideak betirako markatuta utzi zuela esango nuke.

Bere kontura eta itzultzaile lanetan aritzea erabaki zuen Bilbon, izan ere, alemaniera hizkuntza oso ongi menperatzen baitzuen. Klandestinitatean ari ziren abertzale batzuekin ere harremanetan jarria zen. Atxiloketak zirela eta torturapeko galdeketen ondorioz, Theodororen izena poliziaren ahotan zebilen. Hori horrela, Markinako baserri baten eskututa egon ondoren, Alemaniara ihes egi- tea lortu zuen eta handik denbora batera Estokolmora. Hemen aurkitu zuen lana jubilatatu zenarte. Suediako nazionalitatea ere bazuen. Bere lehen eta bihotzeko hizkuntza euskara bazen ere beste sei hizkuntzen jabe ere bazen.

Bere ibilbide luzean, Asiako herrialdeak zituen gogoko: India, Nepal, Tailandia, Sri Lanka... Urtean zehar bidaia ugari egiten zituen bertara eta han aurkitu zituen barne bake espirituala eta zoriona. Budista erlijiosoa egin zen. Dalai Lamakin ere egondakoa omen zen gero jakin dudadez.





Aintzane arrebari bialdutako postala.

Estokolmon zendu zen 2011ko abuztuaren 27an eta hasieran esan bezala bere errauntsak lurperatu genituen.

Kanposantuan, ekitaldi zibilaren aurkezpena egiten ari nintzela, aurrean ikusten nuen amaren argazkia, niri begira zegoen. Gure ama hil zeneko (1988-11-04) hileta elizkizunak etorri zitzaizkidan gogora. Egun hura inoiz ez dut ahaztuko. Amaren gorpua elizan presente zegoelarik, abade meza-emaileak amaren izena inoiz ez zuen ia aipatu ere egin. Elizara joaten ez ginenon kontrako mitina izan zen homilia hura, eta batez ere, desbideratutako elizgizonei buruzko atakeak. Nire anai Theodoro ez zegoen bertan ezin izan zuelako etorri, baina, berari zuzendutako irainak izan ziren haiek. Negarrez amaitu nuen eta amorrazioz beteta.

Hau ote da ba Eliza Ama Santua?, esaten nion nere buruari. Ebanjelizatze erako hitzik ez nuen bat bera ere entzun, gorrotzkoak baizik. «Bide okerra hartu zuten bildotsek» eliz bidera erakartzeko baino uxatzeko hitzak entzun nituen nire amaren hileta elizkizunean. Hala eta guztiz ere ez diot inori gorrotorik. Euskal Herriko apaizen artean lagun asko ditut eta gertaera hau askori konta nien.

Theodoro anaia; Zuk hartutako bideak erakutsi handiko etsenplua adierazten du. Zorionak, beraz, eta besarkada handi bat.

### Pello Aramaio Etxaburu

ONDARROAN, 2011KO ABENDUAN





## Agur anaia, osaba, lehengusu eta lagun Theo

(Habanera)

1.

Ondarroatik irten zinen  
oso gaztea zinela,  
lehenik Donostiara  
Agustinoen eskola,  
etxetik kanpo urteak...  
fraidegai lez horrela,  
Monachilen ordenatuz  
elizgizon bezela,  
Alemaniara joan zinen  
ikasi nahirikan pila,  
sikologia estudiatuz  
ta ikasten zinen abila,  
elizaren bidea  
ikusiz ustela zela,  
motxila hartu zenuen  
bide berri baten bila.

2.

Urte asko izan dira  
herrira etorri barik,  
guk ez genuen espero  
honela izango zenik,  
zure presentziarik gabe  
gutziz errauts bihurturik,  
hemen gaude aurrean  
senide ta lagun bildurik,  
zure ibilbidea  
pentsa zenuen bidetik,  
inork inposa gabe  
aske sentitu nahirik,  
orain utzi gaituzu  
joan zara mundu hontatik  
agur ta besarkada bat  
gu guztion partetik.

Pello Aramaio Etxaburu



ERLIJIO ASKATASUNAREN ALDE LANEAN

# ENTERRU ZIBILAK ONDARROAN

Imanol Oruemazaga Baseta

*2011ko azaroaren 26an, Theodoro Aramaio Etxaburu ondarroarraren errautsak hilobiratu genituen Ondarroako hilerrian. Hilerrian bizi izandako une hunkigarri haiek lerro hauek idaztera bultzatu naute. ONDARROA, HERRI ANITZA ETA ASKEAREN argibide sakona bizi bainuen bertan.*

**O**ndarroaren historiaren hiru data gogora ditzagun elkarrekin.

## 1944. urtea.

Kale handi 64 etxebizitzaren behe solairuan bizi ziren Juan Badiola Urresti eta Karmen bere ama. Juan Badiola Urrestik 34 urte zituen.

Lola Badiola Jimeno, Lolita «Axune» bere lobak honela gogoratzen du bere osaba Juan: «*Gizon ikasia, jakintsua. Nortasun handikoa. Inoiz ez eban txarto esaten beste inorengaitik. «Zuek ikasi, ikasi», bere aholkua. Sozialista zan bera, baina II. Errepublikara garaiko sozialista. Bularretik gaixotu zanean, guri, umeoi, beregana hurre-ratzen be ez euskun ixten!»*

Lola Beristain andereari galdetu diodanean, bat-batean erantzun dit: «*A! Beheko Juan? Gizon ona eta bakesua!»*.

Bularreko minbiziaz gaixotu zen. Maiz joaten zitzaion bisitatzeri On Pedro Arakama parrokoa. Inoiz ez zion muzin egin parrokoaren bisitei. Baina On Pedro parro-

koak nahi zuena, konfesa eta azken sakramenduak hartzea, alegia, ez zuen lortu. Juan Badiola tinko mantendu zen bere ezetzean.

Bere gaixotasunak aurrera egin ahala, guardia zibilak hurbiltzen ziren Juan Badiola Urrestiren etxeko atadira, Jose Landaribar «Gaztañerre», Benito Zelaia «Txitxarro» eta betiko lagun sozialisten bisitak ekiditzeko.

Hil zenean, lepradun bezala, herriko zamar biltzaileek eraman zuten Antiguako hilerriara, herriko aguazilak lagunduta. Soilik Pruden Badiola osabari utzi zioten bere lobaren hilotzari laguntzen Antiguako hilerriaraino.

Antiguako hilerrian non hilobiratuko ote? Bada, hilerriaren ondoan, baina hilerriko hormetatik at!

Elizaren azken sakramentuak hartzeari uko egin zion gizaseme haren hilotza hilerriaren barruan hilobiratzea hilerria bera profanatzeko izango zen! Izan ere, hilerriara sartze-ko sarreraren bertan jarrita zegoen gurutzeak argi eta garbi adierazten zuen hilerri hura soilik kristautentzat zela.

Juan Badiola Urrestiren hilotza hilobiratuta zegoen lurraren gainean asunak hasten zirela komentatzen zen herritaren artean.

Bada, asunak zer besterik merezi zuen Elizako azken sakramentuak hartzeari uko egin zion gizaseme batek!







Santa Graziko hilerria (Zuberoan)

## 1970. urtea.

Urte haietan Ondarroako kristau askok boikota egiten ari zitzaizkion Ondarroako parrokiari. Koldo Ituarte Arriola 1970ko urriaren 1ean hil zenean, ez zitzaion eliz hiletarik egin Ondarroako parrokiari. Ondarroako hilerrian hilobiratu zen parrokiako abaderik gabe. Hala ere, hilobiratzeko orduan, izan zuen Ondarroako Kristau Komunitatearen babesa. Bakezko giroan burutu zen bere hilobiratzea.

Hala ere, arratsalde hartan Antiguako hilerriak izan zituen ez-ohiko bisitariak. Han ziren, hilerriaren kanpo aldean, hainbat guardia zibil. Koldo Ituarteren hilobiratzea amaitu eta hilerritik irtetzean, han nituen nire alboan guardia zibilak. Eurak inguratuta, San Iñazio kaleko kuartelera eraman ninduten.

Hemen, guardia zibilen buruak Antiguako hilerrian Koldo Ituarteren hilobiratzean gertatuaren kontu-arrazoia eskatu zidan zital-zital eta mehatxupean!

Ondarroako parrokiari hileta elizkizunik egin gabe Ondarroako hilerrian hilobiratzea delitua zen, antza, Espainiako agintari zibil eta hauen zerbitzariarentzat.

## 2011. urtea.

Azaroaren 26a. Egurdiko ordu bata. Suedian hil den Theodoro Aramaio Etxaburu herriko-semearen errautsen hilobiratzea Antiguako hilerrian.

Hilerrira iristean, hura bai ezusteko pozgarria! Theodororen familiaren panteoiaren gainean, Budaren irudi

bat! Halaber, bere etxekoek ozenki aldarrikatu nahi izan zeniguten han bildu ginen guztioi hilobiratzera gindoazen errautsak HERRIKO SEME ERLIJIOSO BUDISTA BATEN errautsak zirela.

Pello Aramaio Etxaburuk Theodoro bere anaiak, pertsona eta fededun gisa bizi izan duen ibilbidea azaldu ondoren, hunkiturik abestu genituen aurreko artikuluan agertzen diren bertsoak. Han geunden denok ohartzeko baikinaren han aurrean geunkazan errautsak BUDISMOari askatasun osoz atxiki zitzaion Theodoro herriko semearenak zirela.

Are gehiago, han bilduta geunden denok ohartzeko ginen Ondarroaren eta ondarroarren historian une historikoa bizitzeko ari ginela. Herritar budista bat esku zabalez hartzen ari baikinaren pentsaeraz eta jokaeraz ezberdinak garen ondarroarren familia zabalean.

Izan ere, ONDARROA, HERRI ANITZA ETA ASKEA egiteko bidean urrats sendoa eman genuen ondarroarrok 2011ko azaroaren 26an Antiguako hilerrian. Theodoro Aramaio Etxaburu, Kanttoipean jaio eta Asiako zenbait herrialdeetan, Budismoan bere izaera osotu duen herriko semea dugu Ondarroako hilerrian hilobiratu den LEHEN BUDISTA ERLIJIOSOA.

Zorionak zuri, Theodoro! Zorionak ondarroar guztioi! Pentsaera ezberdinenak begirunean oinarritutako Ondarroa berria eraikitzen ari baikara denon artean.

ONDARROAN, 2011KO ABENDUAN

**Imanol**  
**Oruemazaga Baseta**



HONDARROA urtekariak urteak daramatza Ondarroa eta ondarrutarron argazkia argitaratzen **ERRETRATUEN OTZAREA** izenburupean.

Argazki hauek zuok guztiok emandakoak dira. Halaber, zuok emandako argazkiak digitaliza eta Herri Artxiboan gordeta dauzkagu. Dagoeneko, 1998 argazki jada katalogatuta dauzkagu. Eta beste 1000 bat argazki digitalizatuta baina katalogatu gabe.

Honez gain, Herri Artxiboan badugu beste atal bat Fonoteka deritzona. Hemen zuoi urteetan egindako grabaketak gordetzen dira. Bertan zuon oroitzapenak daude entzungai. Ondarroako Historiako hainbat pasarte, zuok bizi eta kontatu dizkiguzuen moduan gordeta. Dagoeneko 400 orduko grabazioak gordetzen dira Herri Artxiboko Fonotekan. Herri Artxiboan baita bilduta dauzkagu 500 bat inguru bideo. Zaharrenak, 1950. hamarkada-koak dira.

Guzti hau zuon guztion ekarpenen emaitza da. Baita zuon ondarea ere. Beraz, nahi duzuenen eska ditzakezue gordeta ditugun argazkia eta gainerakoak. Aurrerantzean ere, pozik jasoko ditugu zuon ekarpenak (argazkiak, eta hor, armairu bazterrean, noiz botako, gordeta duzuen beste edozein paper edo agiriak). Digitalizatu eta berehala itzuliko dizkizuegu.

Har ezazue guztiok OHZ elkartearen eskerrik beroenak, zuon ekarpenik gabe, ezinezkoa izango baitzen Ondarroako herriak daukan Herri Artxiboa edukitzea.



1852an eraiki zen kontzejuko eraikuntza (Udaletxe zaharra). Haren aurrealdeko erlojuaren behealdean dago herriko armarrria (1966ko argazkia da)


## Ondarroako Historia Zaleak



Udatiarrak Arrigorri hondartzan XX. mendeko bigarren hamarkadan eguzkiarengatik babesturik

# ERRE- -TRA- -TUEN OTZAREA





Ondarroa, 1908an. Itsasurreko Hotel de la Bahia eta Artabideko txaletak: Bastidaneko, Zabalaneke (Felix Blanco) eta Jose Uriberen txaletak eginda zeuden. Eta beste aldean: Bittori Urrestiren txaleta eraikitzen zegoen



Udatiarrek Arrigorri hondartzan bainatzen XX. mendeko bigarren hamarkadan



1912an. Mantzeoneko sendiak. Ezkerretik atzean: Pantaleon, Jose, Zelestina, Simona eta X. Erdian: Bittori eta Domingo gurasoak. Aurrean: Maria, Karmen eta Edubigis neskatok.



Elisabet Badiola 1910ean.



Juana Ibaibarriaga eta Susana Landaribar 1915ean





Juan Kruz bailandra eta Urresti ontziola 1917an



Bastidaneke txaleta Artabide kaletik Antiguako Ama etorbideraino 1918an





Trainerua sardinatako arrantzan XX. mende hasieran. Aurrean patroia mazia zabaltzen arraina erakartzeko



1928an, Misioen egunean Gurutzeko Alabak ikastetxean ikasleak. Erdian mahaian eserita: Antzosoloko Karmele Urresti, Mari Tobaneko Bittore Zelaia eta eskuinean Ane Arrasate. Atzean bigarrena Konpitxeroneko Isabel Etxebarria eta hirugarrena Haitzmendineko Karmen Iriondo.





Kinkilariak berdura plazan 1932an.



Domingo Jose Akarregi Bakeriza arrantzalea 1931n.  
Argazkilaria Allika-Deba



Donostian, 1933an.  
Maritxu eta Pilar Aranbarri Urkidi ahizpak.



**Ondarroako mendi zaleak Santa Eufemian 1934an.** Ezkerretik zutik: X., X., Ignazio Dando»Santa Kruz, honen semea Iñaki Santa Kruz (txistularia), Agustin Gartzia Belarrimotx, Erroke Txilenu Larrañaga , X., X., Labakoneko Felipe Eiguren, X , X., X., Matxokoneko Jokin Azpiri eta Belarrimotxeneko Santos Gartzia.

Erdian: X., Koldo eta Juan Mari Ituarte anaiak.


Aurrean: X., Plakatzaneko Paulin Zubikarai, Felix Urkizu, X., Martin Belarrimox Gartzia (aita), Belarrimotxeneko Martin Gorri Gartzia (semea) eta Pedro Ibazeta Txarraka.



**Batzokiko antzerkia 1934an.** Ezkerretik atzean: *Kanutaneko* Lorea Anakabe eta *Jose Karnazeruneko* M<sup>a</sup> Anjeles Arantzamendi. Erdian: *Eskribauko* Pilare Markuerkiaga, *Perratzailineko* Rosario Zubikarai, Karmen Bilbao, *Zaganeko* Miren Arrizabalaga, *Bailandrako* Miren Arrasate eta X. Aurrean: Milagros Solabarrieta, *Antzosoloko* Anita Urresti, Angeles Eizagirre eta Miren Olea.








Ondarroa, 1943ko abuztuan, Andra Mari jaietan. Patxi Landaribar eta bere alaba Begoña Altuna atun-ontzian



Ondarroa, 1941eko apirilaren 16an Alameda aurreko eskaileretan. Sabin Muruetagoiena eta Bitoritxu Scolaren ezkontza. Aurrean ezkerretik: Jose Mari Basaguren, M<sup>a</sup> Rosario Scola, Segundo Urkiza apaiza, Bitoritxu Scola eta Sabin Muruetagoiena ezkon berriak, M<sup>a</sup> Jesus Irazabal eta Bartolomeo Skola. Atzerago: 3. Bittori Kintin, Benita Otxagabia, Baltasar Skola. Atzerago: 2. Manolita Basaguren, 3. Laureano Arriola. Atzerago eskuinetik: Esteban Scola, X, X, Jose M<sup>a</sup> Otxagabia. Azken lerroan erdian: Luis Arriola eta eskuinetik bigarrena, Mariano Scola.



Ondarroa, 1949ko maiatzean, Antiguako Amaren herrira jaitsierako apainketa bat Iparragirre kalean. Ezkerretik: Bilbao Joakina, Beitia Biktoriano eta Maruri Benito Txikixe. Argazkia Mariasun Beitia Bilbaok lagatakoa da.



Ondarroa, 1949ko maiatzean, Kofradia zahar aurreko apainketa Begoñako Amaren etorreran. Erdian: *Gelasione*ko Mari Trini Juaristi. Eskuinaldean *Danbalaneko* Itziar Aulestia eta *Gelasione*ko Resu Juaristi eta ezkerrealdean: «*Sagasta*»neko Arrizabalaga M<sup>a</sup> Pura





Jose Urkiola *Brontxe* Jesus Mari eta Jose Mari semeekin otarrain arrantzan 1951n



1953-08-16an, Joseba Otxana Lersundi, Jose M<sup>a</sup> Astelarra, Karlos Arriola, Ignazio Martinez, Juan Jose Urkizu, Imanol Jimi Eizagirre, Juan Antonio Kaiser Arriola, Perratzailineko Jabier Mugerza, Eugenio Peskadili Bazterretxea, Felix Urkizu, X., X., Jose Luis Gil eta Jose Amadea Aranbarri.



Ondarroa, 1955eko arrantzale egunean. Atzean ezkerretik: Iñaki Arriola, Akuluneko Aitor Bazterretxea, Ignazio Baskaran, Martin Iriondo, X, Porros-eneko Markuerkiaga Alberto, Porros-eneko Markuerkiaga Joakin Mari eta «Apallu»neko Burgaña Karlos. Aurrean: Pitxirrineko Jose Mari Kakoteneko Ignazio Aranbarri,



Ondarroako Alamedan 1956an, fabrikatik bueltan. Ezkerretik eskumara, Milagros Gaubeka, Trini Urrosolo Axune eta Pilar Amutxastegi Euskadi.





1955-VIII-16an. Ezker-eskuin: Ignazito Martinez, Karlos Arriola eta Jose Amadea Aranbarri



Patxi Aramaio eta M<sup>a</sup> Teresa Akarregi senar-emazteak, Donibane Lohizuneko hondartzan 1937an




Ondarroako portuan, 1961-V-16an. Atzean ezker-eskuin: M<sup>a</sup> Pilar Badiola, Montserrat Aramaio, Juanita Beitia eta Trini Larrinaga. Aurrean: Lidia Irueta, M<sup>a</sup> Rosario Lersundi, M<sup>a</sup> Rosario Irueta, Txaketeneko M<sup>a</sup> Karmen Badiola eta Kanaixuneko M<sup>a</sup> Isabel Marrero.



1Ondarroan, 1955eko azaroan Itsasurren. «CONCURSO DE PESCA»



Algeciraetik atunetan, 1961ean, «*Siempre Bienvenida*»ko txalopakoak . Atzean, Salvador Zendoia, erdian Patxi Etxaburu eta Migel Arkotxa. Behean, Gotzon eta Jesus Mari «Txaket» anaiak



Aristondo Pakita «Baxerri» arrain-saltzailea 1964an Zubi Zaharraren aurrean.



1955-60 bitartean, Bilboko Abusu auzoan. Lagunen arteko partidua (Bilbotarrak ondarrutarran kontra). Argazkian, Ondarroako «ekipoa». Ezkerretik eskumara tente: Juanito Iparragirre, Juanito Balentziaga, Juan Reuelta, Eulogio Alkorta, Fernando Badiola, Imanol San Antonio, Jose Eizagirre, Delfin Ituarte entrenadore eta Rafael Aranbarri. Makurtuta: Jesus Anakabe, Txomin San Martin, Manolo Uranga, Jesus Mari Urkiola *Brontxe* eta Alfontso Bengoetxea *Berdenuku*.



Ondarroa 1987an. *Euskal Herria* txaloparen bautizoa.



Ondarroa, 2001eko martxoaren 30ean. Kale Handian. Margarita Amallobietak (Felix Beristain pintorearen amak) 100 urte bete zuen eguna.







1993-06-01, Kresala Musika Banda. Ezkerretik eskumara:


**GOIKO LERROAN:** Erkuden Bengoetxea, Zunbeltz Bedialauneta, Nahia Iturraran, Fede Badiola, Ander Ibarloza, Ana Elordi, Igor Rodriguez, Ainize Garalde, Kizkitza Lertxundi, Irantzu Etxebarria, Eneritz Lema, Iarovit Azpillaga, Oier Urkiza, Juan M<sup>a</sup> Bengoetxea, Andima Lertxundi, Asier Ituarte, Andoni Urkiza eta Inaki Beristain.

**ERDIAN:** Bernar Ituarte, Jesus M<sup>a</sup> Eizagirre «Sufo», Juan Bautista Ibaibarriaga, Jabier Sainz, Errapel Ibarloza, Ion Odriozola, Doroteo Ituarte, Urko Rodriguez, Karlos Amitibia, Anjel Ituarte, Beñat Aramaio, Jesus Mari Aramaio, Andoni Alberdi, Asier Lertxundi, Kamen Bedialauneta, Unai Basterretxea, Aitor Urkiza eta Esteban Uranga.

**JARRITA:** Goizane Zendoia, Iratxe Santurde, Nerea Gartzia, Aiora Beristain, Manuel Elu, Maite Urdingio, Legaire Aramaio, Jabier Ituarte (zuzendaria), Aintzane Bengoetxea, Kamen Lertxundi, Amaia Kastro eta Mikel Arrizabalaga.







# ONDARROA, EUSKAL KULTURAREN KABIA

2011ko otsailean, Kresala dantza taldea.  
Plaza Musikan, Xeber Uribe dantza maisuari  
ongi etorria.



Legatza koxkera erara



Atun tato ederrak ojaelean erretzen.

# ITSASOA, ANTZINAKO ESAERAK

Patxi Etxaburu Ajarrista

Amuarrain handia, mokadu handia.  
 Amuarraina amutik, arkumea larrutik.  
 Amuarrainak begi bi, sei ezkailuk hamabi.  
 Ameriketean ardiak itsasoan, Australian bisiguak larrean  
 Arrain handia, itsaso handian.  
 Arrain txikia, arrain handiaren jakia.  
 Arraina (atsegin) uretan, txoria airean,  
 emazte zuhurra etxean.  
 Arrandegian, okela usainik ez.  
 Arraina ematen badidazu, gaur jango dut.  
 Arrantzan irakasten badidazu, bihar jan ahal izango dut.  
 Arraina eta berritsua, ahotik galtzen dira.  
 Arrainak joan, eta sareak zabal.  
 Arrantzaleak erabiltzen ez, urrezko amurik.  
 Arrantzalearen emaztea;  
 goizean senardun, arratsean alargun.  
 Arrantzaleek ur errea desiratzen, arraina atzematen.  
 Batzuetan urak handi, besteetan muinak handi.  
 Beldur denak bustitzeko, ez du arrainik atzemango.  
 Berezko joera; arraina uretara, satorra lurpera.  
 Burutik hasten da, arraina kiratsen.  
 Busti nahi ez duena, uretan ez sar dadila.  
 Diruak, itsasoan ere, bidea egiten bere.  
 Edozein da arrantzale, arraina gosez aurkitzean.

Egunero legatza, azkenean garratza.  
 Etorriko da maiatza, jango dugu legatza.  
 Ez jaso sarea, arraina sartu artean.  
 Gose denak; arrain fina baino, lodia nahiago.  
 Haitzean jaioa, haitzean bizia.  
 Harakinaren etxean okela, arrantzalearen mahaian berdela.  
 Itotzekotan, ur sakon handitan.  
 Itsas ura itogarri jendearentzat, osagarri arrainarentzat  
 Itsaso nahasia, arrantzalearen irabazia.  
 Itsasoak eman, itsasoak eraman.  
 Itsasoak sua bai hiltzen, suak itsasoa ez lehortzen.  
 Itsasoan ura eta zerua, eta ados ez dena, hondora.  
 Iturri gazitik, ur gezarik ez.  
 Katua, oinak busti gabe, jakirako arrantzale.  
 Lehorreko arrantzaleak, arrain gutxi saskian.  
 Arrantzaleak urik ezean, ura edan behar.  
 Ura balego, ardoa edango (Lasuneru)  
 Milaka urte igarotzen, ura bere bidean itsasoratzen.  
 Nagusi asko den ontzian, arrain gutxi sarean.  
 Oinak busti gabe, otarrainik ez.  
 Putzuaren ondoko igelak, ez omen daki ezer,  
 itsaso handiaz.  
 Sarea zenbait hurrago, arraina hainbat larriago.  
 Sarea ontziratzen, arrainaren egoera larritzen





Sarean, ez da urik hartzen.

Txalupa zahartu, ur egarritu.

Txiru-liru kantatzen du miruak,  
urak ekarritakoa ardoak eraman, arrantzaleen diruak.

Txitxarroa jan eta edan ura, hondoan duzu hilobia.

Uholderik handienak, itsasoan baretzen dira.

Ur handietan, arrainak handiak.

Ur barrenean, arraina franko.

Ur guztiak ilkitzen dira, itsasotik gora.

Ur guztiak pasatuko, azkenean bazterrean itoko.

Ur mehetan galtzen, ur handietan itotzen.

Ur sakonetan geldirik dagoen herensugea,  
karramarroen ehizakia.

Ur txiki guztiak, ur handira bideak.

Urak itsasontzia flotarazten, baita ere hondoratzen.

Uraz handik, arrainak handi

Urik ez den tokian, arrainik bizi ez han

Zazpi amuarrain batera hartu, nahiz eta denak irristatu.

Zer moduz?, Itsasoan ontziak!

Zerua eta lurra asperturik zeuden, eta itsasoa sortu zuten.

Zeru-lurrak asperturik, itsasoa harriturik.

Zerua uretan ikusten duenak,  
arrainak zuhaitzetan ikusten ditu.

Zubiak, batera uraz handi, bestera, uraz hemendik.

# NANOIPUIN XELEBREAK

Patxi Etxaburu Ajarrista

## ARRAIN GORRIXKAK

Amak bere alabatxoari:

- *Uzuri! Aldatu al diozu ura arrain gorrixkei?*

- *Zera aldatuko nuen! Oraindik ez dute joan den astekoa bukatu eta!*

## ITSASOKO UR GAZIA

Markelek amari:

- *Ama, itsasoko ura zergatik da hain gazia?*

- *Baina, ez al dakizu itsasoko ura zerk gazitzen duen?*

- *Ez.*

- *Ezetz? Tira, tira, gezurra dirudi hainbeste denboran ikastolan ibili ondoren horrenbeste ez jakitea. Bakailaoak, mutil, han bizi den bakailaoak!*

## LEGATZ FRESKOA

Tubal sartu da lantokitik gertu duen jatetxera, bazkaltzeko asmotan. Herrian dagoen menurik merkeena izan da ere, ordea, egunero izaten du protestarako aitzakia.

Gaur, entsaladaren ondoren, legatza eskatu du. Eta zerbitzaria postretarako zer nahi duen galdetzer hurbildu zaionean, hara zer esan dion:

- *Aizu, legatz hau ez da herenegungoa bezain freskoa!*

- *Harritzen naiz, bada! legatz berbera da eta!*

## ARRANTZA ASPERGARRIA

Xenki arrantzaren ari zela, paseoan zebilen gizon heldu bat hurbildu zitzaion. Bost bat minutuz isilik begira egon ondoren haxe galdetu zion irribarre maltzur batekin:

- *Zeharo aspergarria izan behar du, bada, orduak eta orduak geldirik egotea, arrainak amuari noiz irentsi-ko zain, ezta?*

- *Ez pentsa! - erantzun zion Xenkik - Asko dira hizketarako gogoz inguratzen zaizkigun baba loreak...*





Goian, Ondarroako 5. Komiki Jardunaldiak, 1989.  
 Erdian, Euskal Herriko Komikigileen Topaketak Kofradian  
 (Ondarroako 10. Komiki Jardunaldiak, 1995).  
 Behean, Aitor Txikiñe Luterl Taldearen lokalaren aurrean  
 komikiak saltzen. Ibilaldia 1993an, Ondarroa.  
 Erdiko argazki bietan, LuterLkoek Rober Garai komikigilea  
 ZurruMurruko eskaparatean sartu zutenekoa (2002-02-09)



# LUTERL TALDEA

LuterL taldea. Ezkerretik eskumara, Aitor Txikiñe, Ion Iñaki Artetxe eta Aitor Aretxaga.

# ONDARROAKO LUTERL TALDEA

LuterL taldea

**L**UTERL TALDEAren hastapeneko urratsak 1983. urtean eman ziren. Lehendabiziko ekimena, aurretik elkar ezagutzen ziren komikizaleak batuta, komiki erakusketa xume bat izan zen. 1984ean GLOBHO fantzinearen lehen zenbakia kaleratu zuten.

Ondarroako Komiki Jardunaldien antolatzailea dugu. Orain arte, hamabost edizio burutu dituzte. Komiki Jardunaldietan komiki erakusketaz gain, hitzaldiak, komikien aurkezpenak, kontzertuak eta filmen proiektzioak antolatu izan dituzte.

Bere ibilbidean zehar LUTERL TALDEAK landu duen arloa gehien bat komikigintza izan bada ere, beste adierazpen artistikoak, zein gai sozialen inguruko zenbait ekimenen antolatzaile ere izan da.

Ekintzen kopuru, maila, aurrekontu eta arrakastari dagokionez gailurra 9. eta 10. Komiki Jardunaldietako edizioetan jo zuten. Garai hartakoak dira Ondarroako Kiroldegian egindako «Marathoi Mutantea» (1993) eta «Euskal-Klip Marathoia» (1995). Ordunik aurrera ekintza xumeagoak bideratuz jarraitzen dute.









Komiki Jardunaldien 10. edizioan ere, Euskal Herriko Komikigileen Topaketak antolatu zituzten. Euskal Herrian, garai hartan, komikigintzan lanean ari ziren komikigile gehienak bildu zituzten. Maila horretan burutu den, lehena eta bakarra izan da.

LUTERL TALDEAren argitalpenak honako hauek dira: GLOBHO fantzinea (13 zenbaki); GLOBHITO buletina edo berripapera (19 zenbaki); GLOBHORMA aldizkari murala (neurria;

6'43x3'34 m., 20 zenbaki); Ondarroako komikigileen bildumak argitaratzeko sortutako GLOBHOSONDA SORTA (3 zenbaki. «Le Blist, bilduma bat» Kirmen Uribe eta Josu Aranbarri, 1992; «Barregarri» Austin Agirretxea, 1993; «Azken Mohikanoak hemen gaude» Ion Iñaki Artetxe, 2011); «Kapitan Kaoporrex, relatos de bajamar», Roberto Garay (1994); «Ithasoko deabruak», Josu Garalde (1997).

Ezkerreko argazkian, Mikel Valverde komikilaria Erakusketa Aretoan umeen aurrean (Ondarroako 11. Komiki Jardunaldiak, 2004). Goian, Luterl Taldeak kaleratu dituen komikiliburu batzuen azalak. Behean, LuterL taldea 2012ko Getxoko Komiki Azokaren omenaldia jasotzen. Beherago, Aitor Aretxaga eta Ion Iñaki Artetxe.


# LUTERL TALDEA



## OMENALDIA EGIN DIE GETXOKO 2012ko KOMIKI AZOKAK LUTERL TALDEARI ETA NORMA EDITORIAL ARGITALETXEARI



Aurten Getxoko Komiki Azokak omenaldia egin dio Norma Editorial argitaletxeari, Europako komiki enpresa garrantzitsuenetako bat, eta horren 35 urteko jardura saritu du. Halaber, Ondarroako Luterl Taldea euskal kolektiboa ere omendu dute, 1983. urtetik aurrera biñetaren mundua zabaltzeko eginiko lanagatik. Omenaldiak azokaren lehenengo egunean izan dira, azaroaren 23an, Areetako Geltokia plazan jarri den karpan. Bertan, hilaren 25era arte gozatu ahal izan dute zaleek bederatzigarren arteaz.



**KOLDO  
AGINAGALDE  
ARRIZABALAGA**  
(1957-2011)

# EGVNSENTIA

## ZUBI ZAHAR



1980-81  
ikasturtea.  
Zubi Zahar  
ikastolan.  
Ezkerretik  
eskumara:  
Koldo Aginagalde,  
Aintzane Azpiazu,  
Alicia Juaristi eta  
Jon Koldo  
Mendiola.

2011ko abenduaren 23an Gasteizen hil zen Koldo Aginagalde Arrizabalaga. Bere heriotzak Ondarroako Historia Zaleak kultur elkarteko kideok lerro hauek idaztera behartu gaitu. Izan ere, Koldo Aginagalde Arrizabalagak urte gutxi Ondarroan bizi arren, arrasto sakon eta ahaztezinak utzi zituen Ondarroako Euskal Kultura arloan.

Beude, beraz, lerro xume hauek Koldo Aginagalde Arrizabalagaren oroimenez eta omenez.

Idazlan honen hasieratik eskertu nahi dizuegu idazlan hau prestatzeko orduan laguntza eskuzabala eman diguzuen guztioi. Eskerrik asko, Aintzane Azpiazu, Pello Arrizabalaga eta Maria Rosa Landaribar, Zubi Zahar ikastolako zuzendaria, irakaslea eta gurasoa hurrenez hurren. Eskerrik asko baita zuoi, Ion Iñaki Artetxe eta Iñas Urrosolo, Koldo Aginagaldek Ondarroan sortu zuen «IKUS-GAI» Kultur Mugimendua ezagutzeko egin dizkiguzuen ekarpenengatik.

# KOLDO AGINAGALDE ONDARROAN

OHZ

## KOLDO, IRAKASLE ONDARROAN.

**1** 980/1981 ikasturte hasieran iritsi zen Ondarroara. Zubi Zahar ikastolako irakasle. Irakasle berezia. Aitzindaria ere hainbat arlotan. Ikus-entzun arloko ideiak bor-bor zebiltzan Koldoren buruan. Baita ausardia ere ideia haiek praktikara eramateko.

Koldo Aginagaldek ikastolan burutu zuen lanaren lekukotasun bat eskaintzen digu Aintzane Azpiazuk, gaur egun Zubi Zahar ikastolako zuzendariak:

*Koldo eta biok ez ginan maila bereko irakasle izan. Baina, bai esan dezaket irakasle oso berezia izan zela. Iraultzailea ere, esango nuke nik. Hain berriak ziren irakaskuntza arloan zituen ideiak!*

*Adibide bat. Geometria gaia emateko ikasleei, irudiak arbelean marraztu ordez, nahiago izaten zuen ikasleek eurek irudi ezberdinetako mahaiak egitea.*





*Mahai horiek gaur egun ere konserbatzen dira Ikastolan. Baita erabili ere.*

*Irakasteko zeuzkan metodo bereziak zirela-eta, izan zituen ulertezinak ikasleen guraso batzuekin. Hauek erabat kezkatuta eta arduratuta agertzen baitziren zer gertatuko ote euren seme-alabekin azterketak iristen ziranean. Euren seme-alabak, ikastolan ikasten barik, jolasten ari zirela ikusten ari ziren, bada.*

*Geroago gurasoak ohartu ziren Koldorena ez zela jolasa, irakasteko metodo berria baizik. Irakaskuntza munduan geroztik eman diren hainbat aldaketa Koldok ireki zuen bidetik joan dira.*

Koldo Aginagalde Arrizabalaga nolako irakaslea izan zen, eta, batez ere, nola ulertzen zuen ikasleen heziketa ezagutzeko, Koldo bera irakasle lanean ezagutu zuten gurasoen artean, Maria Rosa Landaribar Urkiza gurasoaren joanaren, bere semearen osasun egoera zela-eta, hurbil-hurbiletik ezagutu baitzuen Koldo irakaslea.

*«Nik txikitatik sartu neban Zubi Zahar ikastolan Gorka semea. 1980/81 eta 1981/82 ikasturteetan Koldo Aginagalde bera tokatu jakon irakasle.*

*Garai haretan Gorkak asko sufritzen eban erreumakin. Gogoratzen naz ikasturte baten, Gorkak lau edo bost hilabete egin behar izan zituela etxean, ohetik altza barik.*

*Ba, Koldo irakaslea, Ikastolako lana amaitu eta gero, ia egunero etorten jakon etxera Gorkari, eskola emotera. Eta kurtsoa aproba eta aurrera segitu ahal izan eban bere lagunekin, kurtsoa errepikatu barik.*

*Gorka semea ohean egon zan urtean, Ramon Gorostidi irakaslea eta Josu sikologoa be etorten ziran etxera tarteka Gorkarengana, beronen lagune-*

*kin. Baiñe Koldo irakaslearena apartekua izan zan. Inoiz ahaztuko ez dodana. Egunero eskola emotera, etxera! Toki guztietan esan dot hau eta esaten jarraituko dot.*

*Koldo irakasleak, etxean eskola emonaz gain, beste mesede handi bat be egin eutsan Gorka nire semiari.*

*Orduan be, ikastoletako umeek euren kirol kompetizioak eukiten ebezan Zornotzan, Durangon eta beste leku batzuetan. Gorka semea etxean gelditzen zan bere erreuma zala-ta. Eta honelako egunetan, asko sufritzen eban, berak etxean gelditu behar izaten ebalako.*

*Ba, egun baten, Koldo irakasleak beragaz eroan eban nire semea, bere lagunek parte hartzen eben kompetizioa ikustera eta lagunak animatzera. Oraintxe be ikusi egiten dot nire semeak ekarri eban aurpegia handik etxera buelta zanean! Haxe zan poza eta kontu esan beharra!*

*Ba, handik aurrera, nire semea kirol kompetiziñoi guztietara joaten zan Ikastolako bere lagunekin. Kirol kompetiziñoietan parte hartu ez arren, bere lagunak animatera juten zan. Pozik jun be.*

*Dana, Koldori esker. Honelakoxea izan zan Koldo. Irakasle aparta eta bere ikasleen laguna!*

Zubi Zahar ikastolak ere, bere aldetik, gogoratu eta eskertu nahi izan die Koldo Aginagalde Arrizabalagari eta Ramon Gorostidiri (Koldoren lagunari) Ikastolan, pedagogia arloan, utzi duten arrastoa.

Horrela, iragan ikasturtearen amaieran, 2012ko ekainaren 16an ospatu zen Ikastolako Egunean irakurri zen Pello Arrizabalaga irakasleak idatzitako biografi-aipamen hau (hurrengo orrialdean):



## KOLDO AGINAGALDE

Garai bariak eta aldi berean korapilatsuak  
 laurogeikadako hasierak  
 agertu zinan, agertu zineten,  
 Ramón eta biok, Ondarroan.  
 Mundua jateko asmo eta gogoz,  
 lanean hasi gure ikastolan,  
 pedagogi eta estilo guztiz barri  
 aldaketa izugarri  
 zalantza, eztabaida eta ulertu eza sarri-sarri.  
 Hala eta guztiz, gerora,  
 beti gertatzen dan modura,  
 aitzindari.  
 Eta ez bakarrik Ikastola munduan,  
 herrian ere laga zehuen, zenuten  
 zuen marka eta seinale;  
 ondarrutar askok gaur egun  
 ikusten dugu Youtube  
 "beatu 83ko inautexak edo kuadrilá egune",  
 zeueik grabatako irudixe,  
 zeuek asma ta sortu zenuten  
 Ondarru Telebistari esker.  
 Hortan ere, aitzindari.  
 Azken denboretan,  
 gaxorik egon arren,  
 Ondarruko historiazaleei  
 esku bat botatzen ibili zinan,  
 gure herriko historia zati bat zeuri esker  
 gordeta gelditu delako.  
 Bizitza, badakigu ez dala beti juxtua izaten  
 eta, beste askori bezala,  
 denbora pasata gero,  
 sarri askotan, hil da gero,  
 gorai patzen dira bera eta berak egindakoak.  
 Agian, hoietako bat izango zara zeu ere

KOLDO AGINAGALDE

# TELEBISTA ONDARRU T.B.O.




IRUDI TAILER ESKOLA - Kantxupe, 1 - ONDARROA

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



**CAJA DE AHORROS**  
**VIZCAINA**



Telebista Ondarru TBOk  
ateratako eskuorria  
(ezkerrean) eta  
pegatina (goian).

## KOLDO, «IKUS-GAI» KULTUR MUGIMENDUAREN SORTZAILE ETA BIHOTZA.

Zubi Zahar ikastolako irakasle ziren garaian, Koldo Aginagalde eta Ramon Gorostidik ikus-entzumen arloko egitarau zabala prestatu zuten 1982-1983. ikasturterako. Hala nola, argazkiak, filmoteka, gazteekin ekintzak, ... «IKUS-GAI Irudi Tailer» jarri zioten izena. Herriko gazte guztiei irekia.

Egitasmo hau Ondarroako Udalak 1982-07-30eko udal bileran luze eta zabal eztabaidatu zuen. Hain gauza berria zen «IKUS-GAI Irudi Tailer» taldeak bere egitasmoan azaltzen zuena! Azkenean, Ondarroako Udalak, aho batez, erabaki zuen egitasmo hura babestea. Batetik, 600.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki zuen. Hori bai! Udalak Kultur Batzordeari agindu zion, «... laguntza honen utsunea bete al izateko, bearko diran alegiñak egin daizala». Hain handia zen egitasmo berriaren aurrekontua!

Bestetik, udal bilera berean, Udal Kultur Etxeko ateara ere «IKUS-GAI Irudi Tailerra» kultur taldeari irekitzeko, Udal Kultur Batzordeari agindu zion «Kultur Etxeko Zuzendaritzagaz itz egin dagiala, Erakus Aretoa erabili al izateko eran, 1982/83 ikastaro denboraldian». (OUABA, 1982.07.30).

Ondarroako Udalak «IKUS-GAI Irudi Tailerra»ri eskaini zion babesaren beste ezaugarri bat dugu 1982.12.29ko bileran baimendu zitzaioala «IKUS-GAI Irudi Tailerra»ri bere filminak Udal Artxiboan gordetzea.

Gaur egun ere, Udal Artxibo horretan gordetzen dira «IKUS-GAI Irudi Tailerra» kultur taldeak 1980ko hamarkadan egin zituen 260 bideo eta grabazio. Herritar askok, -herriko eskola guztietako ikasleek, besteak beste-, parte hartu zuten grabazio haietan. 1980ko hamarkadako Ondarroako kultur, kirol, lan, bizimodu, jai eta etabar luzea jaso eta gordetzen diguten altxor paregabea!

Ikus-entzun materiale guzti hura ez zuten bildu artxibo baten gordetzeko. 1982. urtean -Euskadi Irratia eta Euskal Telebista publikoa Euskal Herrian emititzen hasi ziren urte berean!- Koldo Aginagalde eta Ramon Gorostidi, Zubi Zahar ikastolako irakasleek, sortu zuten T.B.O. Telebista Ondarroan.

Hura ausardia! Kanpandorre azpian, itoginez betetako ganbara ilun batean kokatu zen T.B.O. Ondarroako Telebista. Bertatik eskaintzen zen ikus-entzunezko materiale guzti hura. Eta Kanpandorre azpia bilakatuko zen hurrengo urteetako Ondarroako Kultur Mugimendu berriaren bihotza.

Izan ere, 1980ko hamarkadan kultura mugimendu indartsua eta zabala lehertu zen Ondarroan, gazteen artean batez ere. «IKUS-GAI» kultur taldearekin batean han ziren elkarlanean LUTERL Taldea (Komikilariak), TXO! Antzerki Kolektiboa, ARTELAN elkarte margotze eskola, TXINPART Argazki Taldea, TXIRRIMORRASKI Aisialdi Taldea, RADIXU Irratia, KGA (Komite Gazte Antiheroia), Gaztetxea bera... Denok, 1980ko hamarkadan sortutako kultur taldeak!

Kultur Mugimendu zabal eta indartsu honen parte izan zen Koldo bera.





Lerro hauen gainean Iñas Urrosolo argazkilaria, beharrean, Txinparteko kidea zen garaian. Eskuman, dokumentu interesgarria: Txinpart Argazki taldeak 1985etik 1987ko urtarrilera arte TBOrentzat egindako beharren zerrenda. (Iñas Urrosolok lagatakoa).



1.985 urtean KOMITE GAZTE ANTIHERDINA (K.G.Ak) egin zuen deialdiarekin ekintza okupazionalak sartzeari buruz, udal-  
etxearen babesean eta IKUS-GAIren laguntzaz, 21 lagun ar-  
gazki munduan interesaturik, antolatuginen eta parte hartu  
genuen hiru ilabeteko ikastarean (beste hiru luzatuz gure  
kabuz) lan hoberekin erekusketara egiteko, telebista Ondar-  
rroko lekualak inauguratzen.

Aldi berean K.G.Aren ekintzei buruzko argazki erakusketan  
parte hartu genuen IKUS-gaik zuen lekalean Kanttoipen.

Taldeko kopurua ia erdira murriztuz, herriko telebista pu-  
blikoan parte hartzea erabakitzen dugu, eta ardunek egin  
ziguten eskeintzan einarrituz eta heurak burua izanik, bi-  
deo montaiak eta 1.985eko Ondarroako jaien emisioak egin  
genituen "TXO" antzerki taldearen laguntzas, baita beste  
batzuren laguntzari esker ere.

Doainik lan egin genuen T.B.O ren grabazio eta emisio guz-  
tietan, ardura handiago edo gutxiagorekin lehen fase edo  
Fase esperimentalean 1.987 eko urtarrilera arte.

Denberaldia horretan egindako lan hauek dira:

-85 eko jaiak

-85 eko gabonak

-herrietako telebisten buruzko mahai ingurua

-telebista ikaskuntzari " " "

-Arrantzaren arazoak " " "

-86 eko jaiak

-86 eko Hauteskunde autonomikoak

-86 eko gabonak

-86 eko gabonetan egindako publizidadua eta abar.



TBO

## KOLDO ETA OHZ-REN ARTEKO HARREMANAK.

Duela hiru urte, Joxemari Urteaga irakaslearen bidez, Koldo Aginagalderekin Arrizabalagaren gaixotasun larriaren albiste tristea iritsi zitzaigun. Bide beretik jakin genuen Koldo Aginagaldek berak Ondarroan, «Ikus-Gai» kultur taldean eta TBO telebistan, egin eta Ondarroan utzi zituen grabazioei buruz OHZ gure elkartearekin hitz egitea nahi zuela. Berehala, 2009ko urriaren 29an, gutuna igorri genion Koldo berari.

Bertan, bere gaixotasuna zela-eta Koldo berari eta bere familiari gure elkartasuna adieraziz gain, Ondarroako Historia Zalea Elkartearen HERRI ARTXIBOKO ATEA den bestean irekitzen genion.

Harrezkero, 2010. urtean zehar, hainbat harreman izan genuen Koldorekin. Zinez gogoangarriak, Koldok eta

bere familiak 2010ko martxoaren 20an Ondarroara egin zuten bisitaldiak eskainitako abaguneaz baliatuz, Koldo Aginagalde Arrizabalagaren eta OHZko kide batzuen artean izan ziren harremanak.

Bisitaldi huraren ondoren, Koldo Aginagalde Arrizabalagaren nahiak gauzatzeko hasitako lanak bide erdian gelditu dira zoritzarrez.

Hala ere, Ondarroako Historia Zaleak elkarteak ONDARROAREN ETA ONDARRUTAR GUZTION ALTXORTZAT HARTZEN DITU eta ESKERTZEN DIZKIZUEGU KOLDO AGINAGALDE ARRIZABALAGAK ONDARROAN UTZITAKO IKUS-ENTZUMENEZKO GRABAZIO GUZTIAK.

ONDARROAN, 2012KO URRIAN.

## Ondarroako Historia Zaleak Kultur Elkarte.





# ARRANONDO KULTURA ELKARTEAREN IBILBIDEA

Arranondo Kultura Elkarte

*Urtero bezala, uztailaren amaieran, liburu-azokarekin batera, Ondarroako Historia Zaleak (OHZ) elkartekoek hainbat ekitaldi antolatu zuten, ondarrutarrok euskal kulturari egiten dizkiogun ekarpenen berri emateko asmoarekin.*

*Ekitaldi horien artean, aurten, herriko aldirien inguruko berbaldia prestatu zuten. Eta, jakina, Arranondo Kultura Elkarte ere bertan izan zen, OHZtik jasotako gonbidapena pozik onartu eta gero.*

*Hain zuzen, oraingoan ere, pozik gatoz, OHZren urtekari honetan parte hartzeko gonbidapenari erantzunez.*

*Uztaileko ekitaldia amaitu orduko eskatu ziguten eskainitako berbaldia idatziz jasotzea, urtekarian argitaratu ahal izateko. Bada, hori berori egin dugu.*

*Elkartearen izenean Javier Arrieta Idiakezek parte hartu zuen ekitaldian, eta beraren hitzak dira hemen jasotakoak, hark berbaldia antolatutako eran.*





**A**rranondo aldizkariaren 1. zenbakia 1990eko maiatzean plazaratu zen, Augustin Zubikaraiaren zuzendaritzapean. Lehenengo orrialdean, «EGUNON» izenburuarekin, euskal ume baten jaiotza moduan aurkeztu zen aldizkaria. Eta gauzak nola diren, dagoeneko 22 urteko gazte bihurtu zaigu.


Aldizkaria sortu zen urtean Txomin Agirre jaio zeneko 125. urteurrena ospatzen zenez, idazle ondarrutarra omendu nahi izan zen, aldizkariari Arranondo izena jarritz. Hain zuzen, Txomin Agirreren Kresala eleberritik hartu zen Arranondo izena. Ondarroan girotutako eleberririk horretan, gertaera guztiak Arranondo izeneko herrian jazotzen dira, hau da, idazleak Ondarroaren hizkiak aldarazita sortutako fikziozko herrian.

Aldizkariaren helburuak izan ziren: batetik, herria bultzatzea, suspertzea euskaraz irakurri eta euskara erabili zezan. Bestetik, euskarari eusten ahalegintzea.

Horretarako, gehienbat, gure herriko gaiak jorratzeko erabakia hartu zen, itsasokoak nahiz lehorrekoak. Orobat, argi esan zen lehenengo zenbaki horretan: «herri-tarrak gara eta herrikoiak izan nahi dugu. Baina ukorik egin gabe etxetik irten eta atako bandan ibiltzeari, euskal herri-tarrak ez ezik, europarrak ere bagara eta».

Bukatzeko, apaltasun osoz, hurrengoa adierazi zen, jaioberriaren metaforarekin jarraituz: «ez dakigu noiz arte bizi litekeen gure ume hau».

2000-05-12, Itsasaurre Plazan. Argazkian, Miren Urresti Arranondoko kidea aldizkariaren 10. urtebetetzean, sortu zuten logo bereziagaz.





**Aldizkariak gain, Arranondo Elkartekoek ekitaldi ugari eta ezberdinak antolatu izan ditu.**

Argazkiak goitik behera:

- Hondarrezko irudi-lehiaketa Arrigorri hondartzan.
- Arranondo abesbatza.
- Argazki Zaharren erakusketa.
- Futbito Txapelketa eta mahaikada trofeo, frontoian.
- Andra Mari jaietako Marmitako Txapelketa koadrila egunean... (hurrengo orrialdean, edizio ezberdinetako argazkiak aurkituko dituzu).





Lerro hauen gainen, Juan Antonio Agirretxea:  
Arranondo elkarteko kidea,  
Marmitako lehiaketako antolatzaileetako bat da.





### HITZALDIAK.

Argazkiak goitik behera:

- 2001-05-31, Hitzaldia Guzur Etxean. Miren Urrestirekin batera Eneko Barrutia idazle elantxobetarra eta Mikel Etxaburu Osa idazle ondarrutarra, arrantzale berbetea aztertzen.
- 2006-12-14. Arranondoko Aste Kulturalan Pello Zabala (Arantzazuko fraidea) hitzaldia eskaintzen Guzur Etxean.
- Toti Martinez de Lezea idazleak ere hitzaldia eskaini zuen Arranondoko Aste Kulturalaren barruan, Guzur Etxeko hitzaldi aretoan. Bere inguruan, Agurtza Zendoia (zalea), Lore Bengoetxea (kazetaria), Gotzon Iparragirre (historialaria), Joxemari Urteaga (idazlea eta irakaslea) eta Javier Arrieta Idiakez (idazlea, zalea eta Arranondoko antolatzailea).

### ALDIZKARIAZ BESTEKO ATALAK

Baina Arranondo aldizkaria baino gehiago da. Kultura-elkartearen den heinean, asko izan dira abian jarri dituen atalak. Horien artean hurrengoak nabarmendu behar dira:

- (1) Kirola: pala-txapelketa eta umeentzako futbito-txapelketa frontoian, jaietako gazte-gynkama eta ingurueta-ko mendietara irteerak.
- (2) Mus-txapelketa.

(3) Kultura lantzen: hondarrezko irudi-lehiaketa, abesbatza (Gabonetan, Santa Ageda bezperan, inauterietan), irratsaioak, askotariko berbaldiak (batez ere, Arranondok urtero antolatutako kultura-astearen, euskal kulturari lotutako pertsona ezagunak herrira ekarritz), eta baselizaz baseliza mendi-irteera.

- (4) Ume eta gazteentzako txangoak eta
- (5) Andra Marietako marmitako-lehiaketa.





2005-08-31 • 1.794an frantsesek Ondarroa erre zutenekoa gogora ekarri zuten Arranondo Elkartekoek. Argazkian, Jon Azpillaga bertsolaria, Miren Urresti, Nekane Landaribar, Iker Badiola eta Javier Arrieta.

## BESTE ARGITALPEN BATZUK

Unean-uneko argitalpenak ere egin ditu Arranondo Kultura Elkartek.

Argazkiek historia lantzeko duten garrantziaz jabetuta, lehenengo urteetan, hiru liburu argitaratu ziren, bata bestearen atzetik: «Ondarroa ikusgarria», «Lengo ta oraingo Ondarroa» eta «Ondarroa argazkietan».

Gure inguruko landareei buruzko liburuxka prestatu zuen ondoren.


Halaber, berrogeita hamar euskal Gabon-kanta bildu eta etxez etxe dohainik banatu zituen.

Eta, mementoz, azken ekarpen gisa, «*Itsaso aldetik. Ondarroako itsas gizon eta emakumeen kontakizunak*» goraiatu behar da, gure herriaren etnografia eta historia jaso dituen lana, alegia.

## ZENBAKI BEREZIAK

Elkartearen 10. urteurrena ospatzeko antolatutako ekintzen artean, aldizkariaren 121. zenbakia argitaratu zen, ordura arte parte hartutako idazleen ekarpenak jasoz.

Alabaina, zenbaki guztietarik hunkigarriena 171.a izan zen, hots, Augustin Zubikarainen omenez 2004ko



Ondarroako Augustin Zubikarai plazan, 2005. Augustin Zubikarainen omenezko Lore Jokoen oinarrien aurkezpena. Ezkerretik eskumara: Maria Dolores Etxano, Antonio Aranbarri, Javier Arrieta, Aitor Maruri alkatea, Beatriz Zubikarai Arranondoko kidea eta omenduaren alaba, eta Miren Urresti.





2011-04-16, Kofradia Zaharreen. «Itsaso aldetik» liburuaren aurkezpenean. Argazkian, libururako testigantzak emandako lagunak.

abuztuan argitaratutakoa. Bada, Augustin hilabete lehenago zendu zen. Egin-eginean ere, aldizkariko ohiko idazleek lekua utzi zieten beste euskaltzale batzuei, Augustinen inguruko gogoetak egiteko.

**ARRANONDO SAREAN**

Halabeharreen, Informazioaren eta Teknologiarekin Teknketara egokitu zen aldizkaria 2003ko abenduan. Halatan, 163. zenbakiaz geroztik, zenbaki guztiak sarean daude irakurgai, [www.arranondo.com](http://www.arranondo.com) helbidean, mundura zabal-zabalik, gurearen berri emateko asmo sendoarekin.



[www.arranondo.com](http://www.arranondo.com)  
Irudian, Arranondo Elkartearen webgunearen hasierako orria.

**GAUR**

Gaur, 2012ko uztailean, berbaldi hau emateko unean, eskuartearen dugu Arranondoren 262. zenbakia.



Aldizkariaren egitura aintzat hartzen badugu, 10 atal finko aurkituko ditugu: demografia, telefono-zenbaki interesgarriak, Kofradian sartzen diren arrain-motak eta halakoen kopuruak, gure berba eta esaerak, argazkiak, sukaldaritza, guardiako botikak, landaren txokoa, ezagutzen eta kontraportadako kanta.

Horiez gain, lantzean behin, bestelako atal batzuk tar-tekatzen dira, hala nola, elkarriketak, herriari eta herritarrei buruzko kontakizunak, historia, erlijioa eta ipuinak.

**ETORKIZUNARI BEGIRA**

Ez gara enpresa bat, ez dugu irabazteko asmorik, borondatez, musu-truk dihardugu.

Beraz, aurrera egiten dugu, erakunde pribatuek egin dako ekarpenekin eta Bizkaiko Foru Aldunditik lortzen ditugun diru-laguntzekin, Administrazio horrek, kultur-arloan, urtero, irabazteko asmorik gabeko norbanako eta elkarteei laguntzeko egiten duen deialdi publikoan parte hartuz, gure gastuak legearen arabera faktorekin behar bezala justifikatu eta gero. Modu horretara lortzen dugu inprentako gastuei aurre egitea, gardentasun osoz eta herritar gisa dagozkigun eskubideak egikaritzuz. Azken finean, herritar orenen esku dauden baliabideak erabiltzen ditugu.

Konturatu orduko, igaro dira 22 urte, eta herrian inork lortu ez duena lortu du Arranondok: euskara hutsezko eta dohaineko aldizkari bati hilero-hilero eustea. Noiz arte? Ez dakigu, baina, ahal dugun bitartean, apal eta tinko jarraituko dugu bide beretik.

A! Eta gauza guztien gaineratik, MADE IN ONDARRROA gara.

**Arranondo Kultura Elkarte**

ONDARROAN, 2012KO UZTAILEAN



ONDARROA: EUSKAL KULTURAREN KABIA

SABELMARRADUN /  
TRASMAILU ARRAINA


Patxi  
Etxaburu  
Ajarrista

ONDARROAKO  
ARRANTZALE GIROKO  
BERBAK (jarraipena)

Zerrendan jasotako berbak ondarrutarrez esateko beste era bat aurkitu dudanean (sinonimoak) letra etzanean idatzi ditut, baita zerbeit azaltzeko, ondarrutarrez erabiltzen den hitz bat erabili dudanean ere.

## S

**SABELMARRADUN:** (Katsuwonus pelamis). Atun familiako arraina, hegaluze orokorra baino txikiagoa. Sabel-aldean marrak ditu aurretik atzeraino. Ur azaleko sardetan taldekatzeko joera handia du. Luzeran 80 bat zentimetroraino hel daiteke. Mundu zabalean harrapatzen da. *Erraxau*.



Sabelmarradun

**SARBAISTA:** Sargo eta buztanbeltzaren motako arraina

**SARGORI:** Temperatura altuak eta hezetasun handiak eragiten duen bero larria, gehi uneko hego ukituko haizearen eraginez kostaldean ere.

**SARTAGIN:** Ondarroatik Mutriku bitarterako arrantza kala bat.

**SARTALDE:** Horizontean eguzkia sartzen den alde; mendebaldea. Ondarroako itsasaldean *behealdea*.



Eguzkia arratsean itsasertzean

**SARTU:** 1. Arraina kanpotik itsasertzera urreratu. 2. Arraina sare barrura sartu.

**SATURRAN:** Bisigutarako kordako kala bat.

**SEINERO:** Honela deitzen zitzaion, gauean kordako arrantzara irteeta edo ez erabakitzen zuen arrantzaleari.

Ondarroan, eguraldi kontuak ondo zekizkien herriko arrantzale bi edo hiru izendatzen zituzten kofradiak, bisigu eta papardo sasoirako. Hauen ardura zen ordu erdi aurretik itsas bis-

tara joatea eguraldiaren egoeraz jabetzea, ondoren itsasoratzea edo ez, erabakitzeko. Irtetea izatean, dei egiten zieten arrantzaleei itsasoratzeko. Gero, hondartza aurrean egoten ziren farolarien esku geratzen zen ontzien irteerako laguntasuna ematea. Hauek olatuen bareunean ematen zuten irteera eta baita sarrera ere, faroleko argi gorriaz argi zeinak eginaz. Euron erabakia eztabaida ezina zen.

**SERGERA:** Atun multzo luzexka ur azalean saltaka agerian sarda antzera. Atun bar-bala.

**SERORA:** Ia edozer gauza jan dezaten itsas txoria.

**SESTANTE:** Astroekiko distantzia neurtzeko eskuko tresna optikoa, besteen artean; itsasoan itsasontzien kokapen geografikoa zehazteko erabiltzen dena.

Neurketako angelua eta neurketan egindako uneaz, behatzailearen kokapena kalkula daiteke mapa nautiko batean. Sestantearen ohiko erabilera bat eguzkia eguerdian non dagoen behatzea da, behatzailearen latitudea ezagutzeko. Horizontalean erabiliz gero, sestantea bi objekturen arteko angelua neurtzeko erabil daiteke, esaterako bi itsasargiren artekoa, eta horrela mapa baten gainean norberaren kokapena kalkula daiteke.

Sestantearen eskalak zirkulu osoaren seirena dauka (alegia, 60°); hortik dator, hain zuzen, sestantearen izena (sestan, «seirena» hitzaren latinezko ordaina da). Oktantea antzeko tresna da, baina eskala laburragoa dauka, zirkuluaren zortzirena; badaude koardanteak eta kintanteak ere.



Sestantea

**SILLA IPURDI:** Bizkarralde eta hanka gabeko aulkia, pertsona bakarra kabitzen dena, sare-konpontzaileak beren lanerako behegainean erabiltzela.

**SIGORRE:** Ondarroatik mendebalderantz kordako kala.

**SIRRISARRA:** Inguratze-sarearen soka; atzekoa, nahiz aurrekoa, arrantzan sarea ontziratzean, berunari helitzekoa

**SISANGRE:** Ibaiko arraina, antxoaren tankera batekoa. *Mutxarria*.

**SITUAZIOKO ARGI:** Egoera-argi. Gauean, itsasoan, ontziaren posizioa adierazten duena; gorria istriborrean, berdea ababorrean eta zuria erdian

**SOKA:** 1. Kalamu, espartzu edo beste material bateko hariak elkarrekin bihurrituz egindako egitura malgu eta sendoa, bereziki lokarri gisa erabiltzen dena, eta arrantza munduan erabilgarritasun ugari dituena. 2. Antzinako luzera-neurria, zortzi kana eta erdiri dagokiona.



Arrantzarako sarearentzako soka lodiak

**SOKAGILE:** Sokak egiten dituen.



Sokagilea sokak egiten aspaldi batean

**SOKAGINTZA:** Sokak egiteko lanbidea edo jarduer.





Sokagintzan sokagileak

Eguneroko lanetan gauzak lotu, eutsi edo zintzilikatzeko, gizakiak landare zuntzak erabili izan ditu usadioz. Sokek; luzera, lodiera eta malgutasun ezberdina izan dezakete. Hasiera batean kalamua erabiltzen zen lehengai gisa. Kalamutik kordelak ateratzen zituzten soka egiteko, eta gaztelaraz (cordelero), hortik datorkie sokagileei beren izena. Nahiko harri-garria da gaztelaraz izen bera zutela Fraide frantziskotarrak, abitua eusteko erabiltzen zuten soka zuri eta korapiloduna dela eta.

Sokak egiteko, kalamuaz gain beste-lako materialak ere erabiltzen hasi ziren: besteak beste espartzua, lihoa, agabe-zuntza, jute eta errabia. Hala ere usadiozko teknologiek bere horretan jarraitu zuten. Material berriek (nylona, polietilenoa, eta abar) sokagintza nabarmen aldatu dute.

Sokak jarduera askotan erabiltzen zirenez (batez ere arrantzan), kordel-degi ugari ireki ziren itsasaldeko herrietan zehar.


Sokak aire zabalean egiten ziren, horretarako leku asko behar baitzen luzeran. Gehienetan herri guneeatik kanpo.

Sokagileak hari-zuntz bat hartu eta bihurritu egiten zuten, haria biraraziaz, osatzen zioan hariak (handitzen) nahi zuten lodiera lortu arte. Bitartean, osatzen ari zen haria estutzen zioan. Sokaren bihuradura maila, sokagilea ibiltzen zen abiaduraren arabera zen. Azkenik, hainbat hari elkar kiribilduz eta biribilduz, sokak osatzen ziren. Erabilitako hari kopuruaren arabera, soka lodiagoak, edo finagoak izanik.

Sokak nahi zen luzera hartzen zuenean, tornuetan kiribiltzen zen.

Gaur egun, oraingo teknologiaren arabera, sokagintzako era, asko aldatua dago.

**SOKAIRE:** Itsasoan itsasontzia haize eta olatuetatik babesean egotea.



Sokalaster, arrantzale korapiloa

**SOKA LASTER:** Zerbaiten inguruan askatu gabe estutzen edo lasaitzen den arrantzale korapiloa.




Sokale

**SOKALE:** Kordel-mota, mehea arrantzarako aparailuetan erabiltzeko ohiko soka. Bisigutarako, papardotarako, atunetarako, eskuko aparailuetarako eta abar. Bere lodieraren arabera; bederatzi haritik hasi eta 12, 15, 18, 21, 24 eta 30ekoak ezagutu izan ditugu.

**SOKA MAILADIA ARTZABI BIRIBILDUEKIN:** Ontzietarako nolabaiteko eskailera zerbitzua egiten duen arrantzale korapiloa.

**SOKAREN ARIMA:** Sokalea osatzen duten harien barruko hari mehe edo ardatza deiturikoa.



**SOLDATA:** Arrantzalearen partila edo irabazia.

**SOLDATABIKO:** Arrantzalearen lansari bikoa, arrantzako patroiren irabazia.

**SOLDATAERDIKO:** Lansari erdikoa. Arrantzako patroiren laguntzailerari ohiko soldatari gehitzeko soldata erdia.

**SONAR:** Uretako radarra. Urpean diren gorputzak detektatzeko erabiltzen den tresna elektromagnetikoa, besteen artean, arraina atzemateko erabilia arrantzaleak, horrela arrain-sardak aurkitzen lagunduz.

Sonarra agertu zenean boga eta honako arraina harrapatzen hasi ziren.

Sonarrak, uraren azpiko egoeraren berri ematen du hedadura jakin batean. Uraren temperatura hartzeko, ontziaren azpiko aldean sentzore berezi bat instalatzen da. Arraina azaltzeko temperatura 22° eta 28° bitartekoa baita gure itsasaldean orokorrean.


Sonarra, itsasoan zundaketak egiteko, sakontasuna neurtuaz edota oztoporik



Sonar edo itsaspeko irrati bidezko detekzio eta kokapena abian



**Arrantzarako Sonarra  
edo itsaspeko irrati  
bidezko detektagailua**



dagoen antzemateko erabiltzen da. Itsas hondoa edota oztopo batean (itsasoaren erliebean, arrain talde batean, ...) islatzen diren ultrasoinuak emititzen ditu. Ultrasoinuko seinale arin bat igorri eta objektu edo gauzatik datorren oihartzuna jasotzen den denbora neurtuz, urpean dagoen gauza hori zenbateko distantziara aurkitzen den neurtzen du. Gainera Doppler efektuaren bidez, berorren abiadura ere zehaztu daiteke.

Ultrasoinua, 20.000Hz baino maiztasun handiago duen presio uhina da. Hain handia, zeren, gure entzumenak ez du atzematen. Uhin honen ezaugarriak fisikoak dira: anplitude txikikoak izan arren, maiztasun handia izatea eta oso energetikoa bihurtzen du. Uhinak luzera txikia duenez, ultrasoinuak argi izpiaren antzera jokatzen

du. Hori horrela izanik, oso sorta estuan bidal daiteke eta, ondorioz, oso energia kantitate handia zuzendu dezakegu puntu batera. Arrazoi hau dela eta asko erabiltzen da medikuntzan, zenbait ezarpen terapeutikoetan: abszesuak edota giltzurruneko harriak kentzeko adibidez. Badu erabilerarik ere bitxigintzan: ultrasoinuak parte metalikoetan, toki iritsi ezinetan kokatuta dauden materia zati ezezagunak kanpora ditzake eta ondorioz bitxiak garbitzeko erabiltzen da. Industrian ere baliozkoa da: soldaduran eta piezen zulaketan erabili ohi da.

Hala ere aplikazio nagusienak medikuntzan eta arrantzan agertzen dira: adibide bat hor daukagu; sonarra edo urretako radarra.

**SORKI:** Burute. Emakumeak buruan; arrain-otarre bat, edarra, pitxer edo beste zama bat, eramateko jartzen duen bitarteko zapi biribildua. 2. Jantzki baten urratua estaltzeko erabiltzen zen adabakia. Adibidez, arrantzaleen mahoizko jantzieta txapla-ta.

**SORRA:** Abiada moteleko arrantza-ontzia.

**SOTAPATROI:** Baxurako arrantza-ontzian patroia-oren laguntzailea, sol-data soila baino gehiago irabaziaz.

**SUBIL:** Arrantza-aparailuaren, bereziki bisigua eta papardoa arrantzakoaren, soka luzea eta mehea. Bertatik, tartetik tartera amuak zintzilikatzen dira. Kordela

**SUESTA:** Itsasorako arrantzalearen zirazko buruko txano iragazgaitza.



**SUSTAR:** Atunetako aparailu arrantzan luzaturik, eskutik kanpo zaintzeko, kareletik aparailuari lotzen saion sokaren hari mehetako bat.

**T**

**TAIA:** Arrantzaleek irabazirik gabeko aldietan dirurik gabeko erosketak egiteko, dendan edukitzen zen ohol zapal bat bertan koska batzuen bidez zor kopurua adierazteko.

**TAKADA:** Arrainak esku-aparailuan heltzea, tiraldi txikitxo eginaz.

**TAJADERA:** Arrantzako sareko soka lodia eta altzairuzko kablea eba-kitzeko esku tresna.

**TAKART:** Paneka txiki. Tamaina txikiko arraina. Oso arrunta da.

**TAKET:** 1. Txalupako mastari batera edo bestera ez mugitzeko sartzeko ziria. 2. Zenbait arrainek defentsarako duen bizkar-hegatsa.

**TALAI:** Itsasaldean herritik gertuko mendiko itsas begiratokia, itsas inguru zabala begiztatzeko mendi goian kokaturik aurkitzen den eraikuntza,



Emakumeak pitxarra jokoan. Buruan sorkiak jarrita, pitxarra orekan mantetzeko. 1910eko abuztuaren 14an Ondarroako Musika Plazan. Ezkerrean goian ikurrina zintzilik Batzokiko mastatik. Iturria: Eusko Ikaskuntzaren agiritegia.





Ondarroako kaia eta hondartza 2002an. Ondarroako Talaia, biribilaren barruan.

bertan talaiariak arrantzaleei begira hainbat eginkizun gauzaten zituena, hala nola, arrain-sarden presentziaren berri ematea, arrantza-ontziaren larritasunen batean bere egoeraz jabetzea, ekaitz handietan portuan sartzen laguntzea, eta abar.

**TALAIARI:** Arrantzaleen artean aukeratutakoa. Talaiaria goizetik guaineraino talaian egoten zen egunero. Besteen artean; itsasoan arraina begiztatuz gero arrantzaleei adierazten zieten hurrena, horretarako kea egiten zuen bere talaiaki etxetxoaren ondoan eta ke hori alde batean edo bestean egin, horren arabera arrantzaleek konturatzen ziren talaiariak arraina zein aldetan ikusten zuen, berehala bertaratzeko. Baita ere ekaitz aldietan nahiz gurmazan porturako sarreran gidatzeko. Talaiariak, bandera gorria eskuan eta turruna aho ondoan, garaiz sarrerako baimena emango zuen olatuak jaisterakoan, abagune batetan sartzeko.

Inoiz, talaiariak ohartarazten zituzten arrantzaleek talaiako balkoira irten eta megafonoa eskuan zuela, «manjuba, manjuba» deituaz.

Baita ere sarritan, kaiok eta beste itsas hegazti batzuek erakusten zuten non zeuden sardina-sardak. Talaiariak horiei esker ikusten zuten arraina non zegoen, eta arrantzaleei adierazten zieten hurrena.

Talaiaria kofradiak ordaintzen zuen.

**TALASTA:** Itsasoaren ezin egona.

**TAMERUARTZA:** Ondarroatik mendebalerantz arrantzako kala.

**TANBO:** Masta ziria.

**TANBULET:** 1. Masta erdiak elkarri lotzeko erabiltzen den burdinazko edo zurezko pieza. 2. Arrantza-ontzioko masta nagusiaren euskarria. 3. Amuk egiteko oinarria. 4. Txaluparen zazpigarren tosta

**TANBUTXU:** Arrantza-ontziaren barnerako sarrera aurrean nahiz atzean.

**TANGART:** Atxukila. Arrantza-ontziaren barneko behean metatzen den ur lohia ateratzeko oholezko eskuko ontzitxo.

**TANKREDO:** Baxurako gau arrantzarako tresna bat.

**TANTORT:** 1. Arrantza-ontziaren barruko barrena. 2. Arrantzako kala.

**TANTORTAK:** Bisigutarako kordako kala bat.

**TANTZA:** Pitaren antzeko arrantzarako eskuko aparailuko hari mehea, pitaren aurretikoa.

**TARRAT:** Besteen artean, sarearen mamia apurtzean sortzen den hotsa.

**TART:** Soka edo lokarriaren etenduraren hotsa.

**TARTERA:** Itsasoan janariak sutan egiteko lapiko edo heltze zapala.

*Tupina.*

**TATARRAZ:** Eguraldi txarraren eraginez arrantza-ontzia itsasotik batean etxeratzea.

**TATO:** Janari zatia, puska, atunarena, ogiarena edo beste zerbaitena.

**TEILA GORRIAK:** Kap Bretoi aldeko sardinatarako kala.

**TENTEKO GALDARA:** Lurruntziaren makinaren zutikako galdara.

**TENTEKOAK:** Hegaluzearen arrantza-ontziaren atzeko bi hagatxoak atunetarako arrantzarako aparailu bana luzatzeko.

**TERRAL:** Gauean eta batez ere goizaldean ibaian edo errekan sortzen den haize giro hotza. Gure herrialdean hegoaldeko itsasaldera ibaian zehar sortzen da eta desagertzen da bokalean.

**TIBORTA:** Arraunaren muturreko zati mehea, eskuez heltzen zaiona.

*Tanborta.*

**TINA:** Burdinazko uztaiak dituen zurezko ontzi luzea, behealdetik goitik baino zabalagoa dena. Arrain fabriketan, antxo batez ere, gatzuntan edukitzeko erabilia. Tina bakoitzean hiru arroako hamar bat otzara sartzen ziren, hau da, 375 kilo gutxi gorabehera.

**TINDALEKU:** Sareak eta bere sokak tindatzeko tokia. Ondarroako tinda lekua kaian, Boluneko tailerraren atzeko aldean zegoen, eta





Tingloi, 1932an

Faustino Ituarte *Maño* zen arduraduna, nahiz eta, arrantzaleek beraiek egiten zuten tindatze lan hori, sarritan neskatilek edo *krixadak* lagunduta. Horretarako Mañok berak ematen zuen eguna eta ordua.

**TINGLOI:** Ondarroan arrainak saltzeko, sareak konpontzeko, baserritarren produktuak saltzeko eta abar, erabiltzeko aterpea, herriko terrazaren azpian kokatua.

**TINTA:** Baxurako arrantzarako kotoizko sarea berritan zuria izanik, lehenik tindatu egiten zen marroiz, sarea gogortu eta gehiago iraun dezan. Baita gerora ere noizean behin berrito tindatzen jarraitzen zen. Sareekin batera erabiltzeko sokak, ere, tindatu egiten ziren.

Horretarako aska edo galdara baten beheko aldean, ikatzez egindako sua pizten zen eta tinta harria nahasten zen aska edo galdara barruan ur irakinetan urtuz, bertan sareak eta sokak sartzeko.

Tindatzea 1964an bukatu zen, nylona azalduaz batera.

**TINTA HARRI:** Baxurako kotoizko sareak eta soka lodiak tindatzeko gaia. Sare horien kolorekoa zen, marroia.

**TINTOLET:** (*Prionace glauca*). Marrazoaren familiako arraina. Gorputza zeharo liraina eta mutur lerdin eta luzangara estutzen doana du bereizgarri, urdin berdexka edo arbel kolorea ageri duena bizkarraldea eta sabelaldea zurixkaz. Muturra ere lerdina eta luzanga du. Hortz triangularrak ditu, zorrotzak eta zerra mordodunak. Beste marrazo-mota batzuek ez bezala, begi biribilak ditu; zakatzirekidurak, berriz, txikixegoak. Ohizkoa da pare bat metro luzeran izatea. Kostatik hainbat miliatara ageri ohi da Bizkaiko Golkoan; arrain-sardaren atzetik ibiltzen da. Arriskutsua.



Tintoleta, marrazo urdin

**TIRA BIRA:** Ontzia irauli. Ontzia uretan azpikoz gora geratu, eguraldi txarraren eraginez edo beste ezbehar batengatik.


**TIRADORA:** Eskuko soka mehe luzea hegalean burdina edo berunarekin, arrantza-ontzi batetik bestera, edo lehorra heltzeko. Arrasteko arrantzan erabilia.

**TIRAIN:** 1. Itsasoko uren mugimendua; baga andanaren higidura amaitzean atzerantz erakartzen den korrontea edo itsasertza jo ondorengo uhinen atzerakada, 2. Ur-korrontearen indarra. 3. Ibaian korrontea; marea igotzean, ibaian gora joaten den olatu edo korrontea. *Erresaka*.

**TIRANTA:** Kordako arrantzan, trezei eusteko, esekita dauden mundil edo buiak lotzeko erabiltzen den soka lodi luzea.


**TIRANTA OTZARA:** Kordako arrantzarako mundilei eusteko soka nagusi edo tiranteak eramateko euskarri-dun otzara biribil eta sakona, beste otzarak baino sakonagoa. Berez zumez egindakoa da, baina gaur egun beste hainbat materialez ere egin ohi da.

**TIRO:** Lurrin-ontziaren galdarako kebidu askeago edo itxiago, galdarako suaren indarraren araberkoa izanik.



Toila

**TOIL:** (*Mustelus sp*) Eskeletoa kartilagoaren antzekoa, barailak eta benetako hortz ugari (tamaina txikikoak) dituen horietako arraina, marrazo ahaidekoa eta karelaren antzekoa. Gorputz luze eta liraina du, mutur punta-zorrotzekoa. Azala latza eta kolore grisaxka duena, sabelalde argitsuagoaz, eta ez du beheko lobulurik isats-hegatsean (edo hau oso txikia da). Ezkata gabeko arraina, bere espeziean zaporetsuena.



Tingloi, arraste-ontzien sareak esekitzeko tokia kaian «Kakaleku» ondoan 1982an

Haragia oso zuria du eta kalitate onekoa. Ur handiko arrain hau, haragi gogorreko arraina da eta hau jan nahi bada, aurretik, behegainean jo eta jo egin behar da pixka bat biguntzeko.

Mielgaren tankera bateko arraina, baina handiagoa, 1,5-2m bitartekoa izan ohi da.

Atlantikoan eta Mediterraneoan bizi da.

**TOILA:** Gogorra, sufritua. Bizitzako gorabeheretan *kristonak* eman edo *kristonak* hartu esaten den bezala, arrantzaleek *toilenak* eman, edo *toilenak* hartu, esaten dakite. Toila, ontziratzean, jo egin behar izaten da hiltzeko, behin baino gehiagotan jo ere, eta horigatik esaera.


**TOILANAK EMAN:** Jipoitu. Egurra eman.

**TOLET:** 1. Arrauneko ontzian, arraunnean egiterakoan, arrauna euskarri giza finkatzeko karelean dagoen zutikako ziri zilindrikoa. Toletera edo txaplata eta karelean bietan batera egindako zuloan sartuta egoten den ziria, arrauna bertan estropuz lotzeko. 2. *Estropu-leku.*




Toleta

**TOLETERA:** Toleta finkatzen den kareleko pieza edo txaplata, arraunlaria arrauna gainean ipinita arraunean aritzeko. *Tolet-txaplata.*



Toletera



Hamabi tostadun potin handia

**TOMATERO:** Bost libra inguruko hegaluze txikia.

**TOPEKO ARGIA:** Gauean arrantza-ontziaren egoera adierazteko erdiko argi zuria.

**TORITA:** 1. Baxuran gaueko arrantzarako ur azaleko piladun argitxoa. 2. Pertsonen eskuetako dardara, *tartañño.*

**TOSTA:** Txalupan istriborretik aborrera doan ohol horizontal finkoa. Arraunlaria bertan esertzen da arraunnean egiteko. Tosta hauek ontziaren aurretik atzera doaz.

**TOSTA IZENAK:** 12 tosta dauka traineruak, eta bakoitzak bere izena du: Aurre, Kontrail edo Kontra-aurre, Kontra-buru edo Ospital, Espalda, Kontra-espalda, Saldoki, Tanbul, Berril, Masteta, Kontra-masta, Trainleku eta Hanka, txaluparen azken tosta

**TOSTA-ARRAUNLARIEN IZENAK:** Txalupa bakoitzean non jarri, halako izena eramaten zuten arraunlari bakoitzak: Aurreko, Kontra-aurreko edo Kontragileko, Kontra-buruko, Espaldako, Erdiko, Kontra-erdiko, Tanbulet, Berrileko, Masteta edo maustako, Kontra-masta, Trainleku, Drizaera, Tresko, Txen-toki, Hankako. Txaluparen azken bi tostak. Ababor eta istriborreko hankakoak. Traineruetan txopatik gertuen dauden bi arraunlarietako bakoitza. Garai batean bakarra zen eta istriborreen kokatzen zen.



Tostartekoa

**TOSTARTE:** Arrantza-ontziko tosten arteko hutsune edo tokia.

**TOSTARTEKO:** Arrantza-ontzi bateko arrantzale soila.

**TOXA:** Arrantzaleak itsasoan tabako orria gordetzeko zorrotxoa.


**TRAOL:** Arrantzako aparailua bildu eta atontzeko egurrezko laukia.

**TRAGARROI:** Ekaitzaldian hodeietatik itsasorako ura zurgatzea zurrubiloan, onil formako zutabe baten antzera. Itsasoan gora, biraka, igotzen den ur tenkara, bere inguru zabalean haize bihurri eta eroa sortaraziz. *Trago-narru.*



Traganarru Lekeitiotik ikusita





Traina, inguraketa-sarea, Zubi Zaharrea lehortzen 1931ko maiatzean. Ezkerrean Isabelita bapora

**TRAIN:** Inguraketa-sarea. Esaten denez, duela hamarkada asko Hondarribiako arrantzale batek asma-tu omen zuen sare mota hau, xerku esaten ziotena, arrantzara arrantza-ontziaren ababorreko aldetik luzatze-koa.

Sare hau, izenak berak dioen bezala, arraina inguratzeo ideia baten arabera egin zen, eta txiki samarra zen gainera, hain zuzen, arrantzarako manio-brak, teknika berriak eskatzen zuen bizkortasunez egin ahal izateko.

Arrantzarako laukizuzen formako Inguratze sare mota, gehienbat manjuatarako, ardorako, sardina arrantzarako, nahiz txitxarro handitarako (ubiletako arrantzan), erabilia da. Alde luzeetako batean kortxoak edo flotagailuak ditu sare-alde hori ur azalera eusteko eta bestean berunezko piezak, sarearen alde hori bertikalki zabaltzeko. Sarearen berun-aldean eraztun edo kankamo lodi batzuk daramatza, braerako soka lodian, sarea ontziratzeko beheko aldetik batzeko. Sarean kankamoen kopurua, haren neurrien arabera izan behar du eta bakoitia, sare erdian bat kokatzeko.

Sare hau ontzitik uretara luzatu eta arrain-sadaren inguruan zabaltzen da, muturrak elkartuz; azpialdetik ere ixten da. Beraz, sare honekin arraina kopatuz harrapatzen da.

Helizeak sare harrapatzen duenean,

oker handia sortzen du sarri askotan. Oker horretan orain dauden helize handiak traina harrapatzen dutenean, triskantza gertatzen da. Hiru edo lau sare-mami berritu beharra, pieza bakoitza 200metro luze izanik, gehi goiburuak jostea; tranpako goiburuak, kortxokoak, berunekoak eta abar...

**TRAIN ARRAIN:** Traineko arrantzarako arrain multzo egokia.

**TRAIN ARRANTZA:** Sarez arraina inguratuz gauzatzen den arrantza-modalitatea.

**TRAIN BOLINTXA:** Trainaren tankerako inguraketa-sarea, traina baino txikiagoa eta meheagoa.

**TRAIN HANDIA:** Ohikoa baino neurri handiago eta lodiagoko traina, batik bat ardorako arrantzan aritzekoak zen. Harrezkero, traina handitzen joan den heinean, duela urte batzuk ohikoa zen sare honen neurriak 280 braza luze eta 80 zabal inguruan izatea eta gehiago ere bai. Gaur egun, 360 brazatik gorako luzerakoak daude. (Gure artean braza, 1,67metro inguruan erabiltzen da eta kana, braza erdian).

Traina handitzeak, kankamoen kopurua gehitzea eskatzen duenez, armatu beharreko kankamo kopurua ere izugarri areagotu izan da, hau da, XX. mende erdian trainak 11 kankamo izaten zituen eta gaur egunean 45era iristen dira. Materiala, berriz; lehenik; brontzezkoak ezagutu genituen, geroago gomazkoak eta azkenik altzairu

herdoilgaitzaz eginak dira. Kankamoen kopurua beti zenbaki bakoitia izan da, sare arrantzan ixterakoan kankamo bat erdian geratzeko.

**TRAIN-KAXA:** Sarea, nylonaren aurretik, kutxa berezi batean gordetzen zen, train-kaxan; hezetasunetik zaintzeko.

**TRAINA ARRANTZARA:** Patroiak traina arrantzara luzatzeko agintzean; arrain-saldoari «burua» harrapatu behar zaio, gidaria harrapatu behar da, bestela, haren atzetik beste guztiak joango dira sare-azpitik.

Sarea arrantzara luzatzean, arrainak berehala sentitzen du zerbait eta urperatu egiten da, bistatik galduz. Sareak X metroko sakonera du, arrain batek sare-azpia pasatzen badu, akabo!, agian, arrainak ihes egin dezake. Egokiena da sare topatzen duenean, arraina jira-bueltaka hastea barruan, sareari jarraituz, beheantz egin gabe. Horregatik, sare ixten denean, begirada guztiak sare-erdian daude. Arraina balego, manio-brak mota bat egingo litzateke; ez balego, beste bat. Arrain-ale batzuk ur azalean agertzen badira: «Barruan da!» entzuten da kuberta guztian eta arraina ontziratzeko manio-brak hasten da arrantzaleek pozez beterik izanez. (Gaur egun zurrupatzailerekin ateratzen dute antxoak sarearen poltsatik). Askotan egiten da, kale, arrantzan. Ohiturik dago arrantzalea, ez du honek harritzen. Etsipen handiz hartzen du egoe-



ra hori, baina nahigabe hori biziki nabarmentzen du berak galdu duen arraina inguruko ontzi batek bere aurrean harrapatzen badu.

Sarea ia erabat biltzen denean eta arraina sarearen muturreko zakuan bilduta ur azalera ekartzen denean, sareari tiraka aritu direnak bordatik arrainari begira geratzen dira une batez. Ez da inor kalkuluak egin gabe geratuko. Jendea ez zen, agian, sarebotaldia ondo irten zelako pozten, harrapatu zen arrainagatik baizik. Ez zeuden kiroltasunez, dirua irabazteagatik baizik.

**Trainerilla**



FD

**Baxurako  
arrantza-  
ontzia  
Inguratze  
sarez  
arrantzan**




Une honetan gogoratzen nahiz arrantzalearen giroari buruzko zertxobait, itsasoan: Arrantzalea, buruz, lehorrean bizi da, nahiz zenbaitetan luzaroan egon itsasoan. Bere burua lehorrean dago: familiaz, andreak, seme-alabez, lagunez... Itsasoan iragaitzaz bizi da, ez du ezer eraikitzen han, uhara («estela») bezalaxe galtzen da haren igarotzea. Ez da aurkitzen arrantzalerik, bizitoki gisa arrantza-ontzia atsegin zaionik; arrantzaleak lehorrean joan nahi du... Ontziratzen duen arrainetik jazotzen du arrantzaleak bere soldata-zatirik handiena; biziki pozten da, beraz, arrain asko sarean ikusten duenean.

Arrantzako uneak tentsio handikoak izaten dira sarritan, eta arraina ur azalera ikusten denean, orduan aprobe txatu behar da arrantza egiteko. Horregatik sare botaldia («etxada») egin eta sarea jaso orduko, han izaten dira bizkor mugitzeko deiak, manio-bra prest dagoen galderak, bakoitza bere tokira joateko aginduak... Giro honetan zail egiten da harrapatu den arrainari buruz ospakizunak egiten hastea; arraina dagoenean, harrapatzen saiatu egin behar da, eta ez beste ezer.

**TRAINADA:** Arrantzu ona egitea batez ere salmenta aldetik.

**Trainada**



**TRAINAREN KAIDA:** Trainaren zabalera luzeraren proportziokoa da..

**TRAINERILLA:** Tostako arraunketan erabiltzen den traineruaren antzeko estropada-ontzia, hura baino txikiagoa. Sei arraunlari eta patroia izan ohi ditu.

Arraunlariak ilaran esertzen dira, bata bestearen atzean, eta normalki ababor eta istribor aldera arraun egiten dute, txandaka, hau da, bakoitzak aurrean duenaren kontrako aldera. Trainerillak 9m. inguruko luzera du.

**TRAINERILLEN ARRAUNKETAKO HITZ BATZUK:** Luzera: 9,5m. gehienez. Pisua: 100 kilo gutxienez. Arraunlari kopurua: sei eta patroia. Patroiaren pisua: Seniorretan, 50 kilo eta gazteetan 45 kilo gutxienez. Estropada-ibilbidea: Senior eta gazteetan, 3.500m.

**TRAINERU:** Traineru hitza berandu agertu zen, hemeretzigarren mendearen bigarren erdialdean; ordura arte, izen orokorragoak ematen zizkieten, hala nola; txalupa edo manjuera. Kondairan zehar ikusten denez, trainerua bat-batean agertzeak bat egingo du garai batean gertatutako gatzunetako bakailao eskasiarekin. Egoera horrek piztu egin zuen itsasbaterreko arrantzaleen sormena, mantenu hautabide gisa sardina gehiago harrapatze-ara begira.



**Traineruak**



Beraz, arrantzarako zurezko txalupa arin hau antzinatik datorrena da. Bere eraikitze lirinarengatik bereizten da. Ontzi arina, bere arraunlariek bizkor propulstaturik eta arku-ebakidura txiki txikiko gila batez hornitua. Horri esker oso ziaboga itxiak egin zitzaketen, ondorioz inguratze sare mota erabiltzeko behar zen arrantza-ontzi bizkor eta maniobra gaitasun handikoa izanik.

Estalki edo kuberta gabea, 11-12 metroko luzerakoa. Arraunez mugitzekoa zeharkaldi luzeetan izan ezik, hau da; arrantza jardura bera arraunez soilik eta ibilaldia haize-oihalez.

Eskifaia 11-14 ontzikoek osatua eta barruko antolaketa pinatzakoen antzekoa, baita tresneria ere. Potin txikiaren itxurako arrantza-ontzia, baina luzeago, beste ontziak baino azkarrago, bere arrantza, antxo eta sardina mugatzen zen gehienbat; (bolintxe, manjua eta antxo-gorrietara txartada, blankirata eta abar izanik). Eta eguraldi onaz, arrantza-ontzi handiekin, neurri batean; kordan eta atunetan.







Estropadetako bandera bat



Atzetik aurrera tostak darama (bakoi-tza bere izenekoa) arraunlariek arraun-ean egiteko. Tostartekoek edo arraunlariek ezberdintzen dira beren jartzeko lekuagatik: Aurrekoa, aurre-ababorra, aurre-istriborra, kontra-gila, espaldako, berrileko, maustako, hanka-istriborra, hanka-keta eta atzeko edo patroio... eta abar.

Merinake eta potinaren arteko arrantzaz-ontzi hau azkarragoa eta arinagoa izanik, antxoatarako eta atunetarako egokiena zen, batez ere izurdeei jarraitzeko, eta bolintxean zebiltzanerako ere bai. Bere bolintxea, nahiz traina, ababorrean eramaten zuen hankakoaren bizkar ondoan. Haize-oiha-lez eta arraunez konpontzen ziren.

Traineruaren neurri orokorrak: 11:5 luze, 1:7 zabal, 0:7 eskora, baita ere 12:5 luze, 2:10 zabal, 0:9 eskora ingurukoak eta bi haize-oihaldun. 8-9 ontziko atunetarako, 10-15-trainerako eta kordarako.

Gaurko traineruak sakonera txikikoak eta oso finak eraikitzen dira, estropadetan erabiltzen direnak bakarrik izanik.



Orioko Amilibia ontziolak eraikitako karbono-zuntzezko traineruaren barren alde



Estropadak

**TRAINERU ESTROPADA:** Euskal arrantzalea hainbat eta hainbat urteetan zehar lehiatu izan da arrantzaz-ontzien norgehiagokaz; izurdeekiko arrantzan, nahiz, arrainaren salmentara porturatzeokan, arraunen indarrez. Ondorioz, lehiaketa hau kirol bihurtua izan da. Ondoren kiroleko trainerua, tostako arraunketan, hamahiru arraunlari eta patroia dituen estropada-ontzia izanik.

Euskal Herrian mantentzen den traineru estropadetako lehen bandera edo zaharrena Ondarroan aurkitzen da. Bere inskripzioa argi dago: *Regata de BILBAO CELEBRADA EL 31 DE AGOSTO DE 1865. UNICO PREMIO DE HONOR.* Bandera hau ondarroarrak irabazia noski, egoera oso onean mantentzen da, Ondarroako arrantzaleen kofradian

Geroago zurezko traineruaren ordezkari karbono-zuntzezkoa erabiltzen hasi

ziren. 1995ean egin izan zen traineruaren moldaketa handiena, karbonozko trainerua egin zenean, eta gaur egun horrekin jarraitzen da lanean. Material honekin egindako traineruak, egurrez egindakoak baino erresistentzia handiagoa dute. Baina, zurezkoaren gainean duten abantaila ez da materialak eman dezakeen arintasun handiagoa bakarrik, baizik eta egitura, zurezkoarena baino zurrungo izatean datza, eta horrenbestez epe erabilgarria ere nabarmen luzatzen da.

Karbono-zuntzezko traineru berriek estropada-eremuan lortzen zituzten emaitza onak ikusita, berehala nagusitu ziren. Eta Orioko Amilibiak eraikitakoek ez zuten denbora askorik behar izan besteen gainetik nabarmentzeko; izan ere, honek gainaldea forma betez hornitu zuen, nolabait lehengo arrantzaz-ontzien antzera.



Ostean, traineru modernoaren iraunkortasuna eta eraikuntzan erabilitako moldea aldatzeko ezintasuna, eutsi duena izan da, zurezkoan ikusten zen diseinu-bilakaerara begira.

Amilibia ontziolan egindakoak dira Kantauri Itsasoan arraunean egiten dutenen traineruak, batelak eta traine-rillak. Izan ere, ontzi horiek egiten dituen enpresa bakarra da Juan Luis Amilibiarena.

**TRAINERU ESTROPADAK:**

Ikusirik estropada hauek duten indarra edo hedapena, hor doaz arraunketarako zehaztasun labur batzuk:

**1-Teknika.** Arraunkadaren aldiak; txalupetan bat eginda aritu behar dute ontzia osatzen duten arraunlari guztiek eta, horretaz aparte, arraunlariak, arraunean, era egokian erabili behar du bere gorputza eta arrauna. Estropadetan sarritan, itsasoan jardun behar du arraunlariak eta arrauna olatu-tuetan erabiltzea ez da erraza. Batetik, arraunak kokaleku finko neurturik ez edukitzean (arraunketa olinpikoan, bai), arraunlariaren ardura da uretan sartzeko makurdura egokia ematea.

Bestetik, beso-lana azkarregi, behar baino lehenago, ez egiten saiatuko da arraunlaria; hain zuzen gorputza, bizkarraren indarrak baliatu behar da, arraunaren ariketa, arraunlariaren joan-etorrian, etengabeko kulunkan egiten baita.



**2-Tostako arraunketa.**

Arraunkadaren aldiak; arraunkadaren ariketa etengabeko mugimendu ziklikoa da, eta hurrengoak arraunkadaren aldiak edo faseak:

**Prestaketa.** Arrauneko arraunkada bukatu ostean, barrualdetik azkar atera beharra dago, beso-lanez gorputza etzanetik lasaiago zutitu ahal izateko eta ondoren, erasoaren bila joateko.



**3-Erasoa.** Arrauna uretan sartzean egindako mugimendu bortitza da eraso. Oso azkarra izan behar du, arraunkadari lehenbailehen ekiteko eta ontziak geldiunerik ez izateko.



**4-Pasaldia.** Arraunak uretan egiten duen ibilaldia da pasaldia. Pala ondo sartuta baina ur-azalean joan behar da, gehiegi ondoratu gabe. Pasaldian besoz egindako azken bultzadari inkatzekoa esaten zaio. Bi azpi-aldietan bana daiteke pasaldia.



**4-Bizkar-lanekoa:** besoak tenkatuta, indarra, gehienbat, bizkarrez eta gorputzaren pisuz egiten da.

**5-Beso-lanekoa:** gorputza etzanda gero besoak bilduz indarra egin behar da, eta azkenean inkatzekoa egiten bukatzekoa da.



**6-Irtentaldia:** arrauna uretatik ateratzean gertatzen den mugimendua da irtentaldia. Bizia eta garbia izan behar du, egindako indarrari eragozpenik ez egiteko. Inkatzekoak eskuak azkar jaistea eskatzen du, errepaleoa txukun ahal izateko.



**TRAINERUEN ARRAUNKETA-KO HITZ BATZUK:**

**Ababor:** Ontziaren ibilbiderantz begira ezkerreko alde.

**Arraun:** Arraunlariak arraunean erabiltzen duen tresna. Hiru mota daude: arraun luzea; patroiaarena da, trainerua zuzentzeko erabilia. Arraunlariaren arrauna: hamahiru dira, teorikoki guztiak neurri berekoak izanik. Txikia; aurrelariak zibogan erabiltzen duen arrauna. Ontzian kateatuta dago eta bakar bakarrik erabiltzen da maniobra egiterakoan.



**Arraun banako era:** Arraunlaria arraun bakar batez aritzen den era.

**Arraunkada edo palada:** Arraunari eragiten zaion aldi bakoitza, hau da, arraunlariak etengabe errepikatzen duten zikloa.

**Arraunkera:** Arraunean egiteko era edo jarduera.

**Arraunketa:** Arraunean eraginez egiten den arraun-saioa, kirola praktikatuz kasu honetan. Ur-kirola, estropada.

**Arraunketa olinpiar:** Eserleku mugikorra ezaugarritzat duen arraunketako era.

**Arraunlari:** Arraunean egiten duen pertsona. Bereziki estropadetan aritzen den kirolaria.

**Arraunlari kopurua:** hamahiru eta patroia

**Atzeko:** Traineruko patroia.





Atzekoa edo patroia.

**Aurreko edo aurrekalari:** Ontziaren branka aldeko lehen arraunlaria, hau da, traineruan brankatik gertuen dagoen arraunlaria.

**Baga:** Itsas olatua (sakonekoa bereziki). Haizeak beste toki batean sortutako olatuen hedapenaren ondorioa, bere abiadura 36 miliakoa izanik.

**Baliza:** Estropada eremua markatzeko erabiltzen den tresna



**Basta osta:** Traineruko laugarren tosta

**Batela:** lau arraunlari eta patroia duen tostako arraunketako ontzia.



**Branka:** Itsasontziaren aurrealdea. Traineruaren branka atalak, gehienez, 0,95 metroko altuera izan behar du.

**Brankari:** Ikus *aurreko*.

**Buruzka:** Tostako ontzien ibilbidean branka uretan nabarmenegi sartu eta atera egiten denean gertatzen den mugimendua.

**Eraso:** Arrauna uretan sartzean egiten den mugimendu azkarra.

**Erregalitze:** Arraunketa olinpikoko ontzietako euskailu, arraunen ointoki eta toletaren txaplatari neurriak finkatzea, arraunlariaren ezaugarri fisikoen arabera, edota estropada-baldintzak (olatuak, haizea eta bar) kontuan harturik.

**Estatxa:** Tostako arraunketako lehiaketarako irteeretan, patroiak abiatze une arte heldu behar duen, irteerabalizako soka, traineru guztiak parekaturik irten daitezzen.

**Estropada:** Itsasontzien arteko norgehiagoka. Arraunketako lehiaketa.

**Estropada-eremu:** Estropada jokatzeko den lekua.

**Estropada ibilbidea:** 5.556 metro

**Estropalari:** Estropadetan parte hartzen duen arraunlaria.



Estropu

**Estropu:** Arrauna toletean lotzeko erabiltzen den sokaz eginiko uztai txiki eta malgua.

**Gila:** Ontziaren azpialdean muturretik muturrera doan pieza, haren egituraren ardatz dena.

**Hankako:** Patroia edo lemazainaren ondoan joaten den eta arraunketa-erritmoa markatzen duen arraunlaria. Trainerutan bi izaten dira.

**Inkateko:** Arraunkadaren bukaeran arrauna uretatik atera aurretik egiten den azken indar kolpea da, errepaleoari ekin baino lehentxeago.

**Irtenaldi:** Arraunkadaren azken fasea edo aldia.

**Istribor:** Ontziaren ibilbiderantz begira eskuineko alde.

**Joaldi:** Estropadetan edota entrenamenduetan hainbat arraunkadako batbeteo saioak, erritmoa gehituz.

**Karel:** Ontziaren albo bakoitzaren goialdeko ertzetako ohol mehea.

**Kina:** Ontziak ibilbidean egiten dituen oker nabarmena.

**Kodasta:** Gila sendotzeko ontziak txopan eta brankan duen goitik beherrako pieza.

**Kulunka:** Ontziak alde batera eta bestera egiten duen higadura. *Txurla*.

**Lantza:** Txalupak ibilbidean olatu gainean egiten duen aldia.

**Lasta:** Ontzian, komeni den sakone-raino murgiltzeko eta egonkortasuna handiagotzeko kargatzen den pisu gehigarria. Lastrea.

**Lema:** Ontzia bideratzeko txopan uretan sartuta doan pieza.

**Lemazain:** Lema erabiliz, ontzia gidatzen duen pertsona.

**Lemazain gabeko ontzia:** Skiffa, scull bikoitza eta laukoitza

**Luzera:** traineruak 12 metroko luzera behar du izan

**Makurdura:** Arraunak uretan sartzean duen bertikaltasun handiagoa edo txikiagoa neurtzen du, eta arrauna uretan gehiago edo gutxiago hondortzea dakar.

**Olatua hartzea:** Beharbada, olatuak hartzeko trainerua egokitzea da patroia zeregirik handiena; izan ere, olatu bakar baten gainean metro asko aurrera daiteke.

**Patroiaren pisua:** 50 kilo gutxienez.

**Pisua:** 200 kilo ingurukoa izan behar du.

**Tiborta:** Eskuen heldu-lekua den arraunaren muturra.

**Tolet:** Estropuz arrauna lotzeko kareletik irteten den egurrezko ziri zilindrikoa.



**Toletera:** Toleta sartuta doan kareleko pieza, txaplata. Toletaren oinarria.

**Tope:** Arraunaren erdi-aldean toletak arraunari eutsi diezaion jartzen den plastikozko pieza.

**Tosta:** Ontzian ababorretik istriborra doan pieza horizontal finkoa, tostako arraunketako ontzietan, eserlekua.

**Tostako arraunketa:** Euskal arraunketako era.

**Trainerilla:** Traineruaren antzeko



estropada-ontzia, hura baino txikiagoa. Sei arraunlari eta patroia dituen tostako arraunketako ontzia.

**Traineru:** Tostako arraunketan, hamahiru arraunlari eta patroia dituen estropada-ontzia.

**Trinkatze:** Ziabogetan aurrekoak maniobra gauzatzean laguntzeko arraun txikia, trinka, uretan sartzean



Trinkatzen

egiten duen mugimendua.

**Txalupa:** Tostako ontzia orokorrean. Bereziki horrela esaten zaio.

**Txaoza:** Traineruko bigarren tosta.

**Txanda:** Estropadetan ontziak banatzeko egiten diren saioak.

**Txanpa:** Arraunkada biziko estropadaren zatia.



Txanpa

**Txantel:** Toletaren altuera igotzeko erabiltzen den egur-xafla.

**Txopa:** Ontziaren ibilbideari begira jarrita, haren atze-aldea. Traineruko txopa atalak, gehienez, 0,75 metroko altuera izan behar du.

**Txumazera:** Euskailuaren kanpoaldeko muturrean arraunlari eusten dion plastikozko pieza, (iraganean zurezkoa).

**Ubera:** Ontziak ibileran uretan uzten duen arrastoa.

**Xurkatze:** Ontzitik ura ateratze.

**Ziaboga:** Estropadetan arraun-ontziak biratzeko alde bateko arraunlariak ziatzea eta bestekoak bogatzea; delako eragiketa egiten den estropada-eremuko tokian.

**Ziaka:** Arraunean ziatuz aritzea.



Ziaboga


**Ziatu:** Bogaren kontrako arraunketa egin, ontzia arraunlariak begira dau den aldera higitzeko.

**Zuaker:** Gilatik irteten den pieza kurbatua, ontziaren egitura osatzen duena.



Bizente Elizondo Ortzaiakako lantegian trainerilla eraikitzean zuakerrak aurretik atzera.

**TRAINKADA:** Trainean nahiz bolintxean arrantzu handia harrapatzea.



Trainkada

**TRAINOLA:** Arrantza-ontzian trainaren azpian ipintzeko ohol soltea.

**TRAMAN:** (*Aquila marina* edo *Myliobatis aquila*). Miliobatidoen familiako arrain kondriktiea, arraieren eta bastangaren tankera bateko arrain zabala. Erronbo-formako gorputz zapala eta arrexka du, bizkarraldean oliba-koloreko distirak ageri dituen, eta sabelaldea zurixka. Horrez gain, ezten pozoitsudun luze bat dauka isats luze zigor modurakokan. Larruazala leuna, mehea eta likatsua du. Sabel-hegatsak lau angeluarrrak ditu, ez du uzki-hegatzik. Ahoa, berriz, plakatan soldatutako hortzez horniturik dauka.

Arrain iaioa, gorputz handirakoa eta haragi zuri-zurikoa.

70-200metro bitarteko hondo hondar-



Tramana

tsu edo basatsuetan bizi da; batzuetan, hala ere, nahiko hurbiltzen da kostaldera, udaberri aldean gertatzen baita. Orduan 25 metroko sakoneratik aurrera aurki daiteke.

**TRANPAKO GOIBURU:** Trainaren hegal bietan (txikotean eta eskuan) sareari egiten diren errefortzuak.

**TRASKO:** Larruzko edota oholezko oinetakoa; portuan arrain lanean, arrain lantegian eta abar erabiltzekoak, hezetasunetik eta hotzetik babes-teko.



Hiru koskorreko traskoak

**TRASKOBOTAK:** Arrantzalearen itsasorako oinetakoa, oholez eta olonaz eginak, oinetik belauerainokoa.



Traskobotak

**TRASMAILU:** Bata bestearen gainean jarritako hiru sarek osatutako sare-mota mehea. Erdikoak beste biak baino sare-begi edo zulo txikiagoak izaten ditu. Sare honetan, arraina kanpoko sarearen barrena sartzen da, barrukoan harrapatuta geratzeko. Sare hau, itsasertzean horizontalean egoten da berunek behetik eta kortxoek goitik mantenduaz.

**TRASMAILU ARRAINA:** Trasmaluarekin arrantzatzen den arraina. Haitz hondo eta itsas ertzean arrantzatzen da.

**TRASMAILU ARRANTZA:** Sarea itsas ertzean aldi baterako luzatuta uztean datza, arraina bertan mailatzeko.


Patxi Etxaburu Ajarrista

ONDARROA, EUSKAL KULTURAREN KABIA

# ONDARRUTARRON KULTURA EKOIZPENA



olerkiak



«Lehen amodioa»  
ARANTZA IBARRA

ipuinak



«Gaua Balkoian»  
LEIRE BILBAO



«Sekretuaren zaporea»  
ANA URKIZA



«Zer gertatzen zaio eguzkiari?»  
ARANTZA IBARRA



«Telina,  
Banpiroaren etxean»  
ARANTZA IBARRA

eleberria



«Mussche»  
KIRMEN URIBE

## zinea

## historia

dokumentala



«TXIFARRA»  
JUAN BIDEGAIN

film laburra



«SENTIMENDUN ITSOSU»  
JON ZABALA/ EIN DAIGUN BIDI  
<http://eindaigunbidi.blogspot.com.es/2012/01/sentimendun-itsosu.html>

film luzea 3Dn



«MORRITSON ETA GARTZIA»  
AIERT GOENAGA




Emakumeen eta mugimendu feministaren oroimena Ondarroan, euren aztarnen bitartez  
Berdintasun Kontseilua



Ondarroako Emakumeak herriko partaidetza politikoan eta sozialean  
Berdintasun Kontseilua



Itsasotik bizi!  
Berdintasun Kontseilua



HONDARROA 2012.  
OHZ



«Arranondo»  
ARRANONDO ELKARTEA

## jaialdia



Aitzol Aramaioaren omenez, I.MARABILLI SORMEN FESTIBALA • MANUELISTAK

literatura



# GRAFFITIAK >

Ion Iñaki Artetxe Egaña





Luze joko luke adierazpen honen inguruko zehaztasun guztiak azaltzea, eta nik baino gehiago dakien batek egin beharko luke. Aurkezpen hau, orrialde hauetan ikusiko dituzun irudiak egiteko grina, nondik datoren argitzeko asmoarekin egin dut.





>
A skorentzat, lardaskeria hutsa da, zikinkeria, antiestetikoa, kaosa eta lege ezaren adierazle... Beste batzuentzat ordea, hirietako hormigoizko paretetan sortzen diren lore ikusgarriak dira, egunero udaberri koloretsua irudikatuz...

Ez da gaurkoa hormetan zerbait idaztea edo marraztea. Ez dugu esango Santimamiñeko irudiak graffitiak direnik, ez horixe. Baina arkeologoei esker badakigu erromatarrek grafito (graffiti hitzaren jatorria) lizunak idazten zituztela bainu publikoetan. Gaur egun ere horrelakoak aurkitu daitezke edozein tabernako komunetan.







II Mundu Gerran Estatu Batuetako soldadu batek «Kilroy Was Here» (Kilroy hemen izan da) esaldia idatzi zuen izan zen leku guztietan. Gure artean, pintadak ezagutu izan ditugu, diktaduraren garai gogorrenean ere. Aldarrikapena adierazten duten azkar idatzitako esaldi soilak, edo asko landutako irudi ikusgarriak ikusteko aukera izan dugu. inoiz Irlandako Belfasteko irudi landuen mailara heldu gabe. Beraz, antzinatek dator pertsonen hormetan idazteko grina, eta historian zehar ez du etenik izan.

Dena dela, gaur egun kaleetan aurkitzen ditugun pintadak, beste tankerakoak dira. Hiriko edozein lekutan norberaren sinadura edo ezizena («Tag») jartzea, Estatu Batuetako hirietan sortu zen 60. hamarkadan, beltzen auzoetan (getho). Gerora Hip-Hop kultur mugimenduari lotu zen. Orain mundu guztira zabaldu da, Ondarroara ere bai.

Sinadura estetikoak izan behar du, deigarria eta, aldi berean, edozein momentuan azkar egiteko modukoa. Klandestinitatea eta ezusteko edo leku arriskutsuetan idaztea («Writing») ere, norberaren inguruan eragina izateko joera honen ezaugarrietako bat da. Sorleku edo garaiekin arbera estilo estetiko eta kode desberdinak sortzen joan dira. Graffiti nabarmenenak egiteko espraiezko margoak erabil-

tzen ba dira ere, errotuladore lodiak graffitiroen ezinbesteko tresna dira.

Sinadurak, esaldiak, ikonoak edo irudi landuak spraeiz egitetik, plantilak erabiltzera eta paperean aurretik margotutako diseinuak egitea, graffitiaren bilakaeretakoa bat izan da. *Post-Graffiti* edo *Street Art* legez ezagutzen da joera berriago hau.

Graffitiro bat baino gehiagok museo ospetsuetan bere lanak erakusteko aukera duenean, gogoratu behar da graffitiak egitea debekatuta dagoela eta poliziak harrapatuz gero isun handiak jartzen dituztela.

Behin, Radixu Irratiko Azken Mohikanoak irratsaioan graffitia, pertsona zenbaki hutsa izatera bultzatzen duen gizartearen aurrean sortutako autoafirmazio eta errebeldia jarrera bat zela esan nuen. Gero, Berdura Plaza atzean, graffiti instituzionalak estali zuen ezkutuko graffiti bat irakurri nuen; «*Graffitia ez da errebeldia, adierazpena da*». Ez dakit esandakoari erantzuna izan ba zen...

*kan.* (Artetxe Egaña)



# AKATSAK ZUZENTZEN

## HONDARROA 2009

- "Ondarrutar ertzainak" artikulua argitaratu genuen 127. orrialdean. Geroago jakin genuen, familiakoei esker, ertzain bat falta zela: **DOMINGO ARANTZAMENDI ANAKABE** "Kontzeatanasione ku".

## HONDARROA 2011 >>>

- 141. orrian, goiko argazkian: Berriaturako osteran barik Markinarako osteran, Urberuagan da.



Antiguako Ama Markinarako osteran, 1949ko maiatzean. Urberuagan.

## HONDARROA 2011 >>>

- 141. orrian, beheko argazkian Kataline Etxebarria barik Eleuteri Etxebarria da.

1950ean. Zutik ezkerretik: Hankamotzeneko X. Lasarte, Xaguneko Florita Egia, Miren Bedialauneta Koji, X. Lasarte eta Hankamotzeneko X. Lasarte. Eserita: Kontxa Ibarloza, Kikirrineko Lide Azoiri, Eleuteri Etxebarria eta Motxineneko Rosario Zendoia. Aurrean: Maritxu Solabarieta Panderitto, Arraraneko Mamerta Larrinaga eta Txaketeneko Maritxu Badiola.



## HONDARROA 2011 >>>

- 147 orrialdean: Dolos Irueta barik, Dolos Arantzamendi da

Jarraitu zuen informazioa bidaltzen, gure zerrendak osatzen joateko. Eskerrik asko!



1964. Arrantzale bizitzako apainketa Txomin Agirrerren jaiotza-  
ren urteurrenean. Ezkerretik: Josepa Gimeno Akerra, Migel  
Xaguneko Dolos Arantzamendi eta Rotxileneko Adela Bakeriza.



ME AND

COMPANY 5  
K, S.S.A.

**O**ndarroaren gaineko datu historikoak arakatzeari ezin diezaiokegu utzi. Izan ere, artxibategietara joz gero, badago gure herriaz zer aurkitu eta zer ikertu. Hori dela eta, edozein artxibategitan gure herria aipatzen den edonolako agiriekiko interesa, azterketa etabere plazaratzea da OHZk bere betebehartzat hartuta daukana, OHZkoek argi baitaukagu herri baten historia funtsean herriaren historian bertan izandako hainbat gertaeren uztarketa dela. Beraz, hori da OHZkoen zeregin nagusia inongo zalantzarik gabe. Eta jakina, aurkitutako guztia zabaltzea eta jakinaraztea. Latinezko esaera batek dio: «Verba volant, scripta manent» (Berebek hegan egiten dute; idatziek, iraun). Eta balioko dute hurrengo belau-naldikoentzat. On egin dagizuela.



**ONDARROAKO  
HISTORIA ZALEAK**

San Inazio, 35 • 48700 ONDARROA (Bizkaia) • 94 683 11 35 • [ohzaleak@hotmail.com](mailto:ohzaleak@hotmail.com)  
[www.ondarroakohistoria.wordpress.com](http://www.ondarroakohistoria.wordpress.com)